

+



Onintze Lonbide, rally denboraldia hasteko gertu

Asier Amondori elkarrizketa, 21. Korrikaz



Hiru aramaioar, Arabako bertsolari onenaren txapelaren bila

Zapatuan jokatu da Arabako Bertsolari Txapelketaren finala. Sei finalisten artean, hiru aramaioar izango dira / 40

Xabi Igoa, Peru Abarrategi eta Manex Agirre, martitzenean, Gasteizko Printzipal antzokian, zapatuan Arabako Bertsolari Txapelketa jokatu den lekuan.




JAGOBA DOMINGO

Frankismoak Antzuolan eragindako zauriak azaleratu nahi dituzte erakusketa batekin / 24



1979ko lehen udal hauteskundeetako alkateak omenduko ditu Eudel elkarteak Gernikan / 2

SINADURAK

 OSKAR ELIZBURU / 6	 MAIDER ALDAI / 17
 HORAZIO ARGARATE / 13	 JOSU ZUBIA / 35
	 AGURNE BARRUSO / 48

ORDU ALDAKETA

Udako ordutegia estreinatuko dugu domekan: goizeko ordu bietan, hirurak izango dira.





Eli Galdos, 1983an, bulegoan. ANDRES ARLANZON-OÑATIKO UDAL ARTXIBOA



Ardanza, Iturbide egoitzan, 1982an. ARRASATEKO UDAL ARTXIBOA



Zabala, 1979an, alkate kargua hartu zuenean. BERGARAKO UDAL ARTXIBOA

Eneko Azurmendi DEBAGOIENA

Francoren diktadura luze baten ostean, 1979ko apirilaren 3an egin zituzten demokrazia garaiko lehen udal hauteskundeak, duela 40 urte. Hain zuzen ere, urteurren hori gogora ekarriko dute datorren apirilaren 5ean Gernikako Batzarretxean egingo duten ospakizun ekitaldian -12:00etan hasiko da-.

Eudel-ek, Euskadiko Udalen Elkartek, antolatu du ekitaldia. Hala, legegintzaldi honetako azken batzar nagusia egiteaz gain, Euskadiko udalentsat "balio historiko eta sinboliko handia" duen egun bat gogoratuko dute astebete barru.

1979an, 228 udalerri osatzen zuten Euskal Autonomia Erki-degoa. Beraz, 228 alkateri egingo diete omenaldia -horietatik lau bakarrik ziren emakumeak-. "Nolanahi ere, lau hamarkada hauetan zehar Euskadiko udal-lerriek aurrera egiteko jardunean aritu diren 2.400 alkateri baino gehiagori ere zabalduko zaie aitortza hori", dio Imanol Landa Eudeleko elkarteburuak. "Gizartearen denboran heldu gara, eta, honezkero, udalak ez dira zerbitzuak ematen dituzten administrazioak huts-hutsik. Herritarrentzat, beraiengandik hurbilen dagoen gobernu gara; beren udalerraren errealtateari itsatsita lan egiten duena eta udalerraren buru dena, betiere, herritarrekin, eragile sozialekin eta gainerako erakundeekin erlazioan", gaineratu du.

Makila, eskuz esku, 40 urtez lemapean, "makilaren ondarea" izango da omenaldiaren haria. Landaren esanetan, "eskuz esku" transmititzen da, herritarrekiko konpromisoaren "sinbolo gisa" ez ezik, "bidaide" gisa ere bai, "herrien eta hirien etengabeko

1979ko alkateak gogoan: 40 urte

Datorren apirilaren 5ean, diktaturaren ondoren egin ziren lehen udal hauteskundeen 40. urteurrena ospatuko du Euskadiko Udalen Elkartek Gernikako Batzarretxean, eta demokrazia garaiko lehen alkateak omenduko dituzte, egin zuten lana balioan jarrita

hobekuntzarako eta garapen iraunkorrerako zereginetan".

Hauteskundeak Debagoienean

Lehen udal hauteskunde haietan, EAJ nabarmendu zen guztien gaintik. Debagoienari dagokionez, udalerririk guztietan gailendu ziren jeltzaleak, Elgetan izan ezik. Izan ere, Patxi Basauri independente moduan aurkeztu zen hauteskunde haietan, eta hark irabazi zituen. Basauri

izan zen, hain zuzen, hauteskunde haien ostean karguari eutsi zion bakarra -beheko taulan ikusten denez-.

Bizipenak, lehen pertsonak

Gernikako ekitaldian, 1979ko eta egungo alkateetako batzuek bizipenak eta egoerak trukatu zituzte. Orduko alkateen izenean, Jose Antonio Ardanzak hartuko du hitza, hauteskunde haien ostean Arrasateko alkate

kargua hartu zuenak, hain zuzen. "Garai haiek nolakoak izan ziren gogoratuko dugu", azaldu du. Bi sentimendu nagusitzen zaizkio. "Batetik, poztasun itzela. Hauteskundeak ilusio handiz hartu genituen, eta pentsatzen genuen demokraziarekin eta askatasunarekin arazo guztiak konponduko genituela. Gero, ordea, errealtatearekin topo egin genuen, eta ez zen inondik ere guk espero genuena".

Hasiera hartan "zailtasun handiak" izan zituztela azpimarratu du. "Hasierako urteak oso zailak izan ziren. Udalak zorrez beteta zeuden, baliabide gutxi genituen eta arlo askotan hutsetik abiatu behar izan genuen. Gainera, langabezia-tasa altua zen, Arrasateko biztanleria asko jaitsi zen urte gutxitan, drogak gogor jo zuen garai hartan eta mendekotasuna zuten gazte askok. Indarkeria ere handia zen".

Egoera politikoa nahasia zen, Ardanzaren esanetan. "Hasieran amorru itzela zegoen eta osoko bilkurak oso gogorrak izaten ziren. Gero, apurka-apurka, ikasten joan ginen guztiok eta geroz eta hobeto konpontzen hasi ginen". 1981eko estatu kolpea ere gogoan du. "Guztia pikutara joango zela pentsatu genuen, baina, azkenean, susto bat bakarrik izan zen", dio.

"Garai berri bat"

Jesus Mari Herrasti orduko Aretxabaletako alkateak oroitzen onak ditu. "Oso esperientzia aberasgarria izan zen hura niretzat. Garai berri bat hasi genuen, eta gauza berria zen guretzat. Aukera paregabea izan zen gauza asko egiten hasteko, zerotik edo ia zerotik. Izan ere, ordura arte ez zegoen hainbeste baliabide eta hainbat gauza geldik zeuden. Horrez gain, gogoratzen naiz gu sartu ginenean 19 milioi pezetako aurrekontua genuela. Oso diru gutxi zen hori 6.000 biztanleko herri batentzat", adierazi du.

Oro har, instituzioak "martxan jartzen" ari ziren oraindik. "Mankomunitatea ere martxan jarri zen, eta Debagoieneko herritako alkateekin harremanak sortu genituen, hainbat proiektu martxan jartzeko. Elkarri laguntzen

Francoren osteko lehen udal hauteskundeak (1979)

Herria	1979an alkate sartu zirenak	1979an alkatetza utzi zutenak
ANTZUOLA	Francisco Legorburu	Antonio Etxaniz
ARAMAIO	Jesus Zabala	Julian Untzueta
ARETXABALETA	Jesus Mari Herrasti	Jose Kruz Etxebarria
ARRASATE	Jose Antonio Ardanza	Jose Antonio Altuna
BERGARA	Jose Antonio Zabala	Jose Luis Elkoro
ELGETA	Patxi Basauri	Patxi Basauri
ESKORIATZA	Felix Barandiaran	Javier Errasti
LEINTZ GATZAGA	Jesus Fernandez Arroiabe	Teodoro Plazaola
OÑATI	Eli Galdos	Jose Maria Leturia

ITURRIA: DEBAGOIENEN UDALAK

genion, egoera guztiontzat zela-ko berria, eta hori oso gauza polita izan zen. Gero, pixkanaka, forma hartzen joan zen guztia", azpimarratu du.

"Arazo potolo" bat zegoen garai hartan: ur falta. "Urkuluko urtegia oraindik egiteke zegoen, eta arazo handiak izan genituen urte batzuetan. Orain ez ditugu halako gauzak hainbeste apreziatzen, baina... Orain normalak diren gauza asko garai haietan ez zeuden. Saihesbiderik ez zegoen, trafiko guztia kaletik pasatzen zen, eta abar".

Hautesle-eroldaren eboluzioa

Duela 40 urte, 1.547.472 pertsona deitu zituzten bozetara -%62,02k eman zuten botoa-, 228 udalerriko ordezkariak aukera zitzaten. Guztira, 2.428 hautetsik ordezkatu zituzten, 26 talde politikok eta independenteek.

2015eko udal hauteskundeetan, berriz, hautesle-errola 1.726.764 pertsonak osatu zuten -%63,84k eman zuten botoa-. 251 udal zeuden orduan, egun 2.633 hautetsik osatzen dituztenak -bederatz alderti politikoko eta independenteak-.

Jose Luis Elkorori omenaldia Bilbon

EH Bilduk MugiDa topaketa egingo du bihar, zapatua, Bilbon, "komunitatea elkartzeko" helburuarekin. Egun osoko egitaraua prestatu dute, eta askotariko ekintzak egingo dituzte. Hala ere, nabarmentzekoa da Jose Luis Elkorok Bergarako alkate ohiari Plaza Berrian egingo dioten omenaldia, 12:00etan. EH Bilduk autobusa antolatuta du eta 11:00etan irtengo da geltokitik.

Izena emateko aukera dago Pol-Pol eta Arrano tabernetan. "Bergararen eta Euskal Herriaren historia markatu duen pertsona goraituko da ekitaldian. Alkateen Mugimendua sortu zuen, Euskal Herrian erreferente izan diren eta diren hainbat aldarrikapen izugarritzko indarra emanez: euskararen ofizialtasuna, ikurrinaren legeztatpena, preso politikoen amnistia, estatutu nazionala...", azaldu du koalizio abertzaleak, eta gaineratu Elkorok bere bizitza



Elkorok, Alkateen Mugimenduaren sorreran, 1976an, Bergarako plazan. J.L.E.

osoan egindako aldarrikapenak bere egiten dituela EH Bilduk: "Bakea, justizia soziala, adierazpen askatasuna, preso politikoen eta Euskal Herriaren askatasuna. Horregatik da gure bidelagun, horregatik gu beti izango gara bere bidelagun".

Frankistei aurre eginez, alkate Elkorok adierazi du "sorpresaz" hartu duela omenaldia jasotzeko ideia. "Ez nago prestatuta horrelako omenaldi bat jasotzeko, baina egin genuen lanari aitortza bat da, eta pozik

onartu dut. Hala ere, guk ez genuen lan egin omenaldiak jasotzeko, herriari laguntzeko baizik", dio.

Herrigintza zainetan eraman izan du beti. "1969an, herritar talde bat elkartu, eta Alkartunai elkarte sortu genuen, eta ni zuzendaria nintzen. Lan asko eta interesgarriak egin genituen: zaharren egoitza, ambulatorioa, gorren egoitza, eta abar".

Hala ere, instituzioetan frankistak ziren nagusi. "Lan handia egiten ari ginen, baina udal guztiak frankistak ziren, eta

horrek mugatu egiten gintuen, nolabait. Guk gure nahiak eta proiektuak aurrera eraman gura genituen, baina udaletik".

1976ko otsailaren 2an hartu zuen alkate kargua. "Udalan frankistek agintzen zuten, nahiz eta gu gehiengo izan. Arias Navarro Espainiako presidente zela, lege berri bat ezarri zuen, eta lege horrek zioen 10.000 biztanletik gorako herrietan posible zela zinegotziak alkate izendatzea. Ni Kultura zinegotzi nintzen, aukera hori baliatu, eta ni izendatu ninduten alkate".

Urte bereko uztailaren 21ean sortu zen Alkateen Mugimendua. Euskal Herriko 65 bat udalerriko alkateak batu ziren egun hartan Bergaran. "Aurrez, hitzaldiak egiten genituen Euskal Herri osoan, eta babes handia geneukan. Presioagatik edo, alkate frankistak dimititzen hasi ziren, eta gure ildo bereko alkateak jarri ziren. Egun hartan, Bergaran batu ginen guztiok".

Debagoieneko PROFESIONAL LIBERALAK



ABOKATUAK

BERNARDINO MAIZTEGI

BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

BEGOÑA LASAGABASTER

ARRASATE / Iturriotz 15, 1 A
Tel.: 943 79 98 86
Faxa: 943 77 01 08
blasaga@conet.es

RAFAEL ARANBURU

BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

AHOLKULARITZAK

ANDRA MARI AHOLKULARITZA

ARETXABALETA / Andra Mari auzunea 3
Tel./Faxa: 943 79 29 26
andrama@arrakis.es

GARRAILAN

BERGARA / Mabilategi 36
Tel.: 943 76 90 83

ARKITEKTOAK

BIARK ARKITEKTOAK

ARRASATE / Usatxe plaza 1, behea
Tel.: 943 79 80 33
www.biark.net

ETXE ADMINISTRAZIOAK

URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK

ARRASATE / Pablo Uranga 3, behea
Tel.: 943 79 51 25
Faxa: 943 71 19 85
uribesalgo@uribesalgo.es

Miriam Urkia euskaltzain osoaren sarrera-hitzaldia

Miriam Urkia euskaltzain osoak sarrera-hitzaldia eskainiko du bihar Aretxabaletan, Arkupe kultura etxeke Zaraia aretoan, 12:00etan, euskaltzain guztien, instituzioetako ordezkarien eta herritarren aurrean. Urkiak Torrealdairen lekua beteko du

Amaia Zabala ARETXABALETA

Miriam Urkia aretxabaletarra euskaltzain oso izendatu zuten Roberto Gonzalez de Viñasprekin batera 2018ko otsailaren 23an, eta, urtebeteren ondoren, sarrera-hitzaldia eskainiko dute, nork bere jaioterrian.

Miriam Urkia aretxabaletarra izanik, bertan izango da sarrera-hitzaldi ekitaldia bihar, zapatua, 12:00etan, Arkupe kultura etxeke Zaraia aretoan.

Euskal Filologian doktorea da, UZEIko langilea 1983a ezker, Lexikografia Saileko zuzendaria 1992a ezker, eta, teknologiei lotutako lan lexikografikoekin batera, Euskaltzaindiari lotutako lanetan dihardu. Hiztegi Batuko lantaldeko kide da 1999a ezker eta Euskaltzaindiaren Hiztegiaren arduradun 2013a ezker. Euskararen Aholku Batzordeko kidea ere bada, 2007tik.

Hori dela eta, sarrera-hitzaldia hiztegiaren gainean izango dela aitortu du Urkiak: "Hori ezagu-



Miriam Urkia euskaltzain aretxabaletarra. IMANOL SORIANO

tzen dut eta". *Hiztegitik kofradiara* izango da hitzaldiaren izenburua, eta, ohikoa den moduan, euskaltzain batek beste hitzaldi batekin erantzungo dio; Andoni Sagarna euskaltzain donostiarra izango da arduraduna

eta *Badator aire freskoa* izeneko hitzaldiarekin erantzungo dio.

Horren ostean, Aretxabaletako euskaltzainak kargu berriaren zina egingo du eta diploma eta domina emango dizkiote. Euskaltzaindiaren esanetan,

"euskararen alde orain arte egin dituen lanen esker-erakutsiz eta gerokoan pizgarri" izan da hautatua lankidetzat Urkia.

Sarrera-hitzaldia

Urkiak gaineratu du "gogorra" izan dela sarrera-hitzaldia prestatzea, batez ere, Euskaltzaindiaren mendeurrena izanik, jardunaldi askoko urtea izan dela iritzita: "Ekitaldi ugari izan ditugu aurten; Arantzazuko jardunaldia eta dialektologia bitzerra, esaterako. Eta, ondorioz, gai askotan ibili naiz eta ezin izan naiz sarrera-hitzaldian nahi adina zentratu".

Urkiak 40 minutuko sarrera-hitzaldia prestatu du; horrela eskatu zioten, eta denbora errespetatu egingo duela azaldu du. Gainera, ekitaldi irekia izanik, guztiek ulertzeko moduko diskurtsoa izatea kontuan izan duela argitu du.

Urkiak aitortu du "polita bada ere ardura puntu bat" duela sarrera-hitzaldia herrian egiteak: "Oso polita da sarrera-hitzaldia nire herrian egitea, familiakoen eta lagunaren aurrean. Gainera, orain, lanagatik, Donostian bizi naiz eta nahi baino gutxiago joaten naiz Aretxabaletara, batez ere, urte honetan, asteburuetan sarrera-hitzaldia prestatzen aritu bainaiz, eta faltan igarri dut herria. Dena den, aitortu behar dut sentsazio berezi bat eta aparteko ardura bat ere sortzen didala horrek".

Torrealdairen ordezkari

Joan Mari Torrealdai euskaltzain emerituaren lekua beteko du aretxabaletarrak, baina Urkiak argi esan du "Joan Mari ordezkatu ez, partekatu" egingo du-tela 29. aulkia: "Joan Mari Torrealdai ordezkazina da, eta, egia esan, haren merituak eta ibilbidea ikusita, txiki geratzen naiz haren ondoan. Gainera, Torrealdai Euskaltzain izaten jarraituko du eta batzarretara ere joango da".

Ordezkaritza zabala ekitaldian

Biharko ekitaldia ageriko bilkura izango da; beraz, interesa duen edonor joan daiteke Arkupe kultura etxera.

Euskaltzainei dagokienez, guztiak, euskaltzain osoak, ohorezkoak eta urgazleak joango dira sarrera-hitzaldira. Gipuzkoako instituzioei dagokienez, Batzar Nagusiko kide guztiak eta administrazio nagusietako ordezkari guztiak daude gonbidaturik, eta, Debagoienari dagokionez, berriz, Mankomunitateko eta udaletako ordezkari zabala izango da. Amaitzeko, Urkiaren UZEIko lankideak ere bertan izango dira.

AGERIKO BILKURA IZANIK, INTERESA DUEN EDONOR JOAN DAITEKE BIHARKO EKITALDIRA



GOIENA

Deskargako autobidea zabalik

Martitzenean zabaldu zuten bost kilometro luze den Deskargako errepide zatia. Horrekin amaitzen da Beasain eta Bergara arteko korridorea. Azken zatia egiteko obrek 25 hilabete iraun dute, lehen-dik geratuta zeuden lanak proiektu berria eginda

berrabiarazi ostean. 43 milioi euroko inbertsioa egin du Gipuzkoako Foru Aldundiak. 9.000 ibilgailutik gora igaroko dira egunero bertatik. Hasieran doanekoa izango da, baina aurrerago bidesaria jartzeko asmoa du Diputazioak.

Hemeretzi plaza berri adinekoen egoitza zentroetarako

Gipuzkoako Diputatuen Kontseiluak 2019. urtean 236.598,01 euroko inbertsioa egitea adostu du

Amaia Zabala DEBAGOIENA

Mendetasun-egoerek eragindako beharriari aurre hartu eta erantzuteko zerbitzuak eskaintzeko zenbait entitatekin sinatutako lankidetzak hitzarmenak eta kontratu-programak indartzea onartu du Diputatuen Kontseiluak.

Adinekoen egoitza zentroetarako hemeretzi plaza berri onartu dituzte eta horietatik bi Aretxabaletarako izango dira. Plaza guztiak aurten sartuko dira indarrean eta Imanol Lasa foru bozeramaileak jakinarazi du

erabaki horren helburua dela "zerbitzu horien eskatzaileen lurraldeko hainbat eskualdetan dagoen itxaron zerrendari erantzuten jarraitzea".

Halaber, Casa Hermanas Hospitalarias Aita Menni erakundearekin sinatutako lankidetzak hitzarmena 37.689,60 euroko gastu osagarriarekin indartuko du Aldundiak, laguntza psikosozial komunitarioko programan hitzartutako plazzen kopuruan hamar plaza gehitzeko. Egungo eskaintza bikoiztea ekarriko du erabakiak.

"Prostituzio-etxeetan abusurako objektu bat zara"

AMELIA TIGANUS AKTIBISTA FEMINISTA, PROSTITUZIO ETA SALEROSKETAREN BIZIRAULE
Amelia Tiganusek (Galati, Errumania, 1984) hitzaldia egingo du apirilaren 1ean, 19:00etan, Arrasateko Kulturateko areto nagusian, Ezker Anitzak antolatuta

Amaia Zabala ARRASATE

Talde bortxaketa bat jasan zuen 13 urte zituela, eta, geroztik, hainbatetan errepikatu da amesgaiztoa. Nerabe zela, Espainiara prostituitzera joatea proposatu zioten, bizitza konponduko ziotela esanez. Bost urte ibili zen prostituta, eta, gaur egun, prostituzioaren eta emakumezkoen salerosketaren aurkako ekintzailea da.

Prostituzio-etxeak kontzentrazio-esparruekin konparatu ohi dituzu; zegatik?

Prostituzio-etxeek gizatasuna kentzen dizute eta emakumeok erabilera eta abusurako objektu bihurtzen gaituzte. Besteek nahi duten modukoak izan eta jardun behar dugu. Horretaz gain, kontzentrazio-esparruetan bezala, hainbat diziplina daude dutxatzeko, jateko edo penetrazioaren tortura orduetan jasan dugun logela berean lo egiteko, esaterako. Humanitate guztia kentzen digute eta identitatea galtzeraino iristen gara; ondorioz, zail egiten zaigu geure burua izaki bezala ikustea.

Prostituziotik ateratzean, gizartearen babesik izan zenuen?

Erabateko isiltasunean eta diskrezio handiz atera nintzen; izan ere, hasiera batean, sekulako lotsa, kulpa eta kanpoko munduarekiko beldurra nituen. Ni jasotzeko prest ez zegoen eta gaia arinkiaz tratatzen zuen gizarte bat topatu nuen. Prostituta izateagatik emakume txarra naizela zioen gizarte batekin hain zuzen. Baina, denborarekin, inguru lagungarri bat topatzeko zortea izan nuen, eta, lanketa baten ondoren, bizitzarekin berriro konektatzen hasi nintzen. Behin aktibista eginda, berriz, *Femicidio.net*-eko kideen babes osoa izan nuen, eta haiei esker nago gaur nagoen lekuan.

Zegatik egin zinen aktibista?

Feminismoaren berri izan eta neure buruarekin adiskidetu



Amelia Tiganus estatu osoan dabil hitzaldiak egiten. AMELIA TIGANUS

"ARGI IKUSI DA PROSTITUZIOAREN LEGEZTATZEAK EZ DITUELA PROSTITUTEN BALDINTZAK HOBETU"

ostean izan zen. Beldurraz, lotsaz eta errudun sentazioaz liberatzean bihurtu nintzen aktibista. Ezin nintzen bakean bizi, jakinda nire istorioa mundu osoko milioika emakumeren egunero-ko istorioa zela gizarteak beste aldera begiratzen zuen bitartean. **Zein dira prostituzioak eta salerosketak utzi dizkizun ondorio fisiko eta psikologikoak?**

Fisikoki duela 12 urte atera nintzen, baina nik uste dut oraindik ere egunero irtetzen naizela pixka bat prostituziotik. Izan ere, bizitzarekiko eta emozioekiko deskonexioa osoa bizi izaten dugu eta pixkanaka ari naiz berreskuratzen. Bestalde, oraindik ere gauetan argia piztuta egiten dut lo, amesgaiztoekin esnatzen bainaiz, eta kosta egiten zait errealtatera bueltatzea; beraz, argia piztuta izanik, esnatu eta etxean nagoela ikusita

eta ez putetxe batean edo beste edonon bortxatua izaten, bada, berehala lasaitzen nau.

Ze iritzi duzu prostituzioa legeztatzearen inguruan?

Gizarteak diskurtso proxeneta du orokorrean, eta, asmo onekin bada ere, ezjakintasunetik hitz egiten dute. Ondorioz, beste herrialde batzuetan frogatu diren eta funtzionatu ez duten irtenbideak proposatzen dituzte. Prostituzioaren legeztatzea, esaterako, beste herrialde batzuetan frogatu dute dagoeneko eta argi ikusi da ez dituela emakumeen bizi baldintzak hobetu; proxenetak enpresa-gizon bihurtu ditu eta herrialde horietako putazaleek jaso duten mezua izan da guztiz legitimoa dela eurekiko inongo desiorik ez duten emakumeei baginatik, ahotik eta uzkitik zakila sartzea. Gizartean mezu hau zabalitzen den bitartean, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzea ezinezkoa da.

Zer esango zenioke putazale bati? Putetxeetara joateari berehala uzteko. Giza erreboluzio erraldoi bat sortzen ari gara eta putazaleek ikusezin eta legitimo izateari utziko diote berehala.



Debagoiena Nikaraguarekin plataformako kideak. AMAIA ZABALA

'Debagoiena, Nikaraguako giza eskubideen alde' jardunaldiak

Erakusketa eta hitzaldiak apirilaren 1etik maiatzaren 4ra izango dira Arrasaten, Oñatin eta Aretxabaletan

Amaia Zabala ARRASATE

Debagoiena Nikaraguarekin plataformak antolatu ditu jardunaldiak eta herritar guztiei parte hartzeko dei egin diete, "Nikaraguako herriaren giza eskubideen egoera lehen eskutik ezagutu dezaten".

Apirilaren 1etik 7ra Oñatiko kultur etxean antolatu duten *Nikaraguako erresistentzia, emakume aurpegiz* erakusketarekin emango diote hasiera ekimenari. Hitzaldi hori bera Aretxabaletako Arkupe kultur etxean apirilaren 8tik 29ra eskainiko dute eta Arrasateko Kulturateko klaustroan, berriz, apirilaren 29tik maiatzaren 4ra.

Hitzaldiei dagokienez, *Nikaragua matxinatua, helmugak eta perspektibak* izenekoak egingo du Fidel Ernesto abokatu nikaraguarrak apirilaren 3an Oñatiko kultur etxean, 18:00etan. Arrasaten, berriz, *Nikaraguako erre-*

sistentzia, emakume aurpegiz hitzaldia izango da Kulturaten apirilaren 29an, 18:30ean. Hitzaldiak izango dira Yerling Aguilera –soziologoa, feminista eta Nikaraguarekiko Elkartasunaren Nazioarteko Karabanako kidea– eta Ana Marcela Montanero –Costa Ricako jurista, feminista, gizarte eragilea eta giza eskubideetan aditua–.

Egoera "larria"

Nikaraguar emakume batek bere herrialdean bizi duten egoeraren berri eman du ekimenaren aurkezpenean, nahiz eta aurpegia estalita agertu den, Nikaraguako Gobernuak bere familiaren aurka errepresaliak hartuko dituen beldur: "Herritarren gehiengoak modu baketsuan atera nahi dugu krisi honetatik, baina Gobernuak errepresio basati baten bitartez erantzuten digu".

2019. urteari hasiera konfiantza "positiboarekin"

Laboral Kutxako ikerketa departamentuak euskal kontsumitzaileen artean egin duen ikerketa baten arabera, euskal familiek konfiantza "positiboarekin" hasi dute 2019. urtea, bere lau indizeetatik hirutan oinarrituta –ekonomia orokorrean, etxeko ekonomian eta langabezian–, eta hiru indize horiek emaitza negatiboa agertu duen

indize bakarra, aurrezpena, konpentsatzen dute.

Etxebizitza edo ibilgailua bezalako erosketa handien erosteko gaitasunaren itxaropenaren egonkortzean berresten da konfiantzaren kokapen hori.

Txostenak dioenez, baldintza makroekonomikoen jarraitutasunaren mende egongo da euskal familien konfiantza 2019an pixkanaka hobetzen joatea, baldintza makroekonomiko horiek erosteko eta inbertitzeko erabakietan eragiten ari baitira.



ZABALIK

OSKAR ELIZBURU

Klika konpromisoa

Badator, berriro ere hemen daukagu Korrika, eta hasi da igartzen gure herrietan.

Hamar batzorde eratu dira gure eskualdean, Debagoien osoa martxan daukagu Korrikarentzat eta Korrikarekin. Korrika AEK-k antolatzen du, baina denona da, denok gara Korrika, eta hori barik ez litzateke ezer izango. Korrika auzolana eta kolektibitatea da, elkarrekin aurrera egitea, elkarri ilusioa ematea, oilo-ipurdia jartzeraino blai egitea euskararekin, eta euskaraz egiten dugun guztiokin batera euskara izatea, biziaraztea.

Eta Korrika, horrez gain, normalizaziorako tresna ere bada; eta AEK-k oso argi du pauso bat gehiago behar dela, ez dela nahikoa euskararen alde egotea, euskararen alde egitea ezinbestekoa dela.

Korrikak *Klika* du leloa 21. edizio honetan.

Konpromisoa eskatzen digu denoi, ondo pasatu, disfrutatu, elkarrekin gozatu, baina euskaraz bizitzeko konpromisoa ere eskatzen digu, pauso berri bat emateko klika egitea.

ESKATZEN DUGU BESTE HAMAIA EGUNEZ EUSKARA ETEN GABE ERABILTZEA

Oraingoan, batez ere, erakundeak eta eragileak konpromiso zehatzak hartzera gonbidatu ditugu, klika

zehatzak egitera.


AEK-k argi du norbanakoen ahalegina ez dela nahikoa, administrazioek eta eragileek neurriak hartu eta baliabideak jarri behar dituztela normalizazioa epe egokian egin ahal izateko; hizkuntz politika egokiak behar ditugu toki eta arlo guztietan.

Eragile askok hartu dituzte konpromisoak dagoeneko; Albaolan egin zen ekitaldian sinatu eta idatzita ditugu. Beste asko bide berean ari dira, irekita dugu aukera Korrikaren webgunean; hartu, beraz, konpromisoak, idatzi eta sinatu, jarri epeak eta neurriak, denon beharra dago eta!

Euskaraldian egin genuen bezala, euskara erabiltzeko eta bultzatzeko erabiliko dugu Korrika ere, eta eskatzen dugu berriro Ahobizi eta Belarriprest txapak jarrita, beste 11 egunez euskara eten gabe erabiltzea, euskarari klika egitea, eta bakoitzak bere konpromisoa hartzea.

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA



HANDIK ETA HEMENDIK

%

ANDONI EGAÑA

HTTPS://LABUR.EUS/DYPZH
'BERRIA'-N ARGITARATUA

Mahai bueltan ordu asko ematen ditugunok edozein puntta baliatzen dugu dibertsio pittin bat jarri ahal izateko.

Otordukideak despistatu samar daudela –lehenengo eta bigarren plateraren tarte hil horretan, esaterako–, botelasterrera egiten dut galdera, eta bat-batean erantzuteko eskatzen:

"Ehuneko ehun baino gehiago posible al da?"

Batzuek baietz erantzuten dute eta besteek ezetz.

Eta eztabaida pizten da, baietz, jakina, argitzen diezun arte.

Baina horrexek adierazten du portzentajeena terreno labainkorra dela.

Ni mareatu egin naute aste honetan.

Asteartez Pablo Iglesias sumatu nuen telebista elkarriketa batean kataluniarren %80k independentzia nahi izango balu... tira... eskubidea luketela esanez.

%75 aipatu zuen segidan elkarriketatzaileak.

Eta asteazken goizez Miquel Icetaren hitzekin gosaldu genuen:

"Independentzia %65ek nahi badute, ahalbidetu beharko da".

Joera ikusita, igande iluntzerako behar lukeen tokian ipiniko dute muga.

Ez baitut sekula ulertu %51 zergatik den aski eta gehiegi lehengo egoerari eusteko eta ezaski eta oso gutxi egoera aldarazteko.

Duela 55 urte, %54rekin lortu zuen Maltak independentzia.

Denboran gertuago, Montenegrori %55ean jarri zion Europak langa.

%55,5 lortuta independenteak dira...

Post gehiago 8. orrialdean.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Sailletako arduradunak

Xabi Urtzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).

Maketazioa

Imanol Soriano, Aitor Lagoma.

Publizitatea

Mireia Larrañaga,
Amaia Mundiñano,
Ziortza Martin.

Administrazioa

Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,
Nerea Artola.

HARPIDETZA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 00
publi@goiena.eus

EGOITZA NAGUSIA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 19.000 ale
Difusioa: 18.723 ale

LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiako Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala

Argitaratzailea

Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkarte
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria

Aitor Izagirre.
Zuzendari nagusia
Iban Arantzabal.

Eduki zuzendaria

Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea

Eneko Azkarate, Goyatz Arana,
Monika Belastegi, Mirari Altube.
Zuzendari komertziala
Mireia Larrañaga.

Administrazio zuzendaria

Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna

Iñaki Iturbe.

Hizkuntza arduraduna

Sergio Azkarate.

Harpidetza eta banaketa
arduraduna Igone Osinaga.

Kultura eta
Hizkuntza
Politika Sailak
(Hizkuntza
Politikarako
Sailburuordetzak)
diruz lagundua



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

BERBAGAI

"Euskarazko 60 hedabide daude Tokikom taldean"

ALAITZ ARTOLAZABAL TOKIKOM TOKI KOMUNIKABIDEEN TALDEKO ZUZENDARIA

Eneko Azkarate ARRASATE

Tokikomek, Goiena Komunikazio Taldea kide den euskarazko komunikabide lokalen taldeak, batzar orokorra egin du.

2018a urte ona izan da Tokikom taldearentzat?

Orokorrean, urte ona izan da. Komunikabideen arteko kohesioa lantzeko orduan oso lagungarriak izango diren tresna berriak garatu eta aurretik genituen beste batzuk berriro ditugu. Gainera, hainbat toki komunikabidek sariak eta aipamenak jaso dituzte, Interneteko trafikoa hazi egin da, eta abar.

Paperekoen produkzioarako edizio sistema estreinatuz duzue.

Paperezko aldizkariak egiteko sistema estandarizatzea da asmoa. Denok tresna berekin lan eginda, askoz errazagoa izango da aldizkariaren arteko elkarlana, eta, gainera, gure jarduna profesionalizatzera jo nahi dugu, prozesuak makinaren esku utzita.



Alaitz Artolazabal, eguaztenean, Goienaren egoitzan, Arrasaten. ENEKO AZKARATE

Zenbat hedabide daude Tokikomen barruan?

60 hedabide, irrati, webgune, aldizkari eta telebistak kontuan hartuta, tokiko informazioa eta edukiak lantzen, herri nahiz bailara

mailakoak. Euskal Herriko lurralde guztietan diharduten hedabideak.

2019rako asmo nagusiak?

Mojo edo kazetaritza mugikorrean sakontzen dihardugu: telefono

mugikorren garapenak aukera asko zabaldu ditu berehalako kazetaritza multimedia egiteko. Bestetik, multimedia materialerako artxibo komun berri bat jarriko dugu martxan, eta berrikuntza proiektu bat ere lantzen ari gara audio eta bideoetatik datuak erazteko.

Huteskundeak bertan ditugu; webguneetan inplementatuko dituzue erreminta berriak?

Tokikom plataforma erabiltzen duten 17 webguneetan atal berri bat irekiko dugu huteskundearen tokian tokiko emaitzak ikusi eta batzuk besteekin konparatu ahal izateko, emaitzen berri zuzenean eman ahal izateko...

Zein da Tokikomen dauden euskarazko tokiko hedabideen pisu erreala?

Hekimen-eko euskarazko hedabide digitaletako bisita guztien %58 toki komunikabideetan egin ziren, %38 orokorrean eta %4 tematikoetan. 2018an, EITB ez beste euskarazko hedabide digitaletara egindako bisiten %48 Tokikomeko komunikabideetara egin ziren. Horrenbestez, publizitateari dagokionez, publiko euskaldunarengana iristeko ezinbestekoa da gure medioetan agertzea.

HAU BE BADOGU!

Alderdi Popularraren hanka sartzeak sarean



Pasa den aste bukaeran Pablo Casadok Getxo Gipuzkoan zegoela esan ostean, aste honetan, alderdiaren mezuek oihartzun handiagoa izan dezaten, PPK Twitterren erabiltzaile faltsuak erabili dituela salatu dute hainbat erabiltzailek eta hedabidek:

@elindepcom: "Gazte honen profila ez da Twitterren ustekabean igaro eta erabiltzaileek Alderdi Popularrari perfil edo bot faltsuak erabiltzea egotzi diote. Horien artean, hilda dagoen mexikar gazte batena".

Mexikoko presidentea hizpide izan da

Lopez Obrador presidentea Espainiako erregeari eta aita santuari Mexikoko inbasioan espainiarrek egindako krudelkeriengatik barkamena eskatzeko gonbita egin die bideo baten bidez:

@Lsorgina: "Batzuek ez dute barkamena eskatzearen beharrik ikusten. Harritzekoa da entzun behar ditugunak! Portzierto, mendeetan Nafarroa eta Euskal Herriari egindakoagatik ere barkamena eskatu beharko lukete".

Korrika hasteko astebete baino gutxiago

Apirilaren 4an abiatuko da 21. Korrika, Garestik, eta dagoeneko *#klika* eta *#korrika* traolak *trending topic* izan dira:

@ttapaldizkaria: "Bartzelonatik ere *#Korrika*-rekin bat egingo dute aurten. Ikusi Julen Arbelaitzek bidalitako bideoa eta ez galdu erreportaje berezia! *#klika* *#klikakorrika*".

@AEK_eus: "Aste bat falta da. Lagundu zabaltzen, lau haizetara! Garesen elkartuko gara! *#klika* korrika!".

ITURRI ONETIK

Ausolagun-en 50. urteurrenean, film labur bat

17 mujeres film laburra errodatzen ari dira egunotan. Atzo, egun osoan, Arrasaten izan ziren: plazan, Goizalde kafetegian, Santa Barbara parkean, Ausolagunen... Izan ere, Ausolagun kooperatibak -sorreran, Auzo Lagun- 50 urte betetzen dituela eta enkarguz sortutako lana da. Claudio Pascual da zuzendaria eta Asier Hormaza eta Maribel Salas aktore protagonistak. Izenburuak erreferentzia egiten dio 1969an enpresa sortu zuten 17 emakumei, ezkondu ostean ere "lanean segitzeko".

ALBISTE IZAN ZEN

2009-03-29

Mikel Landa garaile Gorkako Igoeran

Mikel Landa txirrindulari murgiarra da igandean jokatu den Gorkako Igoera irabazi duen txirrindulari handi eta ospetsuenetako bat. Duela 10 urte nagusitu zen, 19 urte zituela, Naturgas taldean afizionatu mailan ari zela. Gorkako bigarren igoaldian aurretik zihoazen Garikoitz Bravo eta Alberto Morras aurreratu eta helmugara lehena heldu zen, 2.27.45 denbora eginez. 129 txirrindulari irten ziren eta 64 heldu ziren helmugara.



GUTUNAK

Armagintzako lobbyen hurrengo tiroa**JOKIN AMOZARRAIN ALTUBE**
ARRASATE

Espainian bizi den aurre-hauteskunde ingurugiro honetan, faktore berri batek jauzi egin du politikaren mahi-ingurura. Izan ere, azkenaldian, Vox alderdiko hainbat bozeramaile armen salmentak erraztearen alde gogotsu azaldu dira hainbat komunikabidetan. Proposamen honen arabera, ia pertsona orok izango luke armak eskuratzeko eskubidea. Hau guztia, beraien hitzetan, herritarren segurtasuna bermatzeko hartutako erabakia izango litzateke; espainiar onek beren burua defendatzeko eskubidea baitaukat.

Hala ere, datuei erreparatu gero, ez da zaila argudio hau desagitea. Munduan tiroz hildako gehien dituzten herrialdeak Brasil, Ameriketako Estatu Batuak eta Mexiko dira, hurrenez hurren. Ez da kasualitatea, noski, estatu hauetan armak eskuratzeko gozokiak erostearen pareko zailtasuna izatea. Bestalde, Japonian edota Australian, non ia ezinezkoa den pertsona arrunt batentzat arma bat erdieste, bi eskuetako atzamarrak aski dira urtean zehar suzko armek eragindako heriotzak zenbatzeko. Hortaz, garbi geratzen da segurtasuna estalki huts bat baino ez dela.

Horren barruan, ordea, munduan diru gehien mugitzen duen sektoreetako bat ezkututzen da: armen industria.

Jakina da armagintza munduko negozio indartsuenetariko bat dela, urtero ehun mila milioi euro baino gehiago mugitzen dituena. Horren ondorioz, sektore horretako enpresa handiak lobby indartsu bilakatu dira, arma oso boteretsuak dituztenak mundu mailako politikan eragiteko. Azken urteotan, Brasil eta Ameriketako Estatu Batuak egon dira beraien dianaren erdian kokatuta eta garbi dago bete-betean asmatu dutela, gaur egun armen salmentaren aldekoak diren Bolsonaro eta Trump bezalako tipoak baitaude presidente gisa. Orain, ordea, badirudi lobby hauek guran jarri dutela ikuspuntua eta Vox dutela balarik fidagarriena. Erriflea jada guri apuntatzen ari da eta hauteskundeak noiz heldu zain daude arma sakatu eta tiro egiteko. Babestu gaitez.

35 urte eta aurrera!**ITXARO ARTOLA LIZARRALDE**
AED, TXATXILIPURDI ETA EGIN ELKARTEEN
IZENEAN
ARRASATE

Txatxilipurdi, Ekin eta AED elkartearen izenean, eskerrik beroenak zapatuko urteurren jaia posible egin zenuten guzti-guztioi. Denon artean

lortu baikenuen eguna ezin borobilago irtetea. Ondo pasatzera zein lanera gogotsu etorri zineten bazkide eta euskaltzaleak, kafearekin lagundu zeniguten SUDC eta Danok Bat elkarteetako juntak, Udaleko brigadako langileak eta udaltzainak, Lexuri, Joana eta Sara artistak, irratsaioan parte hartu zenuten *Gatxi*, Hirune, Urri, Amaia, Aitor, Danel, Edurne, Ttak-eko kideak eta gazte txokoetako hezitzaileak, Arrasateko erraldoi, gaitero eta Udaxpeko txistulariak, Lore Gazteak eta Arrostitz dantza taldeak, Sei Pistols Eta Trabuko Bat, Ekiñe Casado, Osoron, Konpost... Arrasate euskalduntzen jarraitzeko ongarrri onena dugu!

Bejondeigula eta aurrera!

Antzuolan ezkutatutako historia argitzeko ekimena**JUAN RAMON GARAI**
INTXORTA 1937 KULTUR ELKARTEA
ARRASATE

Isilpean urte askotan egon den historia gura dugu argitaratu. Batez ere, askatasunaren alde eta frankismoaren aurka borrokatu zirenak oroitzea. Inposatutako isiltasuna izan zen, gerra ostean diktadurarekin eta ondorengo amnesikoarekin.

Antzuolan, kolpe militarren ondorioz, giza urraketa larriak eta sufrimendu asko

izan ziren alde bietatik, erresistenteen aldetik eta baita matxinatuen aldetik ere; azken talde horretan, batzuek, gainera, behartuta gerran parte hartu behar izan zuten.

Batzuk biziki hasi dira altxamendua eta diktadura zuritzen; orain dela 80 urteko botere faktikoak, kolpe militarra bultzatu zutenak, banka, armada, goi klasea eta Elizako hierarkia izan ziren, alderdi batzuen bitartez gaur egun ere horretan ari direnak.

Horregatik, gero eta beharrezkoa da egia, benetan pasatutakoa ezagutzea. Gizon eta emakume haiek euren borondatearen aurka herritik alde egitera behartuta egon ziren eta sufrimenduaren, konpromisoaren eta adoreaaren adibide garbia eskaini ziguten. Historia ezagutzea, gerra galdu zutenen zauriak ixten joateko, batetik, eta, bestetik, askatasun zibil eta politikoetan oinarritutako gizarte eraiki gura badugu, behintzat, herri eta pertsona libreakin.

Hori bideratzeko, Debagoieneko beste herri batzuetan egin dugun bezala, gure proposamena da Antzuolan talde ireki bat sortzea historia hau berreskuratzeko.

Gaurtik hasita eta apirilaren 14 arte, Antzuolako Olanaren historia honen laburpena ikusi dezakezue.

HANDIK ETA HEMENDIK

D eredia, jalgi hadi plazara**JON ORDOÑEZ GARMENDIA**
HTTPS://LABUR.EUS/EGLOQE
'BERRIA'-N ARGITARATUA

D eredia hezkuntzari lotuta etorri da azken hamarkadetan, eta murgiltze sistemak bere fruitua eman du. Inoiz baino euskaldun gehiago dago, inoiz baino gazte gehiagok daki euskaraz, inoiz baino handiagoa da ezagutza. Baina erabileraren gainean argi gorriak agertu ziren, eta Euskaraldiak hizkuntz ohituretan jarri zuen arreta. D eredia ikasgeletatik kanpo eraman behar da.

Euskarazko eredu hori hezkuntzarako sortu zen, eta hezkuntzara mugatu da. Eta haren arrakastak erakutsi du gazte euskaldun askok falta dituztela euskaraz hitz egiteko guneak ikasgeletatik kanpo. D Ereduko Kirola proiektuak kirol arloan euskaraz gehiago egiteko gakoak identifikatu ditu. [...]

Hezkuntzatik jauzi egin, eta hasi behar da pentsatzen D eredian zer aisialdi dagoen, D ereduaren entrenamendu eta dantza eskoletan, D eredu telebistak gazteei eskaintzen dizkien edukietan, D eredu begiraleen beharrez, D eredu Youtubeko edukietan. Egin behar da, arnaguneak gazteen erreferentziazko jardueratan sortzeko. Gazte horiek D eredu gizarte bat izan dezaten.

Post gehiago 6. orrialdean.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / gutunak@goiena.eus

HAUXE BAI JENEROA!

GARBINE UBEDA

LAUGARREN OLATU FEMINISTA
DATORRELA DIOTE ADITUEK
BELAUNALDI ASKOTAKOA,
MASIBOA, GLOBALA



@garbineubeda



Quironsalud Vitoriako medikuak, azaleko orbanak tratatzeko Ellipse laser makina berriaren aurrean: Javier Arnaiz, Libe Aspe eta Maribel Martinez.

Quironsalud Vitoriak Ellipse laserra darabil

Gasteizko Quironsalud Vitoria ospitaleak medizina estetikoko zerbitzuak handitu ditu, Ellipse laserra eskuratuta. Azaleko orbanak tratatzeko kalitatezko irtenbideak eskaini nahi ditu ospitaleak, punta-puntako makina horren bidez

Medizina estetikoko eta dermatologiako kontsultetan gehien eskatzen dituzten tratamenduak azaleko orbanak ezabatzeak izaten dira. Hori dela eta, eta arazo mota horiei kalitatezko irtenbideak emateko asmoz, Quironsalud Vitoria ospitaleak Ellipse laserra erosi berri du: azaleko orbanak tratatzeko punta-puntako makina.

ZEIN ORBAN MOTA TRATA DAITEKE ELLIPSE LASERRAREKIN?

Ospitaleko dermatologo Libe Aspe doktoreak dio "mota horretako tratamenduak eskatzen dituzten gehienek fotogaztetzea" bilatzen dutela. Hau da, "eguzkiaren eraginez sortutako azaleko orbanak ezabatzea, eta, horrez gain, pigmentazio irre-

gularra, akneak eragindako orbanak eta gorritasun difusoak murriztea".

Doktorearen ustez, laser horrekin, "jatorri baskularreko malformazioak ere trata daitezke: errubi puntuak, armiarma baskularrak eta hodi periokularrak". Errosazeoa ere trata daiteke, kasurik larrienetan "ondoez handia" sortzen du eta.

ZENBAT SAIO BEHAR DIRA ORBANAK GUZTIZ EZABATZEKO?

Ospitaleko dermatologo Maribel Martinez doktoreak dio "hobe-kuntza lehenengo saiotik bertatik" igartzen dela. "Kasu askotan, lehenengo aldi horrekin nahikoa da orbana guztiz ezabatzeke". Kasu konplexuagoetan, "hiru saio ere behar izaten dira espe-rorako emaitza lortzeko".

ZEIN DA GARAIK EGOKIENA TRATAMENDUA EGITEKO?

Quironsalud Vitoriako medizina estetikoko espezialista Javier Arnaizek dio egokiena dela tratamendua "neguan" egitea, edo, behinik behin, "beltzaran-kolore txikiaren garaian"; izan ere, tratamendua "seguruagoa eta eraginkorragoa" izango da sasoi horretan, "lesioak energia gehiago xurgatuko duelako azalak baino".

Gainera, tratamendua egin osteko hurrengo hilabetean komeni da eguzkitan ez egotea; eta, ezin bada hori saihestu, "babes handia erabili behar da; bestela, tratamenduaren eraginak desagertu egingo dira", azpimarratzen du Aspe doktoreak.

BADAGO ALBO-ONDORIORIK?

Ez. Tratamendua egiten duen egun berean, pazienteak bizi-modu normala egin dezake. Edozelan ere, tratamendua egin osteko lehenengo 7-10 egunetan, orbanak ilundu egiten dira, melaninaren oxidazioak eragindako kostrarengatik. Epealdi labur horren ostean, kostra txiki hori erori egiten da azalak itxura argitsuagoa eta freskoagoa erakusten du.

Hala ere, albo-ondorio positiboak daude, Arnaizek dioenez. "Orbanak ezabatzeaz gain, Ellipse laserrarekin tratamendua eginda azalaren kalitatea nabarmen hobetzen da: poroak ixten ditu, fibroblastoak aktibatzen ditu eta kolagenoa sortzen du".

MINGARRIA DA TRATAMENDUA?

Ez. Tratamendua beti egiten da "anestesia barik, eta pertsona guztiek ondo onartzen dute". Atximurkada txiki bat bezala da. "Izan ere, paziente gehienek esaten dute aurpegi-berotasun sententzia dela, hondartzen egun osoan egon ostean izaten den antzerako sententzia", dio Aspe doktoreak.

"TRATAMENDUA EGINDA, AZALAREN KALITATEA NABARMEN HOBETZEN DA"

Beti nahi izan duzun irudia, kirurgia barik

Medizina estetikoa
Quironsaludek soluzio integral eta personalizatua eskaintzen dizu itxura gazteagoaz disfruta dezazun, kirurgia barik.

- Orbanak kentzeko Ellipse laserra
- Zimurren aurkakoa
- Aurpegia gaztetu
- Biguntasunen aurkakoa

Zerbitzuak: Javier Arnaiz dk. eta Pilar Del Prado dk., medikuntza eta kirurgia lizentziadunak. Asistentzia-arduradunak: Inune Cachorro doktorea, Medulinar eta Kirurgia lizentziaduna.

quironsalud.es

Lehenengo kontsulta
ORAIN DOAN

#PS 127/18

Hospital Quironsalud Vitoria
C/ La Esperanza, 3 - 01002 Vitoria-Gasteiz
900 250 255

Hospital **quironsalud**
Vitoria



Udaltzainen egoitza kanpoan langileek jarritako kartela prekarietatea salatzen. ARRASATE UDALTZAINGOA

Udaltzainak, giza baliabide eske

"Oso larritzat" jotzen dute egoera, lan-poltsak agortuta daudelako eta lantalde murriztuekin lan egiten dabilzalako. Urritik hona "udaltzain bakarra" heldu dela diote, eta, besteak beste, bost erretiratze eta iraupen luzeko baja bi izan dira tarte horretan

Xabi Gorostidi ARRASATE

Arrasateko Udaltzaingoan giza baliabide falta dago. Halaxe jakinarazi dute Enpresa Batzordeak eta Erne sindikatuak, eta pasa den astean bertan Udal Gobernuak "gabezia" dagoela onartu zuen, azken hilabeteen izandako delinkuentzia gorakadari buruz egin zuten agerraldian. Egoera horren harira, esperientzia handia duten eta udaltzainen ordezkariak sindikalean dabilzan bi udaltzainekin elkartu da GOIENA, bizi duten egoera ezagutzeko.

Lan-poltsak, hutsik

Udaltzain premia dagoen bakoitzean, Jaurlearitzako Segurtasun Sailaren lan-poltsa bateratueta- ra jotzen du Udalak: bai postu finkoetarako –2017ko martxoan hala erabaki zutelako– eta, berriki, aldi baterako postuetara-

ko ere bai. Baina bi poltsa horiek hutsik daude orain.

Edozelan ere, urtarrilaren 2an 1449/2018 errege-dekretua jarri zen martxan, udaltzainek 60 urterekin erretiroa hartzea ahalbidetzen duena, eta udaltzain premia handia eragin du EAE osoan. "Poltsak aspalditik daude agortuta, eta udaltzainak ekartzeko zailtasun handiak izan ditugu hasieratik. Poltsa bateratuaren egoera hain da larria, momentu honetan azterketa gairak ez dute hautagaiak bidaltzen ari dira", dio elkarrizketatutako udaltzainetako batek.

"GAUEKO LANTALDEA BOSTEKOA DA, BEREZ; BAINA AZKENALDIAN HIRUKOA EDO BIKOA IZATEN ARI DA"

Bospasei plaza bete gabe

"32 agenteko lantalde finkoa du Udaltzaingoak –30 udaltzain, udaltzainburuordea eta udaltzainburua–, baina une honetan bospasei lanpostu finko ditugu estali gabe. Urritik hona udaltzain bakarra etorri dela diote, eta tarte horretan bost erretiratze eta iraupen luzeko bi baja izan ditugu" dio besteak. Horrek esan nahi du, asko jota, 26-27 agente ari direla lanean une honetan, eta horri unean uneko baja tenporalak gehitu behar zaizkio: aitatatsunak –azken asteetan lau izan dituzte–, zaintzarako lanaldi murriztuak –bi dira une honetan–, gaixotasunak, oporraldiak eta epaitegira lekuko gisa joan behar duten agenteak.

Gaueko txandan arazo gehien

"2017 bukaeran berregituraketa bat egin zuen Udal Gobernuak,

Neurri sindikal "potoloak", laster

Enpresa Batzordeak "legeak ahalbidetzen dizkien neurri guztiak" hartuko ditu Gobernuaren bi neurriren kontra: 2019ko lan deialdi publikoaren aurka –bost plazakoa da, eta euren ustez ez da nahikoa– eta LPZn udaltzainburu berria aukeratzeko egindako aldaketaren kontra. "Egin berri duten aldaketa ertzain ofizialen mesederako da. Merituei dagokienez, 10 eta Oeko abantailarekin hasten dira, edozein udaltzainen aurrean. Hori gutxi ez, eta %5eko soldata igoera jarri diote udaltzainburuari –150 euro–, inori ezer kontsultatu gabe".

"2017an igo zieten azken aldiz soldata goi karguei; eta orain, berriz ere. Udaltzainok aspalditik gabiltza igoera bat eskatzen, kasu askotan brigadako langileen arrisku plus bera dugulako".

goizeko eta arratsaldeko lantaldeetan udaltzain bat gehiago egoteko eta garabi zerbitzua emateko. Horren eraginez, gaueko lantaldeak seikoak izatetik bostekoak izatera pasa ziren: bostekoak, asko jota; eta hirukoak, gutxienez. Baina bajak estaltzeko ditugun zailtasunekin, askotan aritu izan gara hiruko taldeekin eta baita bikoekin ere. Udaltzain bakar bat izatera ere heldu gara behin; ez txanda oso batean, baina ia-ia". Egoera horretan lan egiteak hainbat zailtasun eta arrisku eragiten dituela aipatzen dute: "Hiru bagaude, patruila bakarra daukagu. Bi gauza aldi berean gertatuz gero, aukeratu egin behar dugu. Horrez gain, patruila bakarrarekin lapurrek une oro kontrolatzen dute non gauden. Eta bi bagaude, ezin dezakegu telefonoa hartu. Deiak mugikorretara desbidera daitezke, baina norbaitek eraso matxista baten berri emateko deitzen badu, eta Olandixoko tunelean bagaude, deia gal dezakegu".

Kriminalitateak gora egin du

Udaltzainek pertsonal gabezia duten une honetan, delitu gorakada izan da azken hilabeteen. Baina bi agenteak bat datoz, eta gorakada azken urteetako kontua dela diote. "Lehen, bi atxiloketa izaten genituen urteko, eta orain, aldiz, bost astean atxiloketa eta erdi izatera pasa gara. Azkenaldian, birritan mehatxatu naute; labana batekin eta botila apurtu batekin. Lehen, ez ziren horrela-

BI UDALTZAINEN USTEZ, ARRASATEK, GUTXIENEZ, 40 AGENTEKO LANTALDEA BEHAR DU

koak gertatzen", dio udaltzainetako batek.

"Ez da Gobernuak saltzen duen oasia, baina ez da Bronx ere; ez gaitetzen psikosian jausi", dio beste udaltzainak.

Eredu propioa eta suzko armak

Suzko armak erabiltzeko eskaera ofiziala egin zuen Iñaki Arriaga udaltzainburuak 2018ko otsailean. "Hau ez da eskari orokor bat; %50etik beherakoa da duen babes maila", dio batek. Bi udaltzainek, ordea, garbi dute konponbidea ez dagoela suzko armen erabileran, herriak behar duen "udaltzain eredu propioa" definitzean baidak. "Lehenik eta behin, Udaltzaingoaren funtzioak ondo finkatu behar dira, eta, behin hori eginda, dimentsionatu. Hau da: zenbat agente behar diren zehaztu". Kopuruari dagokionez, biek beharrezko ikusten dute, gutxienez, 40 agente izatea. Eredua zehazteko, ordea, alderdi politikoei arduraz eta eskuzabaltasunez jokatu behar dutela uste dute. "Ereduaz ari garenean, ez gara kopuruaz bakarrik ari: hautaketa prozesua –udal lanpoltsak edo bateratuak–, antolatze modua, suzko armen erabilera eta politika komunikatiboa ere hartzen ditu barne". Azken aspektu horrekin lotuta, biek diote Udal Gobernuak gertaerak "ez komunikatzearen" alde egiten duela, "herritarrak seguru sentitu daitezten". "Uste dute gertaerak ez badira prentsan azaltzen, ez dira existitzen. Baina gure ekin-tzen berri ematen ez badute, udaltzainok gara kaltetuak, herritarengan ezer egiten ez dugun sententzia zabaltzen delako. Estereotipatu egiten gaituzte. Eskumen komunikatiboa nahiko genuke; Arrasateko Udaltzaingoaren Twitter kontu bat, adibidez".



Arrasateko EAJren zerrendako lehen hamaika hautagaiak, domekako ekitaldiaren ostean. MIRARI ALTUBE

"Herri proiektuarekin" jarraitzeko lantaldea

Arrasateko EAJk prest du udal hauteskuntetarako zerrendako lehen hamaikakoa eta domekan aurkeztu zuen burkide jeltzaleen babesarekin. Azken agintaldiko bi zinegotzi ez dira lehen lerroan egongo, baina horien ordezkoko hiru fitxaketa aurkeztu zituzten

Xabi Gorostidi ARRASATE

Domekan ekitaldia egin zuen Arrasateko EAJk, udal hauteskuntetarako zerrendako lehen hamaika hautagaiak aurkezteko. Herriko jeltzaleak ez ziren bakarrik egon eta alboan izan zituzten, besteak beste, Gipuzkoako diputatu nagusi Markel Olano, Gipuzko Buru Batzarreko presidente Joseba Egibar eta Madrilgo Kongresuko bozemaile Aitor Esteban. "Gu guztiongan ilusioa sortu duen herri proiektuari bultzada emateko prest eta gogotsu gaude". Hori esanez hasi zuen aurkezpen ekitaldia Maria Ubarretxenak, Arrasateko EAJren alkategaiak, eta gaineratu: "Arrasate sendo

baten aldeko proiektu komunitarioa da gurea". Adierazi zuen "herriaren eskaera historikoei" erantzun diela EAJk, "hitza betez". Besteak beste, musika etxea, jolas-parke estaliak, Laubideko aparkalekua eta Makatzenako igogailua.

Gakoa: lankidetzak

Aurrera egiteko gakoak zeintzuk diren ere esan zuen: "Lana, lankidetzak eta lantaldea. Arrasatek beti egin du aurrera herritarren lanari esker". Eta gaineratu zuen bidegurutzean daudela etorkizunari begira. "Pauso sendoak ematen gabilta horretarako, apaltasunez, herritarrak entzunda, erantzukizunez. Eta horren

emaitzak agerian daude, nahiz eta oposizioak esan argazki asko eta mami gutxi. Argazki are gehiagorekin eta mami are gehiagorekin etorriko gara". Eta horren adibide batzuk aurreratu zituen: "Kiroldegi berria, herria eraldatuko duen mugikortasun plana, bidegorri gehiago, igogailu publiko gehiago, nagusien bizi-kalitatea hobetuko duten ekimenak, gazteen aisialdirako ideia berriak... Ideia mordoa ditugu". Programa datozen asteetan zehaztuko dutela gaineratu zuen, "ehunka arrasatearrerekin landutakoa". Arrasate iraunkor, euskaldun, parekide eta plurala aldarrikatu zuen alkateak: "Bizikidetzaren argaz-

kia da gurea. Arrasate harro batena, bere nortasuna berreskuratu duena". Eta harrotasun horren arrazoi horietako batzuk aipatu zituen: kooperatibak, ekimen berritzaileak hezkuntzan, gizarte zerbitzuetan biztanleko gastu handiena duen hirugarren udalerrria, industria indartsua...

Pertsonak, baliabideak eta ideiak oinarri ezin hobeak dira herria eraikitzeke adierazi zuen alkategaiak. Eta aurkeztutako proiektu komunitario horri bultzada ematea ohorea izango dela esanez bukatu zuen: "Herriarrei entzunez, partaidetza sustatuz, kudeaketa garbi batekin eta gardentasun osoz. Egingandako guztiaren kontu ematen jarraituko dugu; orain arte egingandako moduan".

Hiru aurpegi berri

Hauek dira Arrasateko EAJren zerrendako lehen hamaika hautagaiak, hurrenez hurren: Maria Ubarretxena, Anuska Ezkurra, Ander Garay, Edurne Unamuno, Ibon Arrupe, Maitane Muñoz, Eugenio Uribarren, Amaia Caciaga, Juan Ramon Mendieta, Vicente Echeverria eta Aitor Garitano.

Aurreko agintaldiarekin alderatuta, hauek dira aurpegi berrietako batzuk: Edurne Unamuno -Hezkuntza graduatua da, 20 urtez aritu Floridan irakasle eta orain ingeleseko irakasle gisa egiten du lan-, Maitane Muñoz -komunikatzailea eta argazkilaria, herriko hainbat hedabidetan lan egin izan du eta Eugenio Uribarren -ostalaria eta arte martzialen zalea-.

Bestalde, Enplegu zinegotzi Juan Karlos Garitano eta Gizarte Ongizateko zinegotzi Amaia Aspiazuz ez dira zerrendako lehen lerroan egongo.

AGAKOK 28 urte bete ditu, eta apirilean ospatuko du

Osagai ugari dituen egitaraua prestatu dute, eta proiektu berri batzuk ere eman dituzte aditzera

X.G. ARRASATE

Azken urtea berezia izan da AGAKOKo kideentzako. Jende berria gehitu da barikuetako batzarretara, eta proiektu berriak dituzte esku artean: batzarrak birpentsatzea eta sexu erasoaren aurkako protokoloa, adibidez.

Edozelan ere, euren haserre ere helarazi dute: "Herriari hainbeste alternatiba eskaintzen dizkion proiektu eta gune hau erasotua izan da. Horren adibide dira urte osoan zehar izan ditugun lapurretak, eraikinean egin diren pintadak eta bertan modu boluntario eta militantean ari diren pertsonen aurkako erasoak. Argi eta garbi esan nahi dugu: ez gara inoren zerbitzariak. Militanteak gara eta honek guztion errespetua mezezi du!".

Urteurrenaren itzuliz, norbanakotik hasi eta kolektiboa eraldatzen jarraitzeko egitarau mardula prestatu dute apirilerako, askotariko kontzertuekin, hitzaldiekin eta jaialdiekin. Alor musikalean, ostegunetako gain, nabarmentzekoa da apirilaren 13ko kontzertua. Korrikarekin bat eginez, Never Surrender taldea bere agertoki kuttunenera itzuliko baita, bost urteko geldialdiaren ostean.



ABOLIZIOA PROSTITUZIOA

AMELIA TIGANUS

Aktibista feminista. Prostituzio eta salerosketaren biziraule.

APIRILAK 1 19:00
ARRASATE KULTURATE - ARETO NAGUSIA



[@ezkeranitza](https://www.ezkeranitza.org)

[Ezker Anitza-EU](#)

[ezker-anitza.org](https://www.ezkeranitza.org)

Zabalik da udalekuetan izena emateko epea

Txatxilipurdik prest du euskarazko oporraldiak gozatu ahal izateko udaleku sorta, eta izen-ematea maiatzaren 17ra arte egongo da zabalik. Udaleku irekien kasuan, zaintza zerbitzua eskainiko dute –09:00-10:00–, eta udalekuak asteka egiteko aukera ere bai

Xabi Gorostidi ARRASATE

Udaleku irekiak uztailearen 1etik 19ra bitartean izango dira, eta 2 urtetik –2016an jaiotakoak– 12 urtera arteko –2007an jaiotakoak– umeei zuzenduta daude. Adinaren arabera hiru talde osatu dituzte.

2 eta 6 urte bitarteko udalekuari *Bilin-Boloka* izena jarri diote. 10:00etatik 13:00ak arteko ordutegia izango dute, 103 euroko kostua, eta familiekin bilera ekainaren 18an egingo dute –Kulturaten, 18:00etan–.

6 eta 8 urte bitarteko udalekuari *Bihurrikeixetan* izena jarri diote. Bi aukera izango dira: 10:00etatik 13:00ak arte –126 euro– eta 10:00-13:00 eta 16:00-18:00 ordutegiarekin –149 euro–. Familiekin bilera ekainaren 8an egingo dute –Kulturaten, 19:00etan–.

9 eta 12 urte bitarteko udalekuari, berriz, *Erokeixetan* izena jarri diote. Aukera bakarra izango da: asteen hiru egunez 10:00etatik 13:00etara eta asteen bi egunez 10:00etatik 17:00etara –149 euro–. Familiekin bilera ekainaren 18an egingo dute –Kulturaten, 18:00etan–.

Nabarmendu behar da udalekuetako prezioan deskontuak izango dituztela familia ugariak edo Topakideak direnek (%5ekoa);



Txatxilipurdiko langileak, udalekuak aurkezteko prentsa agerraldian. ARANTZAZU EZKIBEL

eta familia ugaria direnek eta Topakideak direnek %10ekoa.

Udaleku itxiak

9 eta 12 urtekoak Goizuetara joango dira uztailearen 6tik 13ra. 300 euroko prezioa izango du eta familiekin batzarra ekainaren 20an egingo dute –Kulturaten, 19:00etan–. 25 plaza daude.

12 eta 14 urte artekoek bi aukera izango dituzte: Orioko Zingira kanpina edo Ozeta. Oriora ekainaren 30etik uztailearen 10era joango dira –30 plaza–. Prezioa 300 euro da eta familiekin bile-

ra ekainaren 18an Kulturaten, 18:30ean. Ozetara, aldiz, uztailearen 1etik 10era joango dira; prezioa 300 euro da, 30 plaza daude eta familiekin bilera ekainaren 19an izango da, 18:30ean, Kulturaten.

Azkenik, 14 eta 16 urte artekoentzat udaleku ibiltariak antolatu dituzte. Ekainaren 29tik uztailearen 10era arte iraungo dute, eta Arabatik Gipuzkoako kostalderantz joango dira. Prezioa 300 euro da eta familiekin bilera ekainaren 20an izango da, 18:30ean, Kulturaten.



ARIZMENDI

Espazioa, ikasketen zerbitzura

Proiektuetan oinarritutako ikaskuntzan –PROI– eta konfiantzaren pedagogian sakontzeko, espazio eraldaketa egin berri dute Arizmendiko Gaztelupe gunean. Gaur egin dute inaugurazioa, gonbidatu bereziekin, eta, irudiko eskaileretan, *Humanity at music* sinfonia kooperatiboko abesti bat interpretatu dute Gaztelupe abesbatza osatzen duten ikasleek eta irakasleek.

Vasco-Navarro trenari buruzko dokumentala eguaztenean

Arrasateko Bibliotekak ekoiztu du dokumentala, Goienarekin elkarlanean. Hainbat laguni egindako elkarrizketak eta irudi zaharrak dira ikus-entzunekoaren osagai nagusiak.

Apirilaren 3an eta 4an, Kulturateko areto nagusian proiektatuko dute dokumentala, 19:00etan. Euskaraz eskainiko dute, gaztelera azpitoluekin.

Hizkuntza eskubideak berbegai AEDren eta 'Argia'-ren eskutik

Hizkuntza eskubideak, norenak!? hitzaldia antolatu dute AEDk eta *Argia*-k apirilaren 4rako; Jokin Zaitegi gelan izango da, 19:00etan. Ertzaintzarekin hizkuntza eskubideen harira izandako eztabaida bategatik zigorra jaso duten Eneka Alvarezek eta Arkaitz Zarragak hitz egingo dute, Lander Arberlaitz *Argia*-ko kazetariaren galderei erantzunez.

OHARRAK

'Gara'-ko kazetari Ion Telleriaren hitzaldia gaur

Gara komunikabidea jasaten ari den "espoliazioari" aurre egiteko kanpainaren berri emango du, gaur, 18:00etan, Kulturaten.

Odol-emateak: gaur eta martitzenean

Gaur, Laubide Plazako autobusean egin daiteke; eta martitzenean, anbulatorioan. Ordutegia: 16:30-20:00.

Pentsiodunen elkarretaratzea

Astehenean egingo dute, Herriko Plazan, 12:00etan.

Nikaraguari buruzko erakusketa eta hitzaldia

Yerling Aguilerak eta Ana Marcela Montanerok Nikaraguako erresistentzia emakume aurpegi izeneko hitzaldia egingo dute apirilaren 29an Kulturaten, eta izen bereko erakusketa maiatzaren 4ra arte egongo da ikusgai.

Fitosanitarioen ikastaroa apirilaren 8tik 16ra

HAZIK eta Frasierok antolatu dute, Udalarekin elkarlanean. Izen emateak apirilaren 4ra arte egin ahalko dira fpegipuzkoa@hazi.eus posta elektronikoan edo 627 43 19 04 telefonoan.

'Familia egonaldia', maiatz hasieran

Euskara eta jolasak uztartzeko aukera egongo da maiatzaren 3tik 5era arteko aste bukaeran, *Familia egonaldia* euskaraz antolatu baitu Txatxilipurdik, GaraiOn Sorgingunean, Ozetan. Plaza mugatuak izango ditu: hamar familia.

"2018ko esperientzia politik bultzatu gaitu berriz ere GaraiOn-eko Sorgingunean familia ezberdinekin egonaldia

antolatzera", azaldu du prentsaurrekoan ekimeneko antolatzaile Lander Juaristik.

Jolasa eta gozamen ardatz hartuta, euskara erabiliaz familia osoaren arteko hizkuntza transmisioan eragiteko eta sendotzeko asmoz, martxoaren 25etik apirilaren 17ra arte egongo da izena emateko epea Txatxilipurdiko bulegoan. Izen-emate orriarekin batera

ordainagiria ere aurkeztu beharko da. 2016-2019 urte bitartean jaiotakoek doan izango dute egonaldia. 2015-2007 urte bitartean jaiotakoek 30 euro ordaindu beharko dute –pertsoneko, aste bukaerako egonaldia–; eta 2008 edo lehenago jaiotakoek, 35 euro. Lau seme-alaba edo gehiago dituzten familiek %50eko hoberia izango dute. Apirilaren 30ean egingo dute familiekin bilera, AEDren egoitzan.



Arrasateko EH Bilduk udal hauteskundeetarako aurkeztuko dituen zerrendako ordezkariak, Herriko Plazan. ARRASATEKO EH BILDU

"Konprometitua, plurala, herrikoa, profesionala"

Gaur, egubakoitza, aurkeztuko du Arrasateko EH Bilduk udal hauteskundeetarako zerrenda; Maider Morras alkategaiaren esanetan, "garrantzi handia" eman diote zerrendari. "Zorroztasun berarekin aukeratu dugu lehenengoa zein azkena", dio

Eneko Azurmendi ARRASATE

"Profesionala, plurala, konprometitua eta herria sentitu egiten duena, herrian bizi delako eta herrirako bizi delako". Halaxe definitu du zerrenda alkategaiak.

Martxoaren 23tik 24rako asteburuan bilkideek egindako bozketarekin amaitu dute urrian hasi zuten hauteskunde prozesua. "Bide luzea eta emankorra izan da, gardentasunez eta ardura handiz egindakoa, eta komunitate gisa indartu gaituena".

Morrasek azaldu duenez, zerrenda guztiari eman diote garrantzia, lehenengotik 24.era. "Esfortzu eta gogo berarekin aritu gara zerrendako pertsona bakoitza aukeratzen. Herriko

jende onena batzen saiatu gara, herriari ahalik eta zerbitzurik onena eskaini ahal izateko, eta lortu dugu", dio. "Arrasate, gure herria, zentzuz, konpromisoz, irekitasunez eta inizatibaz gobernatzeko asmoa duen lantaldea da gurea. Indarra, ilusioa, gaitasuna, esperientzia eta jarrera duten pertsonen osatutako zerrenda plurala".

Askotariko profilak

Zerrendaren aniztasuna nabarmendu gura izan du alkategaiak, eta horietako batzuen gaineko informazioa ere aurreratu du. "Hezkuntza arloan, adibidez, garrantzi handia eman diogu Arrasaten dauden bi ereduak

eta unibertsitateko ordezkariak aurkitzeari, baita ingurumenari ere, Aitor Zubiagarekin –orain arte Besaideko presidente izandakoa– eta Ane Zabalarekin –mendi lasterkaria–. Gestiorako, Joseba Ezpeleta daukagu, Bergarako Udalean kontu-hartzailea dena, baita Fernando Okina ere, Laboral Kutxan, Fagorren eta Mondragon Unibertsitatean aritu izan dena administrazio eta kudeatzaile lanetan. Gazteria arloan, Nerea Hernandez kontularia da, baita eskubaloiko entrenatzailea ere. Larraitz Trojaolari dagokionez, enpresen administrazio eta kudeaketa ikasketak ditu, eta ezagutzen du Udala barrutik. Kepa Urtea-

gak Txintxurretan egiten du lan eta trikitilaria, txirrindularia eta gure sanjuanak berpiztu zituen gizona da", azaldu du. Zerrenda osoa *Goiena.eus* webgunean dago ikusgai.

Guztiaren gainetik, lan egiteko moduan jarriko du arreta EH Bilduk. "Gure eredu ezberdina da. Lehenetasuna ondare immaterialei ematen diegu. Gero, noski, azpiegiturak eta eraikinak egitearen alde gaude. Baina egiteko moduari eman gura diogu garrantzia".

Ostalaritzarako zinegotzia

Ostalaritzari eta merkataritzari garrantzi handia eman gura diotela aitortu du Morrasek. "Herriak, arlo horretan, gabezia handia daukala uste dugu. Herria nahiko triste dago eta ez doa onera. Horretarako, zinegotzi berezi bat jarriko dugu, irabazten badugu, noski".

Aurkezpena Kulturaten

Gaur, egubakoitza, aurkeztuko dute zerrenda, Kulturateko areto nagusian, 20:15ean. Pello Urizarrek aurkeztuko du ekitaldia. Lehenik, Eneko Barberenak lau urte hauen balorazioa egingo du. Ondoren, Maider Morrasek hartuko du hitza: "Zertara gatozen eta lehenetasunak zeintzuk diren-eta azalduko dut". Azkenik, zerrenda aurkeztuko dute.

Bestalde, datorren astetik aurrera bost saio egingo dituzte, zehazki azaltzeko EH Bilduren politika zein izango den. "Lehena, segurtasuna, bitartekaritza eta aniztasunaren ingurukoa. Adituak etorriko dira. Hori ere azalduko dugu gaurko saioan".

Hala, "lanerako gogoz eta ilusio handiarekin" daudela aitortu du Morrasek, eta herritarrak gaurko saiora gonbidatu ditu.



NIRE USTEZ

HORAZIO ARGARATE

Damua

Karapaixoak agerian daude gure okindegietan.

Garizuma aldia zabaldu da, eta XXI. mendean, badirudi aldi honek, gure artean, musulmanen ramadan hilabeteak baino sona gutxiago daukala. Hala eta guztiz ere, bai garizuman, baita ramadanean ere, gai nagusiak berberak dira: damua, bekatuaren aitortza, penitentzia eta barkamena.

Donostialdean gertatu, baina oihartzuna herri guztietara ailegatu da: ezker abertzaleak ez duela konfesatokitik pasa nahi, ez ETak, ez herri mugimenduak, ez EPPK-k, ezta alderdi independentzialak eta sozialistaren aldekoek ere, nahiz eta mila urteko penitentzia jasota eta ordainduta daukaten.

Hala ere, ez dutela damua azaldu nahi. Oi beato guztien eskandalua! Baina balio ote du damu izateak zure barrutik ateratzen ez bada? Damuak, itxurazkoa soilik bada, ez du balio. Betiko doktrina da. Eta zure baitan, bizitza helburu handi baten alde eman duzula sinisturik bazaude, nondik sortuko zaizu egindako bekatuaren mina aitortzea? Eta berriro egingo ez duzula aitortzea beste guztien aurrean?

Nik barkamenenean sinisten dut!



HELDU DA UDABERRIA

Orain da momentua

Gorputz tratamenduak
Dieta pertsonalizatuak
Gorputz mesoterapia
... eta gehiago!

Deitu, konpromiso barik, lagundu zaitzakegu

Erdiko kale 54, beheka 20500 Arrasate • 943 79 09 09 • www.amagaraestetikazentroa.es • facebook.com/amagara



AMAGARA

Estetika Zentroa



RPS: 214715



ARTren eta Atletico San Sebastianen arteko partidua Mojategin. IMANOL SORIANO

Kategoria jokoan izango du ARTk bihar Mojategin

AVK Bera Bera taldearen bisita jasoko dute Igor Isasiren mutilek, bihar, 16:00etan hasita, Mojategin. Hil edo biziko partidua izango da; izan ere, denboraldia amaitzeko bi norgehiagoka gelditzen dira eta ARTk jokoan du kategorian jarraitzea

Maialen Regueiro ARRASATE

Kanpazar Arrasate taldeari bi partidu gelditzen zaizkio denboraldia amaitzeko, eta, bihar, norgehiagoka garrantzitsua jokatuko du Mojategin. Arrasatearrek AVK Bera Bera taldearen bisita jasoko dute, 16:00etan, eta, biharko hitzorduari buruz galdetuta, Igor Isasi entrenatzaileak honako hau adierazi du: "Biharko partidua *final* bat izango da guretzat, baina baita beraietzat ere, bost puntuko diferentzia dugu eta".

AVK Bera Bera taldea

Arrasatearrek ondo ezagutzen dute aurkaria; abenduan haien aurkako beste norgehiagoka jokatuta zuten eta ezin izan zuten partidua irabazi -22-21-. Horren harira, Isasik honako hau esan du: "Abenduan jokatutako partidua guk galdu genuen. Izan ere, markagailua gure alde zegoen, baina plakaketa falta eta jokalaria batzuek egindako falta batzuegatik partiduak ihes

egin zigun". Horrez gainera, eta biharko partiduan fokua jarrita, Isasik azpimarratu du Bera Bera lehen taldeko jokalariekin etorriko dela eta horrek ardura ematen diola. "Taldea biharko partidua irabazteko gai da; orain arteko dinamikarekin jarraitzen badugu, alegia, gauzak ondo egiten baditugu, gure jokoa egiten badugu eta plakaketak

ondo egiten baditugu, irabazteko aukerak izango ditugu", adierazi du.

Denboraldiaren balorazioa

Arrasatearrek sailkapeneko azken-aurreko postuan daude, eta, momentuz, lau garaipen lortu dituzte. Azken garaipena, esate baterako, aurreko asteburuan lortu zuten, etxetik

kanpo. Emaizta horiek kontuan hartuta denboraldiari dagokion balorazioaz galdetuta, hauxe esan du Isasik: "Denboraldia hasi zenean, kontziente ginen zein izango zen gure liga eta sailkapeneko zazpigarren postetik behera borrokan arituko ginela". Horrez gain, sailkapeneko lehenengo bosten maila oso handia dela eta talde horiek jokalaria askoz osatuta daudela adierazi du. Jokalariena arrasatearrek denboraldian zehar izan duten gakoetako bat izan da. Izan ere, Isasik hauxe nabarmendu du: "Norgehiagoka askotara hamabost jokalarirekin joan gara eta horrek izugarri baldintzatu gaitu". Denboraldiaren balorazioarekin jarraituz, Isasik hainbat partidutan erakutsitako maila ere aipatu du: "Gure maila berean dauden hainbat talderen aurka, Getxo eta Gernika, besteak beste, ezin izan dugu partidua irabazi, eta, bestalde, sorpresa hartu izan dugu maila altuan dauden taldeen aurka irabazita".

Kanpazar Arrasatek irailean ekin zion denboraldiari eta zazpigarren jardunaldian lortu zuen denboraldiko lehen garaipena, BRT-Menditarrak taldearen aurka. Horrez gain, denboraldian zehar jokatutako hainbat partidutan, Universitario de Bilbaoren eta Ordiziaren aurka, besteak beste, arrasatearren markagailua hutsean geratu da. Azken hori hizpide izanik, Isasik honakoa erantzun du: "Hamabost jokalaria baino gutxiagorekin jokatuta dugunean, Universitario de Bilbaoren aurka, esaterako, hamar jokalarirekin amaitu genuen; beraz, egoera horretan eta sailkapeneko lehen postuan dagoen taldearen aurka, bada, zaila izan zen puntuak lortzea".

Azken porrotei buelta eman nahi die MUK, igandeko partiduan

Igandean jokatuko du MUK Solaresen aurkako norgehiagoka, Iturripen, 18:30etan hasita. Arrasatearrek seigarren postuan daude eta azken hiru jardunaldietan ez dute garaipenik lortu. Gainera, azken emaitza txarrei, min hartuta dauden jokalaria kopurua gehitu behar zaie. Solares taldea, berriz, jaitsiera postuetan dago.

Zortzigarren postuari eusteko partidua bihar Ford Mugarrik

Azken partiduko emaitza txarri buelta eman nahi dio Ford Mugarrik. Horretarako, puntu bakar batera duen Ilcapo Hondarribia taldearen bisita jasoko du, bihar, Iturripen, 16:30ean hasita. Arrasatearrei bi jardunaldi gelditzen zaizkie denboraldia amaitzeko, eta, hain zuzen, hogeitun punturekin, zortzigarren postuan dago taldea.

Pilotako Udaberriko Sariko finala galdu du bikote arrasatearrek

Udaberri Sariko finalak jokatuta ziren hilaren 15ean, Aginagako pilotalekuan. Kadeteetako hiru-garren mailako eskuz binakako finalari dagokionez, Julen Barandiaran eta Ander Zumalde arrasatearrek Etxebeste eta Bouaskar bikote aňorgarraren aurka jokatuta zuten, baina faldu egin zuten; partidua 13-22 amaitu zen.

Apirilaren 6an eta 7an, Formigalera irteera Besaiderekin

Besaide Mendizale Elkartek Formigalera eskiatzera joateko asteburua antolatu du. Apirilaren 6an izango da irteera, 05:00etan, eta apirilaren 7an egingo dute bueltako bidaia. Eski irteera horretan parte hartu nahi dutenek izena eman beharko dute elkartean, asteartean eta asteazkenetan, 19:30etik 20:30era.

ARTren harrobia

Denboraldi borobila egin du ARTren harrobiak. Aurreko asteburuan lortutako garaipenarekin sailkapeneko bigarren postuan amaitu dute arrasatearrek.

Azken hiruzpalau urteetan taldeko entrenatzaile lanetan aritu den Julen Barrutiak adierazi du plazera izan dela talde hori gidatzea eta taldearen eboluzioarekin harro dagoela.



Kanpazar Arrasaterren talde argazkia JULEN BARRUTIA



Arrasate Musikaleko Banda eta Izabella Blezien piano-jolea entsegu baten. EDORTA AIASTUI

Arrasate Musikal eta Izabella Blezien, batera

Arrasate Musikaleko bandarekin batera piano-jole bakarleri arituko da 30 urtez bertan irakasle izandako poloniarra, domekan, 12:30an, Amaia antzokian. 'Ordizia', 'Ramuncho' eta 'La fantasia española' obrek osatuko dute emanaldia

Aitor Agiriano ARRASATE

1986an, anaiaren eskutik, bost urteko eszedentzia hartuta iritsi zen Izabella Blezien piano-jolea Arrasatera.

Domekan eskainiko duten kontzertuaren proposamena harena izan zen, nahiz eta talde-lanean garatu eta prestatu duten emanaldia Mikel Markiegi zuzendariarekin batera: talde bat eratu, hainbat obra aztertu, espresibitatea, formak... kontuan hartu eta ados jarri ondoren, entseguen hasi ziren buru-belarri eta prest dute dena jada emanaldirako: "Urduri eta hunkituta nago berriz bueltan naitzelako Arrasate Musikaleko lagunekin. Ez naiz inoiz musika mundutik erretiratuko, nire bizia da-eta".

Bi zati izango ditu eskainiko duten kontzertuak: lehenengo zatian, Arrasate Musikaleko banda bakarrik arituko da eta bi pieza joko ditu: Eduardo Maroco konpositore tolosarraren *Ordizia* lana eta Gabriel Pierne

frantsesaren *Ramuncho* konposizioa. Bigarren zatian, berriz, Blezien arituko da piano-jole bakarleri, eta Madrilgo Ricardo Villak konposatutako *La fantasia española* interpretatuko du.

30 urtez irakasle maitatua

Adin askotariko ikasle pila pasatu dira haren eskuetatik. Hala, asko poztan da horietako asko, musikari direlako gaur egun. Horietako bat da Rakel Hernandez: "Irakasle nuela egin nituen piano ikasketak, eta ondoren lankide ere izan dut, irakasle nahiz-eta egun ni ere. Gogotsu eta ilusioz nago kontzerturako. Gogorra eta zorrotza zen, baina piano munduan beharrezkoa da diziplina hori". Leire Retegik 7

BANDA ETA PIANO DOINUAK ELKARREKIN, BEREZIA IZANGO DEN LAGUNARTEKO KONTZERTUAN

urtetik 20 urtera bitartean izan du irakasle: "Hari zor diot piano-jole moduan daukadan jakintza-zatirik funtsezkoena. Beti egon da hor, animatzen, bai musikari dagokionez eta baita arlo pertsonalean ere. Orriak pasatzen izango naiz igandean, eta asko poztan nau harekin lan egin ahal izateak, batez ere, obra hain polit batean".

Emozioz beteriko kontzertua

Arrasate Musikaleko lagunentzat berezia izango da domekako emanaldia: "Izabella Blezienek asko egin du Arrasate Musikalaren alde. Pianoaren erreferente izan da herrian, eta baita kanpoko piano-jotzaileentzat ere", dio Edorta Aiastruik, Arrasate Musikaleko ekintzen arduradunak. Bestetik, Blezieneztat ere hunkigarria izango da: "Emozio handiz nago, lagun eta ezagun askorentzat joko dudalako".

Bandaren musika eta pianoa gustuko dutenei zuzendua dago doakoa izan den emanaldia.



Governors taldea, Oñatiko Gaztelekuan eskaini zuen kontzertu batean. GOIENA

Bulkada eguna ospatuko dute bihar, zapatua, Arrasaten

Ernaik eta Antzinak antolatua, herriz herri ospatzen ari diren festa egunaz gozatuko dute arrasatearrek

Aitor Agiriano ARRASATE

Bulkada Berrien Garaia Da dinamika azken txanpan sartzen ari da. Jarrairen 40. urteurren ospakizuna gauzatzeko dinamika da, hain zuzen. Eta, aurki, apirilaren 19tik 22ra, Lemoan egingo duten Gazte Topagunera begira, herriz herri egiten ari diren festa eguna iritsiko da bihar Mondragoera.

"Urte hauetan guztietan militante izandako gazte guztien eta gaur egungo gazteen topagune izatea nahi dugu. Hamarkadaz hamarkada hauek egindako lana eta borroka balioan jartzeko",

dio dinamikako kide Julen Mendizabalek.

Egitarau zabala gozagai

10:00etan, Irati taberna alboko plazatxoan murla margotzen hasiko dute eguna. Gaztetxean izango da 14:30ean bazkaria eta, 16:30ean, Gazte Topagunearen aurkezpena eta Ekiñe Casadoren kontzertu akustikoa izango da leku berean. Olinpiadak eginez jarraituko dute, 18:00etan, Tau-pa kanpoaldean. 22:30ean, berriz, gaztetxean, Governors eta DJ Jo Ta Txo-rekin amaituko dute eguna.

Musika zuzenean eta mentalismoa, Aterpe kafetegian

Zuzeneko musikarekin eta mentalismo emanaldiarekin gozatzeko aukera izango da gaur, hilaren 29a, egubakoitza, Aterpe kafetegian.

Hain zuzen ere, bi zatitan banatuko da emanaldia: lehendabizi, Arrasate Musikaleko ikasle Sara Carmona abeslaria eta David Velazquez biolin-jolea arituko dira; 20:30ean eskainiko dute kontzertua.

Horren ondoren, bigarren zatian, Aitor Jauregieltzo yogako irakasle eta mentalistaren txanda izango da. *Master Chikung, la energía del guerrero* ikuskizuna eskainiko du hark eta kafetegian ikusle izango direnak harritzen saiaturako da.

Montauk taldearen eskutik, rock doinuak Irati tabernan

2014an Gasteizen sortutako taldearen eskutik, rock doinuez gozatu ahal izango da martxoaren 31n, domeka, Irati tabernan.

Kantagintza herrikoia berrinterpretazioa du helburu taldeak. 2016an kaleratu zuten *Bilaketa* beraien lehenengo lana eta pasa den urtean, *Geruzak* disko berria.

Beñat Goiti –ahotsa eta gitarra–, Urko Urzelai –baxua–, Aitor García de Bikuña –gitarra elektriko eta sintetizadore– eta Gorka Etxabarria –bateria eta bibrafonoa– arituko dira eskainiko duten emanaldian.

Arratsaldeko zazpi eta erdietan hasiko da kontzertua eta doakoa izango da.

"Arroila-jaitsiera egitea moduan da batzuetan"

DENIS SORIANO ARRANTZALEA

Txikitatik dihardu arrantzan, amuarrainei berak prestatutako euliak eskainiz, egun, kosk egin diezaioten; berriz ere ibaira itzultzeko, hori bai. Gipuzkoako txapelketa da

Julen Iriondo ARAMAIO

Espainiako Txapelketa –datorren astean Asturiasen– du hurrengo hitzordu Soraluzen bizi den aramaioarrak. Duela hiru urte lehia-tzen hasita, jaurtitzeko arineko Euskadiko Txapelketa irabazi zuen iaz –aurten hirugarren izan da–, eta Gipuzkoako txapela atera du aurten; Araxes errekan izan zen, Lizartza inguruan, eta 29 amuarrain harrapatu zituen. **Ohikoa da hainbeste amuarrain harrapatzea? Hainbeste badaude? Edo propio askatzen dira ibaian amuarrain gehiago txapelketa bezperatan?**

Alde batetik, Araxes oso erreka ona da. Baina, bai, txanda bat, arratsaldekoa, gune intentsiboan izan zen, eta hamabost harrapatu nituen. Horiek neguan uzten dituzte ibaian, jendeak entrenatzeko eta. Baina goizekoa erreka arrainekin izan zen. **Batean hamalau eta bestean hamabost; ez dago, beraz, alde handirik bat edo beste.**

Ez, ez, ez. Gainera, intentsiboan jende asko ibiltzen da arrantzan, eta ez da erraza izaten. Fin ibili behar duzu haiekin ere; batzuetan, erreka amuarrainek baino gehiago ere jakiten dute. **Gipuzkoakoaren ostean, zer moduz joan zen Euskadikoa?**

Gogorra izan zen, oso gogorra. Azkenean, hirugarren geratu nintzen. Arrainak ez zeuden oso aktibo. Goizean bi harrapatu nituen eta arratsaldean bat ere ez. Hurrengo goizean zortzi harrapatu nituen eta arratsaldean bat ere ez, ez nuen aukerarik izan, hilda moduan zegoen ibai. **Zergatik? Baldintzak ez ziren onak? Leitzaranean ur asko kentzen dute zentral elektrikoek, eta, gainera, beroa, hego-haizea, oso txarra da arraintzat, ez dute pikatzen, apatikoko egoten dira, gordeta, ez dira jatera irteten. Ze motatako arrantza egiten duzu?** Jaurtitzeko arin motan ibiltzen naiz: izan daiteke koilaratxo-



Denis Soriano, arrantzatutako arraina eskuan duela. DENIS SORIANO

"BESTE BATZUK BIZIKLETAN IBILTZEN DIRA, ETA HAIK ERE EZ DUTE EZER ETXERA ERAMATEN"

rekin edo builarekin eta euliarekin. Ni euliarekin ibiltzen naiz beti, ez bada, behintzat, erreka oso hazita datorrela. Eta egiten duguna da errekatik mugitzen joan, korrontearrekin-eta jolasten, arrainen posturen-eta arabera... tokatzen zaizun zatia- ren arabera, era batera edo bestera. Koilaratxoarekin zuk pizten diozu arrainari pikatzeko gogo hori, agresiboagoa da; euliarekin, botatzen diozuna da bere janaren imitazio bat. **Euliak zeuk prestatzen omen dituzu, gainera.** Gehienetan, bai; txapelketetarako-eta, batzuetan erosten ditut. Lumekin, hariarekin... prestatzen dira; lumekin euliaren hegala imitatzen dira, hariarik kolorea... Urte sasoiaren arabera bat edo beste jartzen zaio. **Gakoa izango da euli egokiak edukitzea.**

Bai, gakoa da. Badaude egunak edozer gauza jaten dutenak, baina arrainak gogor daudenean fin ibili behar da.

Eta nola dira txapelketak?

Edukitzen dira bi ordu zure erreka zatian ibiltzeko. Eta mugitzen ibiltzen gara, ez gara geldi egoten leku baten. Jendeak uste du arrantza dela joan, geldi egon eta pikatzen badute ondo, eta bestela etxera; bada, ez. Ibiltzen gara errekan gora eta behe- ra, baita korrika ere.

Noiztik zabilta arrantzan?

Txikitatik; 8 bat urterekin hasiko nintzen, Urkulu aldean. Han ibiltzen ginen, gero Oñati aldean, eta Aramaion ere bai apur bat. Baina trenarekin-eta hasi zirenetik asko hondatu da erreka Aramaion.

Zeintzuk dira mehatxu handienak arrantzarentzat, gaur egun?

Mehatxu inportante bat da, adibidez, ubarroia. Hegazti beltz batzuk dira, izatez itsasokoak, baina urte batzuetatik hona erreketan sartzen hasi dira. Negua erreketan egiten dute, eta amuarrainak eta dagoen dena jaten dute. Bakoitzak bi amuarrain kiloraino jaten omen du egunean. Horrek izugarriko

mina egiten du. Soraluze eta Bergara aldean izugarriko saldoak ikusi ditut.

Gutxituta dago arraina erreketan? Zonaldeak daude. Orain, Deba ibaian ere, adibidez, ikusten dira amuarrain batzuk. Uraren kalitatea hobetu egin da, eta igartzen da. Baina Araxes-eta dira inguruko erreka onenak. Ur garbia dakarte, oso garbia, eta asko zaintzen dituzte; gardak egunero ibiltzen dira, eta ez dago *furtibismorik*-eta. Kontuan izan behar da hil gabeko arrantza barrutiak direla, gainera, eta horrek dakar ziurtatzea amuarrainak badaudela.

Beti egin duzu hil gabeko arrantza?

Ez. Hasieran ilusioz eramaten nituen amuarrainak etxera, baina denborarekin konturatu nintzen nik benetan nahi zuena zela arraina errekan egotea; niri arrantzan egitea gustatzen zait, noizean behin jatea ondo egon daiteke, baina niretzat balio handiagoa du amuarraina errekan egoteak platerean baino.

Askok ez dute ulertuko ordu pila bat arrantzan pasatzea esku hitsik etxera itzultzeko...

Bai; beno, beste batzuk bizikletan ibiltzen dira eta ez dute ezer etxera eramaten.

Zeintzuk dira baldintza egokienak arrantzarako?

Aldatu egiten da. Denboraldi hasieran egun lainotsuak komeni dira, hotz handirik gabe, eta eguerdi parte da onena. Denboraldi bukaeran, berriz, gau parte edo goizean goiz. Uraren tenperaturak du eragina; bestetik, uda aldean gertatzen da sereno deritzona: iluntze aldera euli pila bat ateratzen dira, eta amuarrainen aktibitatea hazi egiten da, jaten hasten dira eta...

Eta erreka ze zati dira onenak?

Presak ez zaizkit asko gustatzen. Ur geldian oso fin ibili behar duzu; bestela, amuarrainek berehala egiten dute alde. Errazek korrontek izaten dira; amuarrainak jateko egoten dira han, eta eulia pasatzen denean heldu egiten diote.

Zer ematen dizu arrantzak?

Lasaitasuna, naturarekin kontaktuan egotea... Mugimenduan zaude... batzuetan, arroila jaitziera egitea moduan da, baina arrantza eginez, gainera; zeren, badaude zonalde batzuk oso zailak direnak pasatzeko, eta ibili behar duzu harri artean, errekan sartuta, uretan... Polita da, polita da.



Jaietako ekintza, Gantzagan. GOIENA

Auzoetako jaietarako eta taldeentzako dirulaguntzak

Eskaera epea zabalik dago, eta kultura, kirol eta gizarte arloetakoena, gainera, laster itxiko da

J.I. ARAMAIO

Udalaren bi dirulaguntza mota eskatzeko dago epea zabalik: auzoetako jaiak antolatze-ko, batetik, eta kultura, kirol eta gizarte arloetakoak, bestetik. Lehenengora aurkezteko bi epe daude aukeran, ekainaren 3a eta irailaren 2a; bigarrenerako, berriz, apirilaren 9a baino lehen egin behar da eskaera.

13.500 euro daude aurten auzoetako jaiak antolatze-ko. Ez dituzte laguntzetarako onartuko: erlijio edo sexu arazoengatik bazterketa eragiten duten ekintzak, edo beste edozein kolektibo baztertzeko dutenak; animaliei tratu txarrak ematen dizkietenak; ingurumena kaltetzen dutenak; eta euskararen erabilera lehenesten ez dutenak.

Dirulaguntzek "borondatezko izaera" dute, eta Udalak ez du jasotzen dituen eskakizun denei erantzun baikorra emateko derrigortasunik, eskatzaileek baldintza guztiak beteta ere. Dirulaguntza jasoz gero, hau ez da inoiz egindako gastuen %80 baino gehiago izango.

Kultura, kirol eta gizarte arloetarako, berriz, 17.080 euro daude; zehazki, aipatutako arloetarako eta aisialdiarekin, hezkuntzarekin edo euskararekin lotutakoetarako izango dira.

Gazte Eguna egingo dute hurrengo asteburuan

Poteo musikatua, bazkaria, Bertso Pikie eta Unidad Alavesa eta Wood String taldeen kontzertuak antolatu ditu Aramaixo Tropikaleko Gazte Asanbladak; bazkarirako txartelak etzi, domeka, bitartean eros daitezke, zortzi eurotan, herriko tabernetan

Aitziber Aranburuzabala ARAMAIO Berrikuntza batekin dator Aramaixo Tropikaleko Gazte Asanblada: Gazte Eguna egingo dute, estreinakoz, apirilaren 6an, zapatuan. "Modu naturalean sortu zen Gazte Eguna antolatzekeo ideia. Taldeko hiru kidek proposamena eraman genuen batzar batera, gazteak jai giroan Aramaion elkartzeko asmoarekin jai antolatzekeo. Proposatutakoa gustuko izan zuten beste kideek eta aurrera egin genuen; orain dela hiru hilabete hasi ginen ideiak lantzen eta egitaraua lotzen, eta dagoeneko prest dugu egun osoko egitaraua", azaldu du Aramaixo Tropikaleko Gazte Asanbladako kide Unai Etxenausiak.

Datorren zapatuko jaiak izango duen harrerak eta arrakastak baldintzatuko du Gazte Eguna-aren etorkizuna hurrengo urteetan, baina antolatzaileen asmoa da jarraikortasuna izango duen urteroko jaialdia izatea: "Lehenengo urtea da, ikusiko da zelan ateratzen den, baina, hasiera batean, Gazte Eguna geratzeko etorriko dela esan dezakegu".

Kanpokoak ere gonbidatuta

Herriko gazteez gain, inguruko herrietakoak ere gonbidatu gura dituzte jaiaren parte hartzera: "Errespetuz eta gogoz etorri zera, ongi etorriak dira guztiak. Gertuko herrietako hainbat gazte batzordetako kideei egin diegu etortzeko gonbidapena, eta Otxandiotik zortzi lagun etorriko direla baieztatu digute; jaiaren parte hartzera datoz, baina antolaketa lanetan eta eguneko zereginetan laguntzeko prest daudela adierazi digute. Arrasateko Gazte Asanbladatik ere etorriko direlakoan gaude, eta Eskoriatzako, Aretxabaletako eta Legutiokoak ere gonbidatu ditugu, baina euren herrietan bestelako ekitaldi batzuk dituztela eta ez digute oraindik zehaz-



Unidad Alavesa taldeak kontzertua egingo du Gazte Egunean. TERNARIO AJA

BAZKARIRAKO TXARTELAK ZORTZI EURO TAN EROS DAITEZKE HERRIKO TABERNETAN

tu Aramaiora etortzeko aukerarik izango duten".

Jai autogestionatua

Bizente Goikoetxea plaza izango da jaiaren erdigune, eta, plaza-tik abiatuta eta karro baten musika aparatua eramanez, poteo musikatuarekin hasiko dute jaiak, 13:00etan. Ondoren, 14:30ean, Aramaixo Tropikaleko Gazte Asanbladakoek prestatutako bazkaria izango da: "Autogestionatutako jaiak izatea da asmoa, eta hor sartzen da bazkaria prestatzea ere. Txartelak dagoeneko salgai daude, eta etzi, domeka, da erosteko azken eguna. Zortzi eurotan eros daitezke, Añai, Eki eta Anbotu tabernetan".

Bazkalostean "lasai eta gustura egoteko" Bertso Pikie saioa prestatu dutela gaineratu du Etxenausiak: "Lau bertsolari izango dira: herriko Aitor Ugar-

te eta Peru Abarrategi eta aspaldiko lagunak ditugun Oñatik Aitor Tatiegi eta Abadiñoko Txaber Altube. Saioaren izenburuak bestelakoa adierazi ahal duen arren, dibertigarria izango da, gai entretenigarriekin eta lagunaren arteko pike sanoarekin, alegia".

Kontzertuak, gauean

Eguna borobiltzeko, Aretxabaletako Wood Strings eta Ataungo Unidad Alavesa taldeen kontzertuak izango dira, doan, 22:30ean hasita, Sastiña ermitaren alboan: "Urtero antolatzen dugun Eguzkierripa Rock jaialdira, punk estiloko taldeak gonbidatzen ditugu, eta Gazte Egunerako bestelako estiloei tokia egin nahi genien. Oso talde onak dira, eta giro ona jarriko dutela seguru gaude. Estreinakoz izango dira Aramaion, eta Unidad Alavesa, bereziki, herrian oso gustuko duten taldea da".

Eguzkierripa Rock, maiatzean

Hamaikagarren aldia izango da aurten, eta maiatzaren 25ean egingo dute; ohi baino emakume musikari gehiago izango direla aurreratu dute.



Filmeko une bat. TXINTXUA FILMS

'Dantza' pelikula arrakastatsua, hurrengo barikuan

Lagun Artean dantza taldeak antolatu du, eta Telmo Esnal zuzendaria saioan egongo da -22:00etan, kultura etxean-. "Bizitzaren zikloari buruzko istorio bat, bizirik irauteko borrokarena. Horretan, denboraren iragatea naturaren ibilbideak markatuko du. Eta dantza da hori kontatzeko hautatutako hizkuntza", dio filmaren gaineko azalpenak ekoiztetxearen webgunean.



Korrika, Aramaion. GOIENA

Herriko kilometro guztiak osatzeko azken ahalegina

Kilometro asko, hamalau, izango ditu aurten Korrikak Aramaio bideetan zehar, eta horietako gehienak osatu dituzte dagoeneko, hamar inguru. Hainbatek kilometro osoak erosi dituzte -Udalak, Txirritolak, eskolak eta guraso elkarteak...-; beste batzuek, zatiak. Kilometroa erosi edo ekarpena egin nahi duenak oraindik ere badu horretarako aukera.



NIRE USTEZ

MAIDER ALDAI

Opariak

Opariak egiteko bi modu daude: bueltan zerbait espero dezakezu edo ez.

Lehenak badu kondentatik zerbait hartzailearentzat, loa kentzeraino eragin diezaiokete. Bere ideiak jasotako presentearekin konparatuko ditu, pisatu, baztertu gehienetan. Eta eguna hurbil ikustean -egun seinatu bat balego- pultsua arindu eta balantza desorekatuko zaio. Segurutasunik ezak janda jarriko dio paketea eskuan, arnasarik ia hartu gabe. *Berediktu*-aren zain.

Bigarren kasua interesatzen zait, dena den. Igorleak botere bikoitza hartzen du. Besteak espero ez duen unean espero ez duen objektu bat jokoan sartzearen lizentzia dauka. Momentuaren jabe egiten da, kontrolatzen du, modelatu. Are gehiago antzerkizalea bada. Estu dago hartzailea, pozik behar zukeen arren, arduratuta dago. Zalantziak: zerbait bueltan eman behar duen ala ez, dudak. Eta lehenengo opari motaren kasura bueltatzen gara, nahi gabe.

Oso zaila da opariak bere horretan onartzea. Trukean ezer eman behar ez izatea. Logika oso bat eraisten da.

Argirik ez da egongo astelehen goizean herriaren zati batean

Mantentze-lanak egiteko, lau orduko mozketak egingo dute -09:00ak eta 13:00ak artean- Al-tzagan, Azkoagan, Barajuenen, Suñan, Untzillan eta Zabolán. Mozketak txikiak egingo dituzte, berriz, Ibarren, Arexolan, Arriolan, Etxaguenen, Errotabarrin, Gantzagan, Eguzkierripan, Uri-barrin eta Gureian. Eguraldi txarra bada, ez dituzte egingo.



Herriko udaltzainen autoa aparkalekuan. MIRARI ALTUBE

Udaltzain postua betetzeko lehen pausoak

Arkauterekin hitzarmena sinatuko du Udalak, eta, horrela, prozesua abian jarri; dena den, urtebete baino lehen ez da hasiko lanean. Udaltzainburua hautatzeko bidea, ostera, beste bat izango da eta aurrerago jarriko dute abian

Mirari Altube ARETXABALETAKA

Astean argitaratu du Udalak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean udaltzain postua betetzeko lehia-keta deia. Eta atzo, eguena, egindako ezohiko osoko bilkuran Arkauterekin hitzarmena sinatzea onartu zuen Udal Gobernuak, prozesua abian jartzeko. EH Bilduk ezezkoa eman zion, eurek egindako proposamena aintzat hartu ez dutela argudiatuta.

EH Bilduren ezetza

"Arkauterekin hitzarmena sinatzea erabaki dugu, Euskal Autonomia Erkidegoko Udal gehienek egin duten lez", adierazi du Unai Elkoro alkateak, eta gaineratu: "Logikoena horixe da, prozesu guztia bere gain hartzen dutelako".

EH Bildu, ostera, ez dago erabaki horrekin ados; prozesua Udalaren bitartez egitea gura zuen eta horren gaineko proposamen bat egin ere egin zion Udal Gobernuari otsailean: "Udaltzainek bitartekaritza zer-

bitzua eskaintzea eta genero ikuspuntua txertatzea formakuntzan ziren gure arrazoi nagusiak Udalak bere gain harrezan. Baina bakarrik segurtasuna hartu dute kontuan erabakia hartzerakoan", adierazi du Ion Albizu bozeramaileak. Horregatik, ezezkoa eman zioten, atzo, hitzarmenari.

Urtebeteko prozesua

Martxo hasieran erretiratu zen Alberto Zillaurrenen lekua betetzera etorriko da udaltzain hori. Prozesuak luze joko du, nahiz eta orain jarri abian. "Pentsatzen dut irail ingururako hautatuko dutela, eta, ondoren, beste sei bat hilabetez trebakuntza jasoko du Arkauten bertan",

EH BILDUK GURA ZUEN UDALAK BERE GAIN HARTZEA PROZESUA, ETA EZETZA EMAN DIO HITZARMENARI

dio Elkorok. Hain zuzen, urtebete baino lehen ez dela postu hori beteko adierazi du: "Martxo edo apiril ingururako, esango nuke. Eta, bien bitartean, mol-datuko gara daudenekin".

Iazko urte bukaeran erretiroa hartu zuen Martin Garai udaltzainburuaren postua ere bete gura du Udalak, baina aurrerago izango da hori. "Beste kategoria bat dagokio postu horri eta beste prozesu bat izango da", argitu du alkateak.

Hauteskundeetarako hautaketa

Joan den astean ere egin zuen osoko bilkura udalbatzak; Eskoriatzako Udalarekin bi hitzarmen sinatzea onartu zuten: batetik, nerabeen aisialdiaren gaineko ikerketaren bigarren faseari ekiteko; eta bestetik, bidegorrian komunak jartzeko.

Gaur, egubakoitza, beste osoko bilkura bat egingo dute, apirilaren 28ko hauteskundeetan Kurtzebarri eskolako mahaietan egongo direnak hautatzeko.



AITOR ZUAZABEITIA

Basotxoko zuzendaritza, lanean

Batzar orokorra egin ostean, eta boluntariorik agertu ez dela ikusita, beste urtebetez lanean jarraitzea erabaki dute Basotxo erretiratuen elkarteko zuzendaritza batzordeko kideek. Astelehenean egin zuten denboraldi berriko lehenengo bilera eta Ongizate Saileko zinegotzi Karmele Uribarrenekin elkartu ziren azken kontuen berri emateko.



Miren Lorea Lana. MIREN LOREA LANA

Miren Lorea Lana zinegotzia da sozialisten alkategaia

Azken agintaldian zinegotzi den Miren Lorea Lana arrasatearra berriro izango da PSE-EEren zerrendaburua udal hauteskundeetan. Aurretik, Arrasaten, zortzi urtetan egon zen udal jardunean. Agintaldiaren balorazioa egiterakoan, azaroan, "pozik" agertu zen lau urteok emandakoarekin, eta orduan adierazi zuen berriro ere errepikatuko zukeela.

'Aida' opera emango dute apirilaren 6an Arkupen

Aretxabaletarrek harrera beroa egin zioten *La traviata* operaren emanaldiari otsailean, eta, hori ikusita, *Aida* emango dute oraingoan. Apirilaren 6an izango da, arratsaldeko zazpietan, Arkupen, eta sarrerak salgai daude, 5 euroren truke.

Giuseppe Verdi italiarrak idatzitako opera da *Aida*, eta amodiozko istorio tragikoa du ardatz: Radames, Egiptoko heroi nazionala, Amneris faraoiak duen morroiaren alaba etiopiarraz maiteminduko da; Aidaz, hain zuzen ere.

1871ko abenduaren 24an estreinatu zen obra hori, Kairon, eta izugarritzko arrakasta izan zuen. Verdi konpositorea ordu-rako ezaguna zen European obra hura idatzi zuenerako, eta, horren ondoren, are eta ospetsuago egin zen. *La traviata* lez, opera hori Sydneyko portuan grabatutako ikuskizuna da. Australiako abesbatzak eta balletak hartu zuten parte bertan. 157 minutu irauten du eta lau ekitaldi ditu.



Korrika Batzordea bileretako batean, udaletxe zaharrean . MIRARI ALTUBE

Klika egiteko gertatze lanak aurrera doaz

21. Korrikaren etorrera girotzeko ekitaldi gehienak zehaztuta ditu Korrika Batzordeak eta herritarrak gonbidatu gura dituzte horietan parte hartzera; kilometroa erosteko lehenbailehen emateko izena eskatu dute banaketa datorren astean egingo dutelako

Mirari Altube ARETXABAETA

Datorren egunean, apirilaren 4an, jarriko da abian 21. Korrika eta lekukoak eskuz esku jardungo du hilaren 14an Gasteizera iritsi artean. Aretxabaletara egun horretan bertan, 04:27an, iritsiko da, baina girotze ekitaldiak aurretik hasiko dira.

Bertso afarirako txartelak salgai

Hurrengo zaturako, apirilaren 6rako, mendi irteera antolatu dute Zeraia eta Murruxio mendizale elkarteekin batera; 09:00etan abiatuko dira parrokia albotik eta familia giroan egiteko irteera izango da.

Apirilaren 10ean, eguaztenean, kantuan eginez girotuko dute pintxo pote eguna kantu-poteo taldekoek. Eta hilaren 12an, dantza plaza izango da lehenengo, Herriko Plazan, Leizarra musika eskolako dantza irakasleak gidatuta, eta ondoren, bertso afaria Uratz Alde elkartearen Unai Iturriaga eta Oihana Iguaran bertsolari ezagunekin. Txartelak

Girotzeko ekitaldiak:

Apirilak 6

- **Mendi buelta** Murura, parrokiatik irtenda (09:00).

Apirilak 10

- **Kantu pintxo potea** herriko tabernatan.

Apirilak 12

- **Korrika Txikia** ikastetxeetako neska-mutikoekin, goizean.
- **Dantza plaza** gidatua Herriko Plazan (18:15).
- **Bertso afaria** Unai Iturriaga eta Oihana Iguaranekin, Uratz Alde elkartearen (21:00).

Apirilak 13

- **Korrika Festa** kaleetan eta Pagaldaixenean.

salgai daude oraindik –Loramendiko bazkideendako, 20 euro; gainerakoendako, 22 euro– leku hauetan: Taberna Barri eta Urbaltz tabernak eta Loramendi.

Korrika Festa, hilaren 13an

Apirilaren 13rako, ostera, Korrika Festa antolatu du batzordeak. "Asmoa da mural bat egitea kalean, eta, ondoren, umeendako jolasak izango dira. Eguerdi partean, paella egingo dute Pagaldaixena inguruan herritarrentzako", jakinarazi dute, eta gaineratu: "Artisau postuak ere jarri gura ditugu; hortaz, herriko artisauei dei egiten diegu Loramendira gerturatzeko izena ematera". Iluntze partean, kontzertuak izango dira herriko taldeen eskutik; Wood Strings eta Jasan taldeek jardungo dute, besteak beste, Pagaldaixenean.

Korrika batzordeak datorren astean egingo du kilometroen banaketa; hortaz, oraindik erosi ez dutenei lehenbailehen izena emateko eskatu diete.



Jone Ojea, Ion Albizu eta Peli Beltran de Heredia, mugikortasun plano aurrean. M.A.

Mugikortasuna "hobetzea" proposatu du EH Bilduk

"Sare segurua" sustatzeko ekintzak aurkeztu ditu: bizikletendako bideak eta aparkalekuak, besteak beste

M.A. ARETXABAETA

Garraiobide guztiak kontuan hartuta eta "horien arteko bizikidetzaren ardatz" izanik mugikortasun "sare segurua" sortu gura du EH Bilduk. Lehentasunak ezarri dituzte, gainera: oinezkoak; bizikletak eta patineteak; garraio publikoa; eta automobilak.

Oinezkoendako "irrisgarritasuna eta erosotasuna" bermatu gura dute; errepidean, ostera, "lehen-tasuna eman" garraio publikoari. Bizikletei dagokienez, sare propioa sortzea da asmoa: "Herri barruko zein herrien arteko mugimenduak guztiz aldatuko direla jakinda, lau urteetarako ekintzak zehaztu ditugu", dio EH Bilduren zerrendaburu Ion Albizuk, eta honako ibilbide hauek aipatu ditu: "Araba ibilbidean bide bat egitea eta hori luzatzea Markole auzoraino eta Copreci lantegiraino, batetik; eta Txarapea ibilbidea Loramendi kalea-

rekin alde batetik eta Herriko Plazarekin bestetik lotuko lukeen bide bat sortzea, bestetik". Sareak 1,2 kilometro izango lituzke.

Bizikletendako hiru aparkaleku "seguru" egin gurako lituzkete, Udalak dituen hainbat lokaletan: Murubiden, Durana kalean eta Markole auzoan. Horrez gain, ibilgailu elektrikoak erosteko dirulaguntzak sustatu gura dituzte, eta mugikortasun ordenantza bat garatu.

Energia berriztagarriak

Horrekin batera, energia berriztagarriak bultzatzeko planaren nondik norakoen berri ere eman dute. EH Bilduren proposamena honako hau da: kiroldegian, Kurtzebarri eskolan eta komentuan eguzki plakak jartzea, 200.000 euroko inbertsioa eginda horretarako. Industria eraikinetan eta komunitateen teilatuetan jartzea ere sustatu gura dute.

Literatura Astean murgilduta daude Kurtzebarri eskolan

Munduko ipuinak ardatz hartuta murgildu dira Literatura Astean Kurtzebarri eskolako ikasleak, eta eguaztenean, Patxi Zubizarreta idazlearekin kontu-kontari jardun zuten. Apirilaren 3an emango diote bukaera asteari, urtero lez, Irakur Maratoiarekin; Onintza Enbeita bertsolaria gonbidatu dute 28. ez egingo duten ekitaldi horretara.



Patxi Zubizarreta. KURTZEBARRI ESKOLA



Kurtzebarri institutuko ikasle bi GSR zaharren egoitzako egoiliar banarekin eskulanak egiten. KURTZEBARRI INSTITUTUA

Ikasleei hauspoa emateko proiektuarekin lanean

Kurtzebarri institutuan Hauspoa proiektuarekin dabilta lanean azken lau urteotan; jarduerak eta denborak berrantolatzea du helburu horrek, eskola-arrakasta lortze aldera, eta, besteak beste, indartze-guneak eta tailerrak eskaintzen dizkiete ikasleei

Mirari Altube ARETXABALETA

Hezkuntza Sailak sustatutako Hauspoa proiektuaren bueltan dihardute lanean Kurtzebarri institutuan azken lau urteotan; arrakasta handiarekin, gainera. Hasieran, EAEko 28 ikastetxe egin zuten bat horrekin, eta gaur egun, 53 dira. "Jarduerak eta denborak berrantolatzeke Hezkuntza Sailak ematen duen aukera da proiektu hau; betiere, eskola-arrakasta hobetze aldera", dio institutuko zuzendari Juan Carlos Pascual *Pascu*-k, eta gaineratu du: "Ikastetxeari identitate propioa ematen diona, hain zuzen ere".

Sei tailer, hainbat jarduera

Hiru helburu ditu horrek: "Eskola denbora eredu berriak mar txan jarri eta ebaluatzea; ikastetxearen kalitatea hobetzea; eta emaitzen hobekuntza sustatzea". Eta horien barruan beste hainbat daudela dio *Pascu*-k; besteak beste, konpetentziak bermatzea, elkarbizitza sustatzea eta euska-

raren erabilera bultzatzea eskola ordutegitik kanpo.

Behin eskola orduak bukatuta datur Hauspoaren txanda eta hiru esparru ezberdin daude hor. Batetik, indartze-gunea: "Bideratutako ikasleak dira; hau da, ikasgairaren batean edo bestean premiaren bat duten ikasleak Hauspoa arloko indartzera bideratzen dira". Ikasgai horiek astean hiru egunetan jasotzen dituzte.

Bestetik, ekite-gunea dago: "Etixerako lanak egin, talde-lanak aurrera eraman eta ordenagailua erabiltzeko aukera ematen duen gunea da, etxean halakorik ez dutenak egon daitezkeelako".

Eta hirugarren gunea tailerrak dira. Bigarren hiru hilekoan hamaika jarduera eskaini dituzte.

TAILERREN ARTEAN DAUDE ZAHARREN EGOITZAN LAGUN EGITEA ETA ESKOLAKO PATIOAREN KUDEAKETA

te, eta horietatik honako hauek dira abian jarritakoak: GSR zaharren egoitzan lagun egitea; Haur Hezkuntzako patioaren kudeaketa; boleibola; mekano-grafia; eskulanak; eta emakumezko bideratutako autodefentsa tailerra. "Azken hori zortzi orduko ikastaroa izan zen, baina oso arrakastatsua".

Gainerako tailerrek ere arrakasta handia dutela dio: "GSR zaharren egoitzan ikasle bakoitzari hiruzpalau egoiliarren ardura eman diote eta horiei laguntza eman eta jarraipena egiten diete jarduera ludikoetan", dio, eta gaineratu du: "Beste batzuk Haur Hezkuntzakoekin egoten dira atsedendaldietan eta jolasak antolatzen dituzte horiekin".

Kurtzebarri institutuko ordezkariak "pozik" daude tailerrek izandako arrakastarekin; izan ere, ez dira derrigorrezkoak. "Ikastetxea herrira zabaldu nahi dugu Hauspoa bide dugula", dio *Pascu*-k.

Beteranoek Lagun Onak-en aurka jokatu dute etzi, Ibarra

Aretxabaleta kirol elkarteak, bestetik, kudeatzaile baten bila dabil, sailek dituzten beharrei heltzeko

Aitor Zuazabeitia ARETXABALETA

UDAKo veteranoen taldeak Lagun Onak hartuko du datorren domekan, hilaren 31n, 12:00etan, Ibarra futbol zelaian. Hainbatean elkartzen da talde hori partidu batzuk jokatzeko, eta, oraingoan ere, ondo pasatzea helburu dutela izango dira zelaian azpeitiarren aurka jarduteko. UDAKo kideek adierazi dute giro polita izango dela futbol zelaian, eta gerturatzeko dei egin diete zaleei. Aurretik, 10:00etan, futbol eskolako neska-mutikoei -2010ean jaiotakoak- jardungo dute nor baino nor gehiago.

Kudeatzaile bila

Bestetik, UDAK kirol elkartearen sailek dituzten beharrak kudeatzeaz arduratuko den kide bat gura du. Era berean, marketin eta komertzial sailean egingo luke lan; babesleen bilatze lanaz

eta fidelizazioaz arduratuko litzateke, hain zuzen ere. Horrez gain, proiektu berrien sorkuntza ere eskatuko diote, eta, arlo sozialari dagokionez, elkarteak esku artean darabilen proiektuak garatzeaz arduratuko litzateke.

Baldintzak

Lan horietarako egokia izan dadin, hainbat baldintza jarri ditu UDAK: trebakuntzari dagokionez, heziketa zikloa egina izatea, goi mailako zikloa edo gradua; hizkuntzei dagokionez, euskaraz eta gaztelaniaz ondo moldatzea; eta kudeatzaile lanetan eskarmentua izatea ere gura dute: bi urtetik gorakoa, hain zuzen ere, "ahal izanez gero, kirol arloan".

Izena emateko eta argibideak eskatzeko, UDAREngana zuzendu behar da: udaretxabaletake@gmail.com. Horretarako azken eguna apirilaren 9a da.

Ipuin kontaketa umeendako martitzenean

Apirilaren 2rako, Haur Liburuaren Nazioarteko Eguna go-goan, ipuin kontaketa antolatuta ditu haur liburutegiak. Leire Zinkunegi kontalari oriotarra gonbidatu dute, eta bi emanaldi egingo ditu: 17:30ean, *Lukas saguaren istorioa* kontatuko die 3 urtetik gorakoei -20 minutu- eta 18:15ean, *Gerizpeko ametsak* 5 urtetik gorakoei -40 minutu-.

Bulkada Eguna ospatuko dute apirilaren 6an

Gazte olimpiadekin hasiko dute Bulkada Eguna apirilaren 6an, eta gero, bazkaltzeko elkartuko dira udaletxe zaharrean; bazkalostea herriko hainbat musikaririk girotuko dute. Iluntzean ere izango da musika: Ekiñe Casado, elektrotzaranga eta Virgin Mery DJ seten eta DJ Baltasar. Bazkarirako txartelak salgai dituzte Urbaltz tabernan.

Lanananaranja taldearekin txotxongiloak etzi

Kontukantari 2. Mendian ibiltari antzerki kontzertua eskainiko du Lanananaranja talde bizkaitarrak, txotxongiloek lagun eginda. Domekan, hilaren 31n, izango da ikuskizuna, Arkupen, 17:00etan; sarrera 3 euro da. Betiko abestiek osatutako lana eskainiko dute, "nagusiek ez ahazteko horiek eta txikiek ikas ditzaten".

OHARRAK

'Erraiak' filma

Irrintzia ardatz hartuta Ekain Martinez de Lizarduyk zuzendutako *Erraiak* filma emango dute gaur, egubakoitza, Arkupen (19:00).

Kinto bazkaria

1972an jaiotakoek kinto bazkaria egingo dute apirilaren 6an, Uratz Alde elkartean. Izena emateko Urbaltz tabernara jo behar da.



Eskoriatza EH Bilduko hautagaiak, taldeari babesa adierazi dioten hainbat herritarrekin batera. IMANOL SORIANO

"Esperientzia eta ilusioa duen taldea osatu dugu"

EH Bilduk maiatzeko udal hauteskunderi begira gertatu duen taldea aurkeztu du. Eluska Irazu buru, "talde plurala" osatu dutela eta "gogotsu" datozela adierazi dute. Horrekin batera, aurkezpenean, euren lau lan-ildo nagusiak zehaztu dituzte

Mirari Altube ESKORIATZA

Eskoriatzako EH Bilduko kideek herri batzarra egin zuten pasa den egubakoitzean, udal hauteskundeetara begira hautatutako zerrenda berresteko. Eluska Irazu, Nestor Arana, Dorleta Sologaitoa, Ander Errarte, Iñaki Lizundia, Naroa Esnal, Kristina Kardenal, Xabier Uriarte, Pili Lezeta, Aitor Zubizarreta eta Beñat Illarramendi dira zerrenda osatzen dutenak. Ordezkoak, berriz, honako hauek izango dira: Marisol Andrade, Marijo Sala eta Bittor Carballares.

Eibarren jaio baina urte askoan Eskoriatzan bizi den Eluska Irazu buru duen zerrenda osatzeko bi irizpide hartu dituztela kontuan adierazi du Irazuk berak: "Herrian parte hartzen duten hainbat talde eragile hartu ditugu kontuan, eta horiengana zuzendu gara; hor ditugu erretiratuak, gazteak, ikastetxeetako kideak, feministak... Eta talde plurala osatu dugu. Proiektu honetan parte hartu gura duen jendea dago,

noski. Eta beste batzuek, argazkian ez agertu arren, lanerako gertu daudela esan digute. Hor-taz, pozik gaude".

Lau lan-ildo zehaztuta

Herriko eragileekin hainbat bilera egin dituztela onartu du Irazuk, horien ekarpenak jasotze aldera: "Asmoa da ildo batzuk zehaztea horiekin, eta herri proiektu bat abian jarri". Lau proiektu "potolo" dituzte jomugan. Batetik, etxebizitza plana dago: "Edadetuentsat, gazteentsat, babesa behar dutenentsat... Tutoretzapeko eta etxebizitza komunitarioen ildotik ere sustatu gura dugu".

Irisgarritasuna eta mugikortasuna da bigarren lan-ildoak: "Herrian dauden puntu beltzak ken-

HERRIAN PARTE HARTZEN DUTEN HAINBAT TALDE ERAGILE HARTU DITUZTE KONTUAN

tzen saiatuko gara, eta arazoak non dauden antzematen eta konpontzen". Ekintzailera sustatzearen alde ere egingo dutela lan zehaztu du Irazuk: "Herriko merkataritza biziberritu, herria bera indartzeko eta herri nortasuna berreskuratzeko. Eta horretarako, zein laguntza dauden begiratu dugu, eta herritarren ekarpenak jaso". Azkenik, turismoa sustatu gurako lukete: "Eskoriatzak eta inguruak izugarriko ondarea dute eta ez dago balioan jarrita gaur egun; hortaz, horren alde egin behar dugu".

Lanerako "gogotsu"

Esperientzia dutenek –bukatzear den agintaldian lanean jardun dutenak– zein lehenengoz politikara gerturatu direnek bat egin dutela taldean aipatu dute: "Ni ez naiz politikaria, baina herrigintzatik nator, gogotsu nago, ilusioarekin. Eta jendea atzean baldin badugu indarra eta babesa ematen, zergatik ez dugu egingo, ba, aurrera? Bai, horixe!".

'Bularretik mintzora' egitasmoa martxan da osasun etxean

Umeen artean irakurzaletasuna sustatzeko asmoz antolatu dute Udal Bibliotekak eta osasun etxeak

I.B ESKORIATZA

Eskoriatzako Udal Bibliotekak, osasun etxearekin elkarlanean, Galtzagorri elkarteak abian jarritako *Bularretik mintzora* egitasmoa jarri du martxan. Aste honetan hasita, 0-6 urte bitarteko umeen artean irakurtzeko zaletasuna sustatzeko helburuarekin, martitzen, eguazten eta eguen goizetan gauzatu da osasun etxean bertan.

Gurasoek umeari ohiko osasun azterketa egiterakoan *Bularretik mintzora* egitasmoa CD-liburuak jasoko dituzte erizainen eskue-

tatik. Informazioa, hainbat argibide eta gomendio emango dizkiete gurasoei, familia ohituretan eragiteko asmoz.

Haurraren adina kontuan hartuta, literatura pieza egokiak eskaintzeko errezeta batzuk erabiliko dituzte. Horrekin batera, kantuen eta jolasen bitartez estimuluak jasoko dituzte umeek, euren garapen emozional zein intelektualerako. Horretarako, etxean denbora bat eskaintzea ezinbestekoa izango da, horrela, irakurtzea erritu bat izan dadin.

GORA ETA BEHERA



IÑIGO LARRAÑAGA

Bazterbide barik, ziklistentzat arriskua

Segurtasuna hobetzeko Torrebasen egiten ari diren lanak hizpide izan dira sare sozialetan. Txirrindulari batek adierazi duenez, metro bateko bazterbidea kenduta, erortzeko arriskua dago.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo ☎ 688 69 00 07.

Amaia Albes diseinatzailea 'Galdegazte' saioan

Galdegazte saioaren bosgarren denboraldiaren barruan, Arizmendi Ikastolako Almen guneko Enaitz Garai, Esti Benitez eta Leire Arrate ikasleek Amaia Albes moda diseinatzaile arrasatearra elkarrizketatu dute, Jokin Bereziartua aurkezlearen gidaritzapean.

Eurekin batera, Garazi Diezek, Ainhoa Loitik eta Naroa Etxe-

barriak ere hartu dute parte saioan, eta haien eginbeharra Albesen gertukoak elkarrizketatzea izan da. Hori horrela, moda kontuek hartu dute elkarrizketaren pisu handiena, baina Albesen gertukoak esker jakin dute, besteak beste, Amaia musikazale amorratua ere badela. Izan ere, Albesen aspaldiko irakasle batekin eta senitartekoekin egon dira. Elkarrizketa apirilaren 4an, eguena, ikusi ahalko da, Goiena telebistan, 21:30ean eta 23:30ean.



2017an, Korrika Eskoriatzatik pasatzen; Sara Agiriano eta Ane Arrieta eskoriatzarrak, lekukoa eskuetan dutela. AITOR AGIRIANO

21. Korrika pasatzen denerako, egitaraua prest

Korrika apirilaren 14an 04:42 inguruan helduko da Eskoriatzara. Hori horrela, aurrez, hainbat ekintza izango dira: Korrika Txikia, esaterako, apirilaren 12an, egubakoitza; eta apirilaren 13rako, zaturako, egun osoko egitaraua antolatu dute

Imanol Beloki ESKORIATZA

21. Korrika apirilaren 14an goizaldean pasako da Eskoriatzatik, eta ordurako egitaraua prestatzen aritu dira herriko hainbat elkarte, eragile eta norbanako: Luis Ezeiza eta Arizmendi, Bazara, Eingeinke, Gaztelekua, Atxorrotx Kultura Elkartea, EH Bildu, Jose Arana gurasoen elkarte, Talogileak eta udal ordezkariak, besteak beste. Hori horrela, pasa den astean egin zuten azken bilera, eta dagoneko prest daukate egunerako egitarau osoa.

"Parte-hartze handia izan da. Izan ere, Korrika Batzordeko bilera bakoitzean, elkarte askotariko hamalau pertsona inguru batu izan gara. Azpimarratzekoa izan da, gainera, gazteen parte-hartzea; Eingeinke eta Bazara elkarteak oso aktibo egon dira, eta ekarpen interesgarriak egin dituzte. Beraz, egindako lanarekin eta antolatu dugunarekin pozik gaude", adierazi dute Korrika Batzordeko kideek.

Herrian izango direnak

- Apirilak 12, egubakoitza**
 - **10:30** Korrika txikia.
- Apirilak 13, zaturak**
 - **17:30** Lekuko, txapa eta banderola tailerra.
 - **18:30** Buruhandiak.
 - **19:00** Dantza herrikoiak.
 - **20:00** Kantu kalejira: Beñat Intxausti musikaria eta Haizea eta Oihana Arana bertsolariak.
 - **23:00** Bidean erromeria taldearen kontzertua.
 - **01:00** DJ Moto, Inkernu tabernan.
- Apirilak 14, domeka**
 - **05:00** Txokolata plazan.

Apirilaren 13ko ekintzez gain, apirilaren 14an, domekan, 04:42 bueltan zeharkatuko ditu Korrikak Eskoriatzako kaleak, eta apirilaren 12an Korrika Txikia izango da.

Berritasunak Korrika Txikian
Herriko ikastetxetako Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako haurrek hartuko dute parte, eta, aurten, Arizmendiko Almen guneko DBHkoak eta Batxilergokoak ere izango dira. Hala, 10:00etan, Almendik –errepide– joango dira korrika Eskoriatzako Jose Arana zaharren egoitzaraino. Behin bertara iristean, txikienekin batuko dira.

Motorrak berotzeko ekintzak
Apirilaren 6an, Udaberritxotx! jaia izango da, Eingeinke antolatuta, eta, horrekin batera, Arrasate, Aretxabaleta eta Eskoriatzatik irtenda Murura mendi irteera izango da, *Makila eskuan eta ibili basuan* ekimeneko kideek antolatuta. Ir-



Iazko Udaberritxotx! jaiaren herriko lagun talde bat bazkaltzen. IMANOL SORIANO

Bigarren urtez ospatuko dute Udaberritxotx! jaia Eskoriatzan

Atzo, eguna, jarri zituzten herri bazkarirako txartelak salgai Inkernun eta Goxo Txikin, 15 eurotan

I.B ESKORIATZA

Eingeinke Kultura Elkarteko kideek bigarren urtez antolatu dute Udaberritxotx! jaia. Apirilaren 6rako egun osoko egitaraua prestatu dute, eta herri osoa elkartzeko eta euskara sustatzeko antolatutako ekimenak sargardoa izango du ardatz. Hori horrela, askotariko sagardo motak probatzeko aukera izango dute plazara joaten direnek.

Egitaraua honako hau izango da: 12:30ean hasiko da jaia, eta, hain zuzen ere, hainbat sagardo mota probatzeko postuak egongo dira, eta baita askotariko

gaztak ere. 15:00etan bazkaria izango da –entsalada, saiheskia eta postrea–; 18:00etan, berriz, aulki jokoa; eta 19:00etan, Kontuz Erromeria taldearen emanaldia.

Bazkarirako txartelak salgai

Atzo, eguna, jarri zituzten Udaberritxotx! jaiko bazkarirako txartelak salgai. Inkernun eta Goxo Txikin erosi daitezke, 15 eurotan. "Iaz, 230 lagun batu ziren bazkaritarako, eta aurten ere halako arrakasta izan nahiko genuke", adierazi dute antolatzaileek.

'Rita', umorez betetako antzerkia, domekan, Zaldibarren

Aitziber Garmendia eta Joseba Apaolaza aktoreek antzeztuko duten lana 19:00etan hasiko da

I.B ESKORIATZA

Txalo Produzioak-en eskutik *Rita* antzerkia ikusteko aukera izango da domeka honetan, Zaldibar antzokian. Emanaldia 19:00etan hasiko da, eta umorez betetako ikuskizunerako sarrearak 4 euro balio du; alde aurretik Manuel Muñoz kiroldegian erosi behar da –antzokian lekua baldin badago, saioa hasi aurretik erosi ahal da sarrearak antzokian bertan–.

Willy Russell da lanaren egilea, eta, Begoña Bilbao zuzendariaren gidaritzapean, Aitziber Gar-

mendia eta Joseba Apaolaza izango dira oholza gainean antzezten. Euskaraz izango da, eta adin guztiei zuzendutakoa.

Antzezlari honetan, unibertsitateko heziketa-eredu eta kontzertu guztiak hausten dituen irakasle mozortari eta anarkiko bat ageri da, Frank izena duena. Irakaskuntzarako dituen arau eta pautak guztiak hankaz gora joango zaizkio, herri txiki bateko neska bat bere eskoletara joaten hasten denean. Rita da neska hori, eta hura agertzeak Frank berpiztuko du.

Euskara ardatz, herrira hurbiltzeko egitasmoa

Eskoriatzako Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko 'Izokinen Biltzarra' ikasle taldeak eta Euskara Batzordeko kideek, elkarlanean, hiru egunerako egitaraua prestatu dute. Euskara ardatz, ikasle bizitza herrira hurbiltzeko asmoz

Imanol Beloki ESKORIATZA

Eskoriatzako Huhezi Unibertsitateko *Izokinen Biltzarra* ikasle taldeak *Ikasle euskaldunon kanpaldia* izeneko egitasmoa antolatu du, Euskara Batzordeak lagunduta. Hala, apirilaren 3rako, 4rako eta 5erako egitaraua zabaldu antolatu dute.

"Unibertsitateko ikasleok askotan entzun izan dugu duela urte batzuk gehiago nabaritzen zela ikasle bizitza herrian, eta horri buelta emateko antolatu dugu jaia. Gugandik sortuta, guretzat, eta baita Eskoriatzako herritarrentzat sortu dugu, jendea ezagutzeko eta esperientziak partekatzeko; betiere, ekintza guztietan euskara ardatz izanik", adierazi dute antolatzaileek.

Ekintza ugari hiru egunetan

Apirilaren 3an 11:00etan izango den txupinazoarekin emango diote hasiera jaiari, eta, horrekin batera, ezagutza jolasak izango dira, unibertsitateko ikasleen arteko harremanak sendotzeko. Bazkaria 13:00etan egingo dute, eta, horren ostean, Huhezi Akustikoak izango dira bazkalostea girotzeko. Bertan, Eskoriatzako eta Aretxabaletako unibertsitateko musikariek hainbat kantaren bertsiok joko dituzte. 16:00etan, sexologia tai-



Antolakuntza taldeko hainbat ikasle egitarauarekin. IZOKINEN BILTZARRA

lerra izango da, eta 18:00etan, Altsasuko gazteen gurasoek hitzaldia eskainiko dute. Egunari amaiera emateko, berriz, 21:00etan, afaria eta gaubeila egingo dute.

Eguena, egun handia

Apirilaren 4an, eguenean, berriz, herritarrengana hurbiltzeko eguna izango da. 09:00etan gosaldia, eta 10:30ean, transexualitatearen gaineko hitzaldia izango dute. 12:30tan, aldiz, Wikilari afrikarrekin solasaldia egingo dute eta 14:00etan, baz-

karia. Guztira, 150 pertsonak bazkalduko dute Huhez in bertan. Arratsaldean kalera moztortuta irteteko deialdia egin dute, eta 19:00etan, pintxo-pote musikatua egingo dute Eskoriatzako kaleetan barrena. Egunari amaiera emateko, 22:30ean, Kilimak taldearen kontzertua izango da, Inkernun –euskal rumba–.

Apirilaren 5a, egubakoitza, biharamun eguna izango da, eta honako hau izango da egitaraua: 10:00etan gosaria, 11:30ean berantolaketa tailer musikatua, eta amaiera ekitaldia.

Eskoriatzarrak sagardotegian

Eingeinke Kultura Elkarteak antolatuta, sagardotegira irteera egin zuten pasa den zapatuan. Aramaioko Unzueta sagardotegira joan ziren bazkaltzera herriko hainbat kuadrillatoko 40 gazte inguru, eta egun ederra pasatu zuten. Bapo bazkaldu ostean, irteerara batu ziren guztiek Arrasaten egin zuten geldialdia, parranda egiteko.



EINGEINKE KULTURA ELKARTEA



Iaz, Gatzagako jaietan, Nafarroa Kanta taldekoen emanaldia. NAFARROA KANTA TALDEA

Euskararen aldeko kantu-afaria izango da zapatu honetan

Leintz Gatzagako Korrika Batzordeak antolatutako kantu-afaria Nafarroa Kanta taldeak girotuko du

Imanol Beloki LEINTZ GATZAGA

Gatzagako Korrika Batzordeak antolatuta, kantu-afaria izango da bihar, Soran Etxean, Gatzagako hotelean, 21:00etan. Txartelak erosteko azken eguna gaur, egubakoitza, izango da, eta Labidean erosi daitezke, 30 eurotan.

"Hainbat urtetan bertso-afaria antolatu izan ohi dugu Korrikaren bueltan, baina aurrean, kantu-afariaren aldeko apustua egitea erabaki dugu. Izan ere, Nafarroa Kanta taldekoak herriko jaietan izan genituen, eta, bertan izandako arrakasta ikusita, berriz ekartzea pentsatu dugu. Horrekin batera, Korrika Gatzagatik pasako denerako prest ditugu suziriak, eta beste hainbat ekintza ere izango ditugu eguna iritsi aurretik, motorrak berotzen joateko...", adierazi du Joannes Mendizabalek, Kultura zinegotziak.

'Dantza' pelikularen proiektzioa

Apirilaren 6an, *Dantza* pelikularen emanaldia izango da Gatzagako elizan, 21:00etan. Euskal dantza tradizionalak ikuspuntu berritzailetik, doinu, estetika eta koreografia berriei islatutako filma Telmo Esnalek zuzendu eta Txintxua Films-ek ekoiztu du. Hori horrela, Telmo Esnal bera eta Marian Fernandez ekoizlea bertan izango dira hainbat azalpen ematen.

Zapatuko kantu-afaria eta apirilaren 6ko *Dantza* filmaren proiektzioa, Korrikako materiala salgai jartzeko ere aprobetxatuko dute.

Korrika Txikia, apirilaren 12an

Korrika apirilaren 14an pasako da Gatzagatik, 05:30 aldera; edozelan ere, aurreko egunerako, Korrika Txikia antolatu dute –apirilaren 12a–, eta 18:00etan hasiko da.

Gaztainuzketa mendi-etxeetan auzolana egingo dute

Zapatu honetan auzolana izango dute gatzagarrek Gaztainuzketa mendi-etxeetan. Ingurua txukuntzeko batuko dira, batez ere, bertara gerturatzen diren herri-tarrak.

"Zapatuan 09:00etan elkartuko gara, herriko plazan, eta handik Gaztainuzketara joango gara. Dozena bat lagun batuko garen aurreikuspena daukagu, eta

bertan, sastrakak kendu, belarra moztu eta mendi-etxe barruan dauden hainbat gauza aterako ditugu, besteak beste", adierazi du Juanito Bengoa alkateak.

Hori egiteko arrazoia da apirilaren 2an proiektuak aurkezteko azken eguna izango dutela errentan hartu nahi dutenek. Hala, ordurako ingurua behar bezala uzteko asmoz antolatu dute auzolana. Dagoeneko lau pertsona interesatu dira, eta, ikusten egon diren arren, ez du inork eskaerarik egin, oraingoz.



Erakusketaren inaugurazio aurkezpenean, Beñardo Kortabarria eta Juan Ramon Garai. MAIDER ARREGI

Gertatutakoa ahaztu ez dadin lan egingo dute

Frankismoak Antzuolan eragindako errepresioa isilpean egon da urte askoan. Orain, herritarren ezkutuko istorioak azaleratzeko asmoz, erakusketa antolatu dute. Ekimen horren asmoa da herritar talde bat sortzea gertatutakoa azaleratzeko eta kontatzeko

Maidar Arregi ANTZUOLA

Julian Zubillaga, Esteban Aranguren, Basilio eta Eburne Galarza, Jabier Ormazabal... isilpean urte askoan egon diren antzuolarren istorioak argitaratu dituzte Antzuolako Udalak eta Intxorta 1937 kultura elkarteak. Herrian frankismoaren aztarnak azaleratzeko, *Antzuolan ezkutututako historia* era-

kusketa jarri dute Olaranen; apirilaren 14ra arte dago ikusgai.

Zazpi paneletan jasota daude frontean hildako herritarren istorioak. Baina baita hainbat dokumentu eta informazio ere: espetxeko fitxak, emakumeen aurka egindako errepresioa, atxilotuen zerrenda, ihes egin behar izan zutenen eta langile batailoian parte hartu zuten

antzuolarren istorioak, besteak beste. Intxorta 1937 kultura elkarte kide Juan Ramon Garaik azaldu du garrantzitsua dela gertatu zena azaleratzeko, egun zabalik dauden zauriak ixteko eta egia guztia argitzeko. "Errepresioa oso basatia izan zen Antzuolan ere. *Gorri separatistak* deitzen zieten 130 antzuolar errepresaliaturen izenekin osa-

Bergararainoko bidegorria eskatzeko, bizikleta martxa

Apirilaren 6an, bizikleta martxa egingo dute Antzuola eta Bergara arteko bidegorriaren egoera ikusarazteko

Maidar Arregi ANTZUOLA

Herriak lotu, bidegorria amaitu lelopean, antzuolar talde batek bizikleta martxa antolatu du. Helburua bidegorriaren gaineko egoeraz informazioa ematea da: "Bizikleta martxa egingo dugu

Antzuolatik Bergarara, eta buelta. Bi udalei eta Diputazioari eskatu gura diegu bi herrien arteko bidegorria amaitu dezatela. Eta Antzuolako ur zikinen kolektorea ere egin dezatela. Martxa hau ahalik eta jende-

tsuena izan dadin, deialdia bergararrendako eta antzuolarrendako da. Izan ere, ezin da ulertu horrenbeste urtetako obra jasan ondoren eta diru mordo gastatuta, nola den posible bidegorria amaitu gabe geratzea eta Antzuolako ur-zikinak erre-kara botatzen jarraitzea". Martxa apirilaren 6an Antzuolako plazatik 11:00etan abiatuko da eta 11:30ean San Antoniora iritsiko da. "Bergarako udaletxera joango gara. Jai giroan, gorritz jantzita joateko dei egiten dugu".

Errepresioa jasan zutenen senideak



IXABEL ARANGUREN
ESTEBAN ARANGURENEN ALABA

"Memoria berreskuratzeko beharra geneukan herrian"

"Errepresioa jasan duen jendearendako oso beharrezkoa da Antzuolako memoria historikoa berreskuratzeko. Hildako jendearen memoria azaleratu izan da; baina beharrezkoa da bizi izan zirenen historia ere kontatzea. Aita Itxarkundia batailoiko kide izan zen eta Gursera joan zen, Pirinio Atlantikoaren bestaldera. Gero, Sarrancolin herriko baserri batean bizi izan zen. Familiarekin harremana izan dugu; 15 urterekin bisitan joan ginen hara. Oso hunkigarria izan zen".



BASILIO ORMAZABAL
EDURNE GALARZAREN SEMEA

"Oso emakume gogorra izan zen gerra sasoiaren"

"Nire ama 19 urterekin hasi zen irakasle gisa lanean. Harrapatu eta bi urte kartzelan eman zituen, ordea. Jaiotzez oñatiarra zen, baina bere aita, nire aitona, antzuolarra zen eta ezkotzean Antzuolan geratu zen. Nire aita ere gordinak pasatutakoa da gerra sasoiaren. Amak argi zuen irakasle gisa jardungo zuela, eta lortu egin zuen. Zazpi urtez Segovian jardun zuen irakasle lanetan. Gero, hona etorri zen eta inguruko herrietan ere irakasle gisa aritu zen. Euskaraz jarduten zuen, gainera, ikasleekin".

tutako zerrenda jaso dugu erakusketan. Baina askoz gehiago daude, seguru. Kolpista gisa kondenatuak izan zirenak, atxilotuak, milizianoak... Esan ere orain 80 urte kolpe militarra bultzatu zuten botere faktikoak banka, armada, goi klasea eta elizako hierarkia izan zirela; egun ere horretan ari dira Kataluniako kasuan, adibidez".

Antzuolako memoria historikoa Historia guztia berreskuratzeko, orain, Antzuolan talde bat sortu gura dute. Antzuolarrei parte

hartzeko dei egin gura die eta erakusketa, hain zuzen ere, helburu horrekin antolatu dutela aitortu dute Intxorta 1937 elkarteko kideek.

Antzuolan ezkutututako historia erakusketa 18:30etik 20:30era izango da ikusgai, Olaranen.

"ANTZUOLAKO 130 ERREPRESALIATUREN ZERRENDA JASO DUGU; SEGURU GAUDE GEHIAGO DAUDELA"

Emakumeak abiapuntu

Arrola mendi taldearen Mendi Astean, emakume kirolariak izan dira protagonista nagusiak. Martitzenean, Ane Hernani eskiatzaile elorriarrak bere bizipenak kontatu zituen *Expect the unexpected* ikus-entzunezkoarekin. Eta eguenean Silvia Trigueros mendi korrikalariak eskainitako berbaldian herritar ugari parte hartu zuten.





EH Bilduren Antzuolako hautagaien zerrenda osatzen duten herritarrak. AMAIA TXINTXURRETA

Zerrenda "gaztea eta esperientziaduna"

Hiru lagunek errepikatuko dute EH Bilduren Antzuolako hautagaien zerrendan: Beñardo Kortabarriak, Garazi Larreak eta Mikel Bargielak. Herri programa ia itxita daukate eta parte-hartze prozesuan jasotakoak oinarri izango dituztela esan dute

Maidar Arregi ANTZUOLA

Aurkeztu dute maiatzeko udal hauteskundeetarako Antzulako EH Bilduren hautagaien zerrenda. EH Bilduko alkategai Beñardo Kortabarriak azaldu du zerrenda osatu bat lortu dutela: "Nik uste dut zerrenda potente bat osatzea lortu dugula, oso jende gaztearekin, prestatuarekin, eta, horrekin batera, esperientzia daukan jendea ere sartu dugu taldean; alkate ohia, Inma Beristain, esaterako. Jende oso gaztea ere bai, eta guk gure ekarpena egingo dugu; azken lau urteetan hemen ibili gara gora eta behera, eta dezentetik ikasi dugu".

Hiru lagunek errepikatuko dute: Kortabarriak berak, Garazi Larreak eta Mikel Bargielak. Iaz egin zuten parte-hartze prozesuan jasotakoak hartuko dituztela oinarri moduan, eta euren proiektuak izan direnek ere isla izango dutela aurreratu du Antzuolako EH Bilduren aurkezpenean.

Programa, ia itxita

Herri programa ia itxita daukate; kontuan hartu behar da iaz egin zutela parte-hartze prozesu bat, irudikatzeko nolako Antzuola nahi zuten 2030erako, eta hori oinarri moduan hartuko dute. Euren proiektuak izan direnek ere isla izango dutela azaldu du Kortabarriak: "Aipatzeko modukoa da, adibidez, ongizatearen arloan erabakita daukagula Udalean egongo ez den jende multzo talde bat antolatzea, kanpokoak, nolabaiteko berdintasuna, justizia soziala, eta arlo horretan lan egingo duena. Gero, proiektu zehatz bat ere badaukagu; oinezkoen bidea egin nahi dugu Basalde auzora. Gaur egun, autoz baka-

PARTE-HARTZE PROZESUAN JASOTAKOAK OINARRI DITUEN PROGRAMA OSATU DU EH BILDUK

rrik joan eta etorri daiteke". Urretxurako bidegorria ere osatu nahi dute, nahiz eta ez den euren egitekoa, baina bultzatu egin nahi dute; Olan etxea irisgarri bihurtu nahi dute, besteak beste, eta lanerako gogoz daudela gaineratu du.

Zerrendako hautagaiak

Antzuolarrez osatutako zerrenda aurkeztu du EH Bilduk. Politikan esperientzia duten herritarrak eta berriak diren aurpegi gazteez osatu du EH Bilduk, besteak beste, zerrenda: Beñardo Kortabarria Olabarria, Garazi Larrea Zumelaga, Mikel Bargiela Iparragirre, Josune Martinez Ramirez de Okariz, Hodei Aranguren Irizar, Ion Aranguren Fernandez, Purita Arregi Alkorta, Iker Manso Igarza, Inma Beristain Aramendi, Igor Larrea Mendizabal, Maia Mondragon Etxaniz, Ramon Aldasoro Magunazelaia eta Juena Dornaletche Retola.



IMANOL SORIANO

Hurrengo urratsak egiteko

Mairuaren Alardeak bizi izandako berrikuntzek hamar urte beteko dituzte. Hala, epe horretan egindako lana eta lortutakoa herritarrei adierazi gura izan diete balorazio saioan. Lander Dominguez buruzagiak hau azpimarratu du: "Garrantzitsua da balioan jartzea; horregatik, hurrengo urratsak zeintzuk izan daitezkeen hausnartu gura dugu herritarrekin".

Urteko batzar orokorra egingo du Landatxoek

Landatxoek, Antzuolako erretiratuen elkarteak, urteko batzar orokorra egingo du apirilaren 6an, zapatua.

Lehen deialdia 16:30erako da eta bigarrena, berriz, 17:00etarako, Olan etxean.

Batzarrean landuko dituzten gaien zerrenda ere prest dute. Aurreko aktaren onespeneraren irakurketa egingo da lehenda-

bizi. Ondoren, 2018ko ekintzen memoria aurkeztuko dute; eta 2019an zehar erretiratuen elkarteak dituen aurreikuspenez ere jardungo dute.

Horrez gain, 2018ko memoria ekonomikoa aurkeztuko dute ostean, eta 2019rako ekonomia aurreikuspenak ere azalduko dituzte.

Urteko batzarrean hainbat informazio eta proposamen ere eskainiko dizkiete erretiratuei.

Zenbait batzordekide ere aldatuko dituzte.

GORA ETA BEHERA



A.J.

Zigarrokinak lurrean behin eta berriro

Herri Eskola aurreko haurren jolas-parke ondoko espaloiak zigarrokinez beteta daudela salatu gura du herritar batek. Errefusa botatzeko ontzia bertan dagoela gogorarazi gura du.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo 688 69 00 07.

Elkartearen norabidea aldatzeko lehen urratsak

Herrira zabalik dagoen elkarte nahi dute Ozkarbiko bazkideek, eta ekintzak antolatzeko asmoa agertu du zuzendaritzak. Hasteko eta behin, berri egin dute taberna-gunea eta bazkide gazteak erakartzeko espazio bat zabaldu dute

Larraitx Zeberio Lekuona ELGETA

Ozkarbi elkarteak gertu ditu taberna-gune berriak eta gazteendako egokitutako espazioa. Gaur astebate egin zuten irekiera ekitaldia eta antolatzaileak pozik dira izandako harrerarekin. Aldaketok elkartearen etorkizunaren inguruan egingandako hausnarketaren emaitza dira. Erabileraren jaitziera, bazkide gazteak egiteko zailtasuna eta elkarte gastronomiko huts bihurtzeko arriskua ikusita, norabide aldaketa beharrezkoa zela adostu zuten bazkideek. "Goian bazkide berriak erakartzeko gazteendako gune bat sortu dugu, eta egunero erabiltzen den taberna-gunea berri egin dugu, bazkideak eroso egon daitezela elkartearen", azaldu du Ozkarbiko presidentek Oxel Erostarbek.

Tabernaren gunea margotu eta argiztatu egin dute, eta altzari berriak ipini dituzte. Barrako tresneria ere berria da.




Unai Cantabranaren saioa Ozkarbiko gune berrien irekiera ekitaldian. L.Z.L.

Txoko batean, gainera, agertoki lanak egingo dituen maila bat ipini dute; izan ere, urtean zehar ekintza batzuk antolatzea da asmoa. Hain zuzen ere, Ozkarbi elkarte zuzendaritzak hainbat batzar egin ditu herriko talde

eragileekin azken asteotan. Unai Cantabrana izan da lehenengoa agertoki hori erabiltzen.

Bertso afaria apirilaren 12an
Apirilaren 12rako iragarri dute etapa berriko lehen hitzordua.



Gazteendako egokitutako espazioa. L.Z.L.

Gazteendako gune berria ere zabalik

13-18 urte bitarteko gazteendako espazioan, bi mahai, sofak, esertzeko *puf*-ak, telebista eta jostailuak daude. Komunak eta Internet konexioa ere baditu. "Aurrerantzean, gazteek sekzio bat izango dute elkartearen. Oraingoz, hor dute espazio bat, eta joango dira erabakitzen zer-nolako jarduerak egin nahi dituzten", esan du Erostarbek. Egitasmo horretan bat egin dute elkarteak bazkide gazteak erakartzeko duen beharra eta gazteek eroso egoteko duten espazio baten premia. "Gazte batzuk hasita daude Bergaran lokalak hartzen eta herrian aukera hau egotea interesgarria izan daitekeela uste dugu". Edozeinek egin dezake erabilera eskaera. Giltza jasotzen dute Ozkarbiko bazkide izateko eskaera egiten dutenek. Ideia da erabiltzaileek bazkide ekarpena mailakatuta ordaintzea eta 18 urte betetzerako osorik ordainduta edukitzea.

Korrika batzordeak antolatuta, elkartearen egingo dute Korrikaren aldeko bertso-afaria. Onintza Enbeita eta Sustrai Colina izango dira bertsoetan. Txartelak salgai daude Haizea eta El Rincon de Lola tabernetan.

BERTSO-AFARIRAKO TXARTELAK HOGEI EUROKO PREZIOAN DAUDE SALGAI APIRILAREN 8RA ARTE

"Dantzan egiteak aktibo mantentzen zaitu, bizipoza da"

ESTITXU BRAVO ARETOKO DANTZETAKO IRAKASLEA
Taldea sortu da Elgetan eta martitzenetan elkartzen da

L.Z.L. ELGETA

Aurreko astean egin zuten lehen saioa eta hamar bat lagun elkartu ziren. Herrian talde polita sor daitekeela uste du Bravok. **Nolatan aretoko dantzen ikastaroa Elgetan?** Lau bat interesatu zeuden eta saiakera egitea pentsatu genuen. Eguna eta ordua ipini genituen eta sorpresa polita izan da; izan ere, hamar bat lagun elkartu ginen lehenengo saioan.

Zein dantzarekin hasi zarete?

Boleroaren oinarriko pausoekin hasi gara. Erraza da boleroa.

Dantza gehiago ikasteko aukera izango da ikastaroan?

Noski! Elkartzen den jendearen arabera aukeratuko ditugu, baina ikas daitezke koreografia solteak, bachata, txa-txa-txa, merengea, saltsa... Asmoa da denetik lantzea apur bat.

Noiztik zabilta zu horrelakoetan?

Zortzi urte dira nintzela. Lehenengo, eskolak jasotzen; gero, irakasle dabilen bati laguntzen; eta orain, eskolak ematen. Eibarren ditut hiru talde eta asko gustatzen zait. Ikasten ere jarraitzen dut!



Estitxu Bravo. L.Z.L.

Interesatuak zer egin behar dute?
Probatzera etorri behar dute. Saiok kiroldegiko gimnasioan egiten ditugu, 20:30ean. Udalak uzten digu espazioa eta kuota txikia ipintzeko aukera ematen digu horrek: hilean 15 euro.



ELGETAKO UDALA

Argiteria eta margotze lanak

Elgetako Udala hainbat lan egiten ari da egunotan. Zebra-bideak margotu dituzte Pagatza industrialdean eta aparkalekuak margotzen dihardute Berraondokoan. Horrekin batera, argiteria berri egin dute hilerrian. Led bidezko bederatzi farola ipini dituzte kanposantu inguruan aurretik, zeuden sodio lurrinezkoak ordezkaturak.

"Dantzarako abestu egiten dut, gehienbat"

JOAN FRANCES TISNER KANTARI ETA MUSIKARI GASKOIA

Gaskoiniako jauziak, branleak, 'rondeaux'-ak eta kontradantzak ezagutzeko aukera izango da, domekan, Herrixa Dantzan saioan. Aditu batek ekarriko ditu, gainera

Larraitz Zeberio Lekuona ELGETA

Ibilbide luzea du Joan Frances Tisnerrek (Biarno, 1954) musika tradizionalan. Gaskoia da eta bertako dantzak eta musikak ekarriko ditu domekan Elgetara. Dantza tailerra eskainiko du 17:00etan eta dantzaldi gaskoia 19:00etan.

Kolaborazio asko egiten dituzu Euskal Herriko taldeekin. Zapatuan, esaterako, Iruñean izango zara eta domekan Elgetan. Gustuko dituzu horrelako trukeak?

Oso garrantzitsua da elkar ezagutzea. Dantza eta musika tradizionala komunikazio tresnak dira. Batzuetan, ez dugu aldamenekoaren hizkuntza ezagutuko, baina dantzan hasi eta elkar ezagutzera helduko gara. Egin ditut elkarlanak Euskal Herriko, Kataluniako, Italiako zein Alemaniako jendearekin, eta oso aberasgarria izan da.

Artzaintza oinarri hartuta baduzu proiektu bat esku artean, ezta?

Bai, *Tralhaires* du izena eta Falces herrian estreinatuko dugu maiatzaren 4an. Hor gabiltza Gaskoiniako Lo Nau konpainia, Iruñeko Ortzadar Folklore Elkartea eta Oiartzungo Soinuenea Fundazioa. Iruñean, Oiartzunen eta Oloronen ere emango dugu. **Elgetan egitekoa duzun saioaren inguruan zer esango zenuke?**



Joan Frances Tisner. HERRIXA DANTZAN

"DANTZA ETA MUSIKA TRADIZIONALA ELKAR EZAGUTZEKO KOMUNIKAZIO TRESNAK DIRA"

Gaskoiniako dantzen inguruko tailer txiki bat egingo dugu lehengo, eta gero, *bal gascon* edo dantzaldi gaskoia.

Zer-nolako dantzak dira?

Biarnon jauziak ditugu, eta branleak ere bai. Jauziak muxikoen

familiakoak dira. Landetakoak dira, berriz, *rondeaux* edo sokan egiteko dantzak eta kontradantzak. Ia desagertutako dantzak dira, talde txikietan mantendu eta berreskuratu direnak.

Musika gaskoiaren inguruan zer esango zenuke?

Soka-danbolina edo tuntuna jotzen dut nik, baina, gehienbat, abestu egiten dut dantzarako. Eskuekin eta oinekin egindako soinuekin ere egiten dut musika. Gaskoiniako musikan, biolina, akordeoi diatonikoa edo soinu txikia eta zanfona ere baditugu.

Artista liburuak sortzeko tailerra, gaur, Udal Liburutegian

Irudimena eskulangintzarekin lotuko duen saioa ondotik etorriko den ekintza sortaren abiapuntua izango da

L.Z.L. ELGETA

Gaur, barikua, artista liburuak egiteko eskulan tailerra egingo dute Udal Liburutegian. Saioa 17:00etan hasiko da eta neska-mutikoei bakarrik edo heldu batekin parte hartzeko aukera izango dute. "5 urte bitarteko txikitxoek heldu batek lagunduta etorri beharko dute", adierazi du Udal Liburutegiko arduradun Geaxi Ezpeletak.

Izena emateko eskaera egin zuen Ezpeletak, eta martitzenerako arteko epea ipini zuen. Azken orduko interesatuek galdetu egin beharko dute lekurik gelditzen den edo ez.

Ekintza gehiago apirilean

Apirilean ospatzen diren Haur Liburuaren Egunaren eta Liburuaren Egunaren harira, beste hainbat ekintza iragarri ditu liburutegiak datozen asteetara-



Artista liburuaren tailerra, izaz. L.Z.L.

ko. Horien artean daude artista liburuaren lehiaketa, Hitzez Pitz literatura solasaldiak, Ipuinen Ordu berezia edo eskolako umeen bisita gidatuak liburutegira. Apirilaren 12an, berriz, Sorgina Pirulinak ipuin musikatuak kontatuko ditu plazan, 17:00etan.

Eguaztenean hasiko da umeendako euskal dantzen ikastaroa

Aurten ere Irati Kortabitartek eta Xabat Leanizbarrutiak gidatuko dituzte saioak, eta helburua da Ferixa Nagusiko jaietako emanaldia prestatzea. Saioak eguaztenean izango dira, Espaloian, eta bi talde osatuko dituzte: 2014tik 2010era bitartean jaiotakoak 18:45etik 19:30era elkartuko dira eta 2009tik aurrerakoak, 19:30etik 20:15era.

Seigarren mailakoek antolatutako zozketak badu irabazlea

Zenbaki saritua 6.445 da, eta zozketako antolatzaile diren seigarren mailako ikasleen gurasoek jakinarazi dute Ander Ugalde beasaindarrak jasoko dituela binakako pilota txapelketako finalerako bi sarrera eta 200 euro. Zozketa ikasturte amaierako ikas-bidaia ordaintzeko antolatu zuten, eta denen parte hartzea eskertu dute.

Zabalik da frontenis txapelketarako izen-ematea

Elgetako frontenis taldeak antolatuta, maiatzeko lehen hiru aste bukaeretan jokatu dute. Izena emateko, interesatuek frontiselgeta@gmail.com helbidera idatzi behar dute, apirilaren 18rako. Prezioa 10 euro da bikoteko. Hiru modalitate daude aukeran: emakumezkoak bikoteka, gizonezkoak bikoteka eta 16 urtetik gorakoak.

OHARRAK

Bisita antzeztua

Zapatuan, bisita gidatua Intxortako ibilbidera. Irteera 10:30ean, plazatik.

Korrika batzordea

Apirilaren 4an, batzar irekia udaletxean, 18:00etan.

Jaietako kartela

Udaleko Jai Batzordeak kartel lehiaketa deitu du. Oinarriak Elgeta.eus atarian.

Dantzaldi gaskoia, domekan, Elgetan

Herrixa Dantzan ekimeneko gidari Patxi Monteroren esanetan, beste sonoritate eta dantza batzuk ezagutzeko aukera emango du domekako saioak. "Tisner ibilbide luzeko pertsona da eta ekarriko ditu lpar Euskal Herriko pixka bat haragoko dantzak eta musikak. Ikuspegia zabalduko dugu eta konturatuko gara dantza sistema oso baten parte garela".



Urtarrilean Alboka taldeko Joxan Goikoetxearekin egindako saioa. I. SORIANO



Zubietak kalean martxoaren arratsalde batean ateratako argazkian, puntako ordua izan barik. JOKIN BEREZIARTUA

Urbanistikoki XXI. mendea ezagutu gura du Zubietak

Zubietak kalean urte luzez esku-hartze urbanistiko handirik izan ez dela eta ibilgailuen joan-etorri handia aintzat hartuta, irisgarritasun eta segurtasun aldetik gabezia nabarmenak ditu ardatz osoak; auzokideek proiektua exekutatzeko epe bat zehaztea eskatzen dute

Jokin Bereziartua BERGARA

Bergarako gunerik degradatuen artean dago Mugertza, Zubietak eta Masterreka arteko ardatza, herriko sarrera eta irteerarako bide nagusietako bat dena. Zirkulazio-fluxua zehazki zenbatekoa den ikertzeke dute Udalean, duela gutxi abiatu zuten mugikortasunaren gaineko diagnostikoaren emaitzen zain daude eta. Hala ere, goizetako zein iluntzetako puntako orduetan izaten den zirkulazio-fluxua, auzotarren arabera, "oso handia" izaten da, eta, horri kaleak irisgarritasun eta segurtasun ikuspegitik dituen gabeziak gehituz gero, berritzeko behar handia duen gune bihurtzen du.

Zubi barik, gabeziak azaleratu

2018ko irail bukaeran hasi eta 2019ko otsailaren 11n amaitu ziren zubi zaharra berritzeko lanek are agerikoago egin zituzten Zubietak dituen beharrak, zubi hori auzotarrentzat egunero pasabidea da-eta erdigunera joateko. "Zubiko obrek iraun duten bitartean estres maila bai handitu da, zubiak egiten zigun biriki lana galdu egin dugulako. Guztiok pasatu behar izan dugu espalo beretik: Udaleko langileak euren makinekin, eskolara doazen ume-kotxeak, semaforoa saihestearren espaloira igotzen ziren bizikletak...", dio Zubietak kaleko auzokide Jose Sanchezek. Zubia nola geratu den galdetuta,

zapora gazi-gozoarekin geratu dira: "Auzotarron balorazioa da entzun ditugun balorazio gehienekin ados gaudela. Hau da, polita dagoela eta berritzeko beharra zuela argi dago. Eta ados gaude ere esaten dutenekin amaieran jarri duten txapa horrekin ez daudela gustura. Ez dela polita eta puntu itsuak eta arriskutsuak sortzen dituela; izkinan duen 90 graduko angeluko eta metro bateko altueran espaloira ematen duen txapa horrekin min har daiteke", dio auzokideak. 2001a ezkerreko bizi da Sanchez Zubietak kalean eta azaldu du bertan bizi denetik bizi izan duen esku-hartze bakarra zubi berritzearena izan

Idatzita, baina exekuziorako epe barik



Lehen fasea: zazpi zebra-bide altxatu daude jasota, besteak beste. BEB



Bigarren fasea: espaloiak metro eta erdiko zabalerakoak, ahal den tokietan. BEB

Bi fase Udal Gobernuak 2016ko udaberrian batzartu zen Zubietako bizilagunekin euren ekarpenak jasotzeko. Proiektu bat aurkeztu zuten, eta hor, besteak beste, zehazten zen ahal zen toki guztietan gutxienez metro eta erdiko zabalerako espaloiak jarriko zirela eta errepidearen eta espaloien artean zortzi zentimetroko aldea legokeela, garajeetarako sarbideak hobetzeko. Auzotarrentzat behar urgenteen espaloiak zabaltzea zen. Proiektua idatzita dago orduan, baina exekuziorako zubiari eman zitzaion lehentasuna. Auzotarrek zubiko lanak exekutatzeko Udalak Jaurilaritzan eskatu dituen dirulaguntzak bi fase horietarako ere eska daitezkeela diote; irisgarritasuna eta gune historikoa balioan jartzearekin lotutako dirulaguntzak, hain justu.

Masterrekako sinadura bilketa

Zubietatik Bolura bidean dagoen Masterreka kalearen egoerarekin kezkatuta, bizilagun talde batek 150 bat sinadura batu eta Udalean erregistratu zituen otsailaren 22an. Alkatearekin batzartu ostean aurkeztu zuten kexa Udalean: "Aspalditik jasaten ditugu Bolura doazen ibilgailu guztien joan-etorriak, eta gehiegizkoak dira kalearen zabalerarako. Zarata ere handia da; bereziki, puntako orduetan". Arrisku "egoera handiak" bizi izaten dituztela diote: "Espaloiak estuegiak dira, eta labainkorak, deserosoak. Ibilgailuen joan-etorri handiarekin eta espaloia estuekin, arrisku egoera handiak bizi izaten ditugu; batez ere, umeekin eta adineko pertsonekin". Udal ordezkariak arazoak aztertzeke eta konponbideak aurkitzeko eskatu diete, eta aurreratu dute, Zubietan egiten ari diren moduan, "etorkizun batean" auzo batzorde bat eratzeke nahian dabilzala.



Ibilgailu bat Masterrekan. J.B.



Infernukua ondoan bidegurutzera egiteko eraiste lanak, 2005eko apirillean. GOIENA

dela. Hain zuzen, 2016an, Zubieta berritzeko urbanizazio proiektua aurkeztu zien Gobernuak auzokideei. "Aurreko agintalditik zetorrela ikusita ulertzen genuen udalbatzaren %90 luze baten babesu zuela proiektuak, eta, beraz, oso pozik hartu genuen. Lantaldeetan egin genuen lan eta argi geratu zen auzokideon lehentasunak espaloiak zabaltzea zirela", gogoratzen du Sanchezek.

Espaloien egoeraren inbentarioa Ordutik, inbentario bat egin dute Zubieta kaleko espaloiak metroz metro aztertuta: tamaina guztietako 150 zulo daude, sei puntutan 80 zentimetro baino estuagoa da espaloia, 19 arketa, hiru maila aldaketa, duela 40 urte moztutako 306 burdin-arrasto... Kamioien joan-etorria ere ohikoa zenean, espaloiak babes-teko asmoz, burdin zatiak jarri ziren ardatz osoan zehar duela 40 bat urte. Hala ere, denbora-rekin apurtzen joan ziren zati horiek oinezkoendako arriskuak zirela ikusita, kendu egin ziren. Oraindik ere zati horien arrastoak geratzen dira, urte luzeetan esku-hartzerik izan ez duten espaloiak diren seinale.

"PARKINGEKO LANAK ONDO JOAN ARTE, EZIN DA OBRA HANDIRIK EGIN ZUBIETAN"

ELENA LETE, BERGARAKO ALKATEA

Infernukua ondoko bidegurutzera Zubieta kalean ez, baina Masterrrekan, Infernukua tabernaren ondoan, 2005ean etxebizitza batzuk bota ostean egin zen bidegurutze berriak lagundu du, hein baten, Bolurako zirkulazioa erdialdera ere banatzen. Gogoratu behar da, hala ere, obra hori egin aurretik auzokide bat hil egin zela, kamioi bat espaloira igo eta bertan harrapatuta. "Guztion buruan egon beharko litzateke gertaera hura eta neurriak hartu beharko lirateke erreplikatu ez dadin", dio Sanchezek.

Garai bateko zirkulazioa arindu egin bada ere, Masterrreka kaleko bizilagunak duela aste batzuk elkartu ziren alkatearekin, aditzera emateko kalearen egoerarekin kezkatuta daudela eta bertako zirkulazio-fluxurako estuegia dela; 150 sinadura erregistratu zituzten Udalean otsailaren 22an.

Parkingarekin, "obra handirik ez" Udaleko talde politiko guztiak bat datoz Mugertza eta Masterrreka arteko tartea berriro urbanizatzeko duen beharraz. Udal Gobernuaren arabera, "ukaezina" da hori, eta, Zubieta bizilagunen eskaerak aintzat hartuta badituzte ere, seminarioko parkingak zuzenean eragingo dio ardatz horretan "obra handi bat" egiteko asmoari: "2019an seminario azpiko aparkalekua egingo genuela esan genuen eta hori izango zela lehentasuna. Obra honek

Elkartea sortzeaz dute, konpromiso eske

Azken bost hilabeteotan, askotan batzartu dira Zubieta kaleko auzotarrak, eta, orain bertan, elkarte bat sortzeko lanetan ari dira buru-belarri. "Orain arteko gure hausnarketekin jarraitu gura dugu eta auzorako proiektua egin dadin edozein forotan laguntzeko prest egongo gara elkarte moduan. Bitartean, auzoa sufritzen ari den degradazio urbanistikoa salatzen segituko dugu", diote. Elkarte sortzeko auzotarrengandik jasotako hiru kontzeptu lehenetsi dituzte, pertsonekin zuzenean lotura dutenak: irisgarritasuna, babesu eta prebentzioa.

Irisgarritasuna eta segurtasuna Irisgarritasunari dagokionez, espaloiak berritzea eta zabaltzea dira behar nagusiak: "Bada garaia Zubieta kaleko espaloiak XXI. mendera ekartzeko. Auzotar guztiok gaude buru-belarri sartuta gure etxeen azterketa teknikoak egiten eta laster denok egongo gara obretan gure etxeen egiturak, teilatuak, balkoiak eta



Sofia Gimbert, Loitsune Amesti, Aitor Garitano eta Jose Sanchez. GOIENA

leihoak konpontzen, gure segurtasuna eta etxe azpitik pasatzen direnena bermatzeko; horretara behartzen gaitu legeak. Hala, uste dugu Zubieta kaleko espaloiek pasatu beharko luketela azterketa tekniko hori; kontua da ez dagoela legerik udal bat horretara behartzen duena". Horrez gain, arreta berezia behar duen kolektiboa ere aipatu dute: "Gure auzoa horren txikia izanda ere, 100 bat auzotar 60 urtetik gorakoak dira edota ezgaitasunen bat dute".

Beste arazo bat da segurtasunarena, ibilgailuak "azkarregi" doazela irizita: "Proiektuko zazpi zebra-bide altxatuak egitea eskatzen dugu, zirkulazioa moteltzeko".

Lankidetzarako prestutasuna "Edozein forotan" proiektua gara dadin lanean jarraituko dutenez, Zubieta kaleko Udaleko talde guztiekin eta antzeko egoera bizi duten ondoko kaleetako bizilagunekin lankidetzan aritzeko "prestutasun osoa" dute.

Ibargarai neurri handi batean baldintzatuko duenez, ezinbestekoa da herriko beste sarrera guztiak libre egotea; Zubieta tartean. Horregatik, aparkalekuko lanak bide onean joan arte, ez da momentua Zubieta obra handirik egiteko", esan du Elena Lete alkateak. Horrekin batera, Lete aurreratu du beste zenbait gune berriro urbanizatzeko proiektuak idazten ari direla; esaterako, Simon Arrieta plazan, Matxiategin eta Martokoa. "Martokoa, auzotarrak eurak etorri dira hobekuntzak eskatzera eta guztion artean ari gara horiek guztiak lantzen".

Epeak zehazteko "konpromisoa" EH Bilduk gogora ekarri du 2015eko hauteskunde-programan jaso zutela Masterrreka eta Mugertza arteko tartearen eraberritzea. "Irisgarritasun eta segur-

"BERRITZE LANAK NOIZKO EGINGO DIREN JAKIN BEHAR DUTE HERRITARREK"

GORKA ARTOLA, EH BILDU

tasun aldetik gabezia handiak daude eta horri irtenbide bat eman behar diogu. Inbertsio altuak eskatzen dituen esku-hartzea da, baina Gobernuaren egonez gero baliabide horiek lortzeko ahalegina egingo dugu. Hala ere, badaude herrian berritzeko beharra duten beste gune batzuk; herriko inguru hau Bergarako sarrerarirteera arteria nagusietako bat da gaur egun eta dagoen arazoari osotasunean erantzun behar zaio, ezin da petatxu batekin arazoa betikotzea onartu; herritarrek berritze horiek noizko egingo diren jakin behar dute eta plangintza hori garatzeko konpromisoa dugu", adierazi du Gorka Artolak. EH Bilduk ere identifikatuta ditu herrian berritzeko beharra duten beste gune batzuk; Osintxu eta San Antonio-Zubieta ingurua aipatu dituzte, besteak beste.

Dagoenetan, "etorkizunik ez" Irabaziren ustez, "guztiz degradatuta" dagoen gunea da Zubieta. "Ibilgailuek hartzen dute espazio gehien. Oinezkoak ez dabilta seguru eta komertzioa ere ia desagertu egin da guztiz.

Orain dagoen bezala Zubieta-Mugertza ez dauka etorkizunik, dio Aiert Lizarralde. Gainera, ibilgailuentzat kalea noranzko bakarrek egiteko aukera planteatu du Irabaziko zinegotziak: "Bizilagunekin parte hartze saioak egingo genituzke, jakiteko etorkizunean kaleak autoentzako bi norabide izan behar dituen edo bakarra. Lehen aukerak orain dagoen egitura mantentzea ekarriko luke eta bigarrenak oinezkoentzako eta bizitza garatu ahal izateko espazio gehiago irabaztea".

Taberna eta ile-apaindegi bat Auzoaren egoerak, beste hainbat faktoreekin batera, eragin du Zubieta kaleko komertzio txikia ia desagertzea. Garai batean, dendak eta tailerrak zeuden, baina, egun, Cazadores taberna eta ile-apaindegi bat bakarrik daude.

"NORABIDE BAKAR BATEKIN, BIZITZA GARATZEKO ESPAZIOA IRABAZIKO LITZATEKE"

AIERT LIZARRALDE, IRABAZI

Soraluce egonkortu, eta Lidl bat San Lorentzon

Soraluce enpresaren proiektua Mekolalden eta Osintxun errortzeko eta Lidl supermerkatu bat San Lorentzon zabaltzeko akordioa behin betiko onartu du udalbatzak, Gobernuaren aldeko botoekin, EH Bilduren abstentzioarekin eta Irabaziren kontrako botoarekin

Jokin Bereziartua BERGARA

Bi hitzarmen onartu zituzten martxoko ohiko osoko bilkuran. Batetik, Ernai kalean "laster" irekiko den eguneko zentrorako hirigintza-hitzarmen bat onartu zuten; etxebizitza horien forman eta izaeran aldaketa bat egitea eta kontraprestazio moduan eguneko zentroa Udalak bertan egiteko aukera jasotzen du akordioak, besteak beste.

Orain arte Boni Laskurain kalean egon den eguneko zentroak 25 plaza zituen eta berriak 35 izango ditu. Udal Gobernuaren proposamenaren alde bozkatu zuen EH Bilduk, "erantzukizun ariketa bat" delako, eta Irabazik kontra bozkatu zuen Gobernuaren etxebizitza ereduaren aurka daudelako: "Non dago muga? Orain, 900 etxe huts daude... Nora heldu behar dugu konturatzeko hau ez dela bidea, 1.500 etxe huts izatera?", galdegin zuen Aiert Lizarralde. Alkateak eztabaida beroa izan zuen Lizarralderekin gai horren harira. "Halako hitzarmen baten kontra bozkatzeak, eta hori egin du Irabazik, esan gura du Udalak ordaintzen diola sustatzailerari diru kopuru bat hori [eguneko zentroa] ez egitearren, eta ez dut uste Udalak hori egin behar duenik", deritzo Letek.

Soraluce, behin betiko izaeraz

Soraluce enpresarekin adostutako hitzarmenari behin betiko onarpena eman zioten bilkura berean. Hitzarmen horri esker, Soraluce enpresaren proiektua Mekolalde eta Osintxun egonkortu egingo da eta San Lorentzoko gaur egungo lantokian Lidl supermerkatu bat irekiko dute. EH Bilduk ez du begi onez ikusten merkataritza-gune berri bat bertan egokitzea, baina Soraluceren plan estrategikoa Bergaran egonkortzea albiste ona da euren dako. Horregatik abstenitu ziren. "Berba egin



San Lorentzoko egungo Soraluceren lekuan Lidl supermerkatu bat jarriko dute. GOIENA

BERDINTASUNAREN ALDEKO EKINTZAK GARATZEKO LAGUNTZA LERRO BERRIA ATERA DUTE, 6.000 EUKOKA

dugu Bedelkarrekin eta pertsonalki egon gara Soralucerekin. Enpresaren partetik jaso dugun informazioarekin, ikusi dugu plan estrategikoa garatzeko oso inportantea zela hitzarmen hau sinatzea. Horregatik, ezin genuen hitzarmena oztopatu. Hori bai, merkataritza-gune handi berri bat jartzea ez dugu begi onez ikusten, ez da gure eredia".

Irabazik kontra bozkatu zuen, hitzarmena Gobernuaren eta enpresaren artean bakarrik landu delako. "Alde bakarreko erabakia izan da. Guk ez dugu ezertan parte hartu, eta hori ez zaigu batere gustatzen; ez gaude San Lorentzon merkataritza-gune berri bat jartzearen alde".

Alkateak ez du ulertzen hitzarmen horren kontra bozkatzea edota abstenitzea: "Abstentzioa ere ausardia falta da. Soraluce enpresa Bergarako aktibo eko-

nomiko oso inportantea da; ehun familiarik gora bizi dira enpresa horri esker. Horren aurrean ezin da abstentzio bat aurkeztu".

Berdintasunerako lerro berria

Udalak "lehen aldiz" atera du berdintasunaren aldeko ekintzak eta programak garatzeko dirulaguntza lerroa. Asteleheneko osoko bilkuran onartu zuen udalbatzak aldaketa egitea 2019tik 2021rako dirulaguntzen plan estrategikoa; EAJren eta PSE-EEren aldeko botoekin, Irabaziren kontrakoarekin eta EH Bilduren abstentzioarekin onartu zen.

6.000 euroko partida bideratu dute lerro horretara; zuzenduta dago irabazi asmorik gabeko elkartei beti ere egoitza soziala Bergaran badute eta herrian genero-berdintasunarekin lotutako jarduerak gauzatzen badituzte. Era berean, laguntza hauen onuradun izan daiteke Bergarako kolektibo edo herritar talde bat, berdintasunarekin lotutako ekintza edo programa bat antolatzeko elkartzan bada. "Herrian berdintasuna bermatzeko pauso berritzailea izatea espero dugu", dio Gobernuak.

Erabilitako xiringak agertu dira herriko hainbat gune publikotan

Xiringarik ikusiz gero ez ukitzeko eta Udaltzaingora deitzeko (092) eskatu dute; eragileekin lanean ari direla adierazi dute

J.B. BERGARA

Udalak jakinarazi du azken hilabeteotan herriko hainbat leku publikotan agertu direla erabilitako xiringak. Halakorik aurkituz gero ez ukitzeko eta Udaltzaingora deitzeko eskatu dute, 092 telefono zenbakira; udaltzainek jasoko dituzte xiringak. Bestalde, norbait horietako xiringa batekin zizatutako balitz anbulatoriora joateko eskatu dute. Udalaren arabera, egiaztatuta dago Bergaran xiringen bidezko drogen kontsumoa gutxiengo dela beste droga kon-

tsumoekin alderatuta. "Udalaren kezka bikoitza da, egungo umeek eta gazteek ez dituztelako bizi izan heroinaren kontsumo handiko garaiak eta xiringekin zizatutako izan ditzakeen arriskuen gaineko ezjakintasuna izan dezakete. Hala, Udala, Udaltzaingoa, Ertzaintza eta herriko osasun eragileak elkarrekin lanean dabiltza. Xiringak batzeko prozedura martxan jarri da, eta ikastetxeen bitartez adin txikiko gurasoei eta ikasle nagusiagoei honen gaineko informazioa ematen gabilta", gaineratu dute.



GOIENA

2.000 euro ostu, kristala hautsita

Eguazten goizaldean, lapurreta izan zen Labegaraietako tabernan. Kiroldegi atzealdeko emergentzia ateetatik sartu, eta kristal bat apurtu ostean sartu ziren tabernara. Lapurrek 2.000 euro inguru ostu zituzten. "Sei urte daramatzat hemen lanean eta jasaten dugun lehen lapurreta da", adierazi dio GOIENARI tabernako arduradunak. Ertzaintzaren ikerketa zabalik dago.

OHARRAK

Alcasserko krimenaren gaineko liburua, gaur

Martxanterek eta Angiolillo liburutegiak antolatuta, *Microfísica sexista del poder* liburua aurkeztuko dute gaur kartzela zaharrean (18:00). Nerea Barjolak Alcasserko krimenari esanahi berria eman dio liburu horretan, emakumeen bizitzarako garrantzi handia duen kontakizun politiko gisa aurkeztuta.

Erramu Zapatu bezperako bertso jaialdia

Andoni Egañak, Amets Arzallusek, Miren Artetxek, Nerea Ibarzabalek, Alaia Martinek eta Aitor Bizkarrak abestuko dute apirilaren 12an Seminarixoa (22:00) egingo den bertso saioan. Sarrerak salgai daude (<https://ticket.kutxabank.es/janto/>); agortzen ez badira, ordubete lehenago erosi ahalko dira leihatilan.

Imanol Beloki BERGARA

2016an Bergarako Udalak abiarazi zuen Ideia Lehiaketan jasozen Goiko Estazioko eremuari balioa emateko nahia eta txiki-entzako balia bideak jartzearena. Eskaera onartuta, askotariko gune bihurtzeko obrak aurten hasiko dira.

Oinarrian, goiko estazioa biziberritzea da lan horien helburua. Herriko gune sinbolikoa da, naturarekiko kontaktu zuzena bermatzen duena, herritik gertu dagoena, eta bertan dauden Bergarako ikuspegi paregabeak probetxua atera gura zaie. Hori horrela, oraingoz, egoera utzian zegoen gunea garbitu, bertan hainbat landaketa egin, eta Masterreran gora doan bidean argiteria egokia jarri dute.

Goiko estazioko eremua biziberritzeko lanak, aurten

555.159 euroko lizitazio aurrekontua izanda, faseka egingo dituzte lanak. Beraz, lehenengo fasean, hauek egingo dituzte: lurra lau jarri, drainatzeak egin eta zoladura jarri; eta umeendako jolas jokoak egin nahi dituzte. 79.792 euro daude aurreikusita

Aurtengo lanetarako 78.792 euro

Fasetan banatuta egin nahi dituzte eta aurten egingo liratekeen lanen artean daude lurra lau jartzea, zoladurak egitea eta umeendako jolasguneak egokitzea. Horretarako, 79.792 euro daude aurreikusita.

Proiektu osatua idatzita

Begarako Udal Gobernuak askotariko lanak ditu aurreikusita gune horretan, eta honako hauek dira egingo diren hobekuntzak: oinezkoendako bidea eta bidegorria banatzea –bidegorria trenbidetik joango litza-

teke-, iraganean egon ziren eraikinen erreferentzia fisikoa egiteko seinaleak eta marrazketa, musika lokalen alboan autontzat sarbidea eta aparkalekuak jartzea; informazio panelak jartzea; bi ur iturri instalatzea; piknikerako mahaiak eta jarle-

kuak ipintzea; umeendako bi jolas gune sortzea; txakurrekin ibiltzeko gune bat; begiratoki-gune bat; komun publikoak; argiteria ezartzea; bizikletendako aparkalekuak; eta zaborrontziak jartzea.


Miloi erditik gorako lanak

Gobernuaren arabera, 555.159 euroko lizitazio aurrekontua izango lukete, baina asmoa da lanak faseka egitea.

Esandako moduan, lehenengo fasean, lurra lau jartzea eta drainatzeak egin, zoladura jarri eta umeendako jolas jokoak egin nahi dira. Horretarako, 79.792 euro daude aurreikusita, eta aurten egingo dituzte. Lan horiei dagokien proiektua AT2 enpresa idazten dabil.

Goiko Estazioko eremuko proiektua

ITURRIA: BERGARAKO UDALA



Dirulaguntza handitzeko sinadura bilketa, gaur, Iralan

Begarako Pentekoste jaiak antolatu ahal izateko, Xaxau konpartsak dirulaguntza handitzeko eskatuko dio Udalari. Izan ere, azken bost urteetan KPIa ere ez diotela igo dio Xaxauk. Horretarako sinadurak jasotzen izan ziren, atzo, Irala kalean, eta gaur ere bertan egongo dira, 19:00etatik 21:00etara bitartean. Sinadura bilketaz gainera, gura duena-

ri argibideak emango dizkiotela adierazi dute. Behin sinadura guztiak batuta, udaletxera erango dituzte, eta Udalak erantzun bat eman beharko diola eskaerari adierazi dute.

Xaxau konpartsak urtero, Bergarako Pentekoste jaietan, adin guztiei zuzendutako ekintza ezberdinak antolatu izan ditu, bai Bideberriko txosnagunean eta baita herriko kaleetan ere, eta jaiak aurrera eraman eta antolatu ahal izateko dirulaguntza handitzea eskatzen dute.

Begarako Ikasle Eguna ospatuko dute bihar, zapatua

Biharko, egun osoko egitaraua antolatu dute: 11:00etan, autodefentsa sareen hitzaldia izango da; 14:30ean, bertso-bazkaria gaztetxean; eta 17:00etan, aldiz, gaiztakeria tailerra izango da. 19:15ean, elkarretaratzea egitera jaitsiko dira plazara, eta, egunari amaiera emateko, kontzertuak eskainiko dituzte kartzela zaharrean.

UGARTE
AROTEGIA - ALTZARIAK

ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 034630

AROTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 765491

BERGARA
aroztegia@ugartearoztegia.com

Proiektuak - Koltxoiak
Horma-armainuak
Altzariak neurria
Ateak - Eskailerak -
Leihoak - Tarimak -
Egur lanak

I21
K
KALITATA
Enpresa Registrada Nº00/025

Musika Eskolaren lana, herritarrei eskainia

XV. aldiz antolatu dute 'Apirilean musika' ekimena Musika Eskolak eta Udalak. Musika ikasleek egiten duten lana ezagutzeko emanaldiak egongo dira, baina baita horiek gehiago trebatzeko ikastaroak ere. Operarekin hasiko dute ekimena

Arantzazu Ezkibel Galdos BERGARA
Bergarako Musika Eskolak eta Bergarako Udalak *Apirilean musika* jaialdiaren XV. aldia aurkeztu dute. 33 ekintza antolatu dituzte; ohiko kontzertuez gain, ikastaroak, ipuin musikatuak, elkartrukeak eta kontzertu didaktikoak ere izango dira. *Arratsalde bat operan* emanaldiarekin emango diote hasiera ekimenari, bihar, zapatua, 18:30ean. Ekitaldi hori antolatzen duten hirugarren aldia da, eta aurten lehen aldiz Seminarixoan izango da. Marije Ugaldek nabarmendu du punta-puntako abeslariak izango direla: "Vienan estreinatutako luxuzko produktzioa izango da proiektatuko dena, Puciniren *La Boheme* opera, hain zuzen. Punta-puntako abeslariak izango ditugu, gainera; Anna Netrebko eta Piotr Beczala, esaterako". Doako emanaldia izango da, baina sarrerak jaso behar dira Musika Eskolan.

Ipuin musikatuak

Domekan, Musika Eskolako ikasleen txanda izango da. *Ahotsak airean* ekimenaren barruan, *Kriskitin ametsaren bila* ipuin musikatuak aurkeztuko dute. Bi emanaldi eskainiko dituzte, 17:30etan eta 19:00etan. Musika Eskolako Hasiberrien abesbatzako eta Haurren abesbatzako gaztetxoek eskainiko dute emanaldia, talde instrumentalaren laguntzarekin.

Emanaldia hasi baino ordu-bete lehenago hartu ahal izango dira sarrerak leihatilan.

Apirilaren 5ean, Josu Elberdinen *Jostailugilea* ikuskizuna aurkeztuko dute musika eta mugimendu tailerreko ikasleek, gitarra taldeak lagunduta. Zabalotegi aretoan izango da, 18:00etan.

Kontzertu didaktikoak

Martitzenean, apirilaren 2an, 4 eta 7 urte bitarteko 440 haurrek



Marijo Juaristi, Elena Lete eta Marije Ugalde, aurkezpenean. AMAIA ZABALA

DOMEKAN, 'KRISKITIN AMETSAREN BILA' IPUIN MUSIKATUA ESKAINIKO DUTE 100 BAT HAUREK

kontzertu didaktikoak entzuteko aukera izango dute. Seminarixoan izango dira emanaldiak, 10:00etan hasita.

Bestalde, Bergarako Musika Bandak kontzertu didaktikoa eskainiko du apirilaren 7an,

12:30ean, Udal Frontoian. Enrique Txurruka zuzendariaren eskutik izango da saioa.

Elkartrukeak

Astelehenean, apirilaren 1ean, Gasteizko Kontserbatorioko eta Bergarako Musika Eskolako klarinete ikasleek *Klarineteen soinua* emanaldia eskainiko dute, 19:30ean, Seminarixoan. Apirilaren 6an gitarra topaketa egingo dute; eta apirilaren 27an, Bergarako, Segorbeko eta Mislatako orkestraren eta banden txanda izango da.

Izena eman beharreko ikastaroak

Apirilean musika ekimenaren barruan garrantzi handia izaten dute ikastaroak. Ugaldek azaldu du "ikastaro irekiak" izaten direla, eta "herritar guztiei zuzendutakoak". Plaza mugatuak izaten dira eta izena aurrez eman behar izaten da –dagoeneko epea itxita dago–. Bost ikastaro antolatu dituzte aurten: *Musika familian* tailerra etxeko txikienentzat eta horien gurasoentzat, Maite Vicuñaarekin; *Nagusientzako musikoterapia* tailerra, Maite Vicuña irakaslearen eskutik; *Ikusi, entzun eta... asmatu* tailerra datorren urtean instrumentua aukeratu behar duten ikasleei zuzendutakoak; *Beatbox* tailerra 10 urtetik gorakoentzat; eta Francisco Carmona luthierak eskainiko duen *Haize-metal instrumentuen ezagutza eta mantenua* ikastaroa.

Jarraitzaileen bultzada behar du Soraluceek biharko "finalean"

Ligako azken-urreko norgehiagoka jokatuko du eskubaloitza taldeak; laugarren postua lortzea da helburua

A.E. BERGARA

Josetxo Muniategiren taldeak bi *final* izango ditu liga amaitzeko. Lehenengoa bihar jokatuko dute, 18:15ean, Pulporen aurka. "Azken urteetako partidu garrantzitsuena izango da", dio Muniategik. Hori horrela, jarraitzaileen babesa eskatu du entrenatzaileak.

Liga amaitzeko bi jardunaldi falta diren honetan, sailkapeneko bosgarren postuan daude bergararrak. "Lau talde sailkatzen dira Euskadiko txapelketarako eta bosgarrenak gara, lau punturen falta. Hiru punturen gorabehera lau talde gaude", dio entrenatzaileak.

Pulpo izango dute aurkari

Legazpin 25-20 galtzetik dator Soraluce. Bihar, Labegaraietan, Pulpo taldea izango dute aurrean: "Behetik gora datorren taldea



Bergara, baloia kontrolatzen. I. SORIANO

da. Gaztea, baina esperientzia duten jokalariekin osatuta dago. Gu, aldiz, ez gara erregular ibili azkenaldian; dugun onena atera beharko dugu partidu aurrera ateratzeko". Gainera, Andoni Elorzaren lesioa izan du taldeak astean.

Garitano, Euskadiko Musikari gazteen lehiaketako irabazle

EAEko hiru kontserbatorioetako ikasleendako Euskadiko Musikari gazteen lehiaketa jokatu zen zapatuan, Gasteizen. Garitano *Kantua A* sailean lehiatu zen –19-25 urte–, eta hiru abesti kantatu zituen: opera, oratorioa eta kantu alemaniarra: "Ez naiz lehiaketa-zalea, baina honek badu errekonozimendua. Esperientzia polita izan da", dio.



Aitor Garitano, garaikurrarekin.

Disneyk ezagun egin dituen abestiak joko ditu Orfeoi Gazteak

Emanaldia eskainiko du Bergarako Orfeoi Gazteak, gaur, barrikua, Seminarixoan. *Disney arrakastak* izenarekin, Disneyk bere filmetan ezagun egin dituen doinuak eskainiko ditu Orfeoi Gazteak. Emanaldia doan izango da, 19:00etan. Doinu ezagunak izango dira eskainiko dituztenak eta familia guztiari zuzendutako emanaldia izango da.

Ilustrazio ikastaroa egingo dute apirilaren 6an eta 13an

Aitziber Alonso ilustratzaileak eskainiko du ikastaroa, Bearteko lokalean. Ilustrazioaren teknikak ikasiko dituzte apirilaren 6an eta 13an, 10:00etatik 13:00etara –guztira, sei orduko ikastaroa izango da–. Ikastaroaren prezioa 40 euro izango da, eta izena eman nahi duenak beart.elkartea@gmail.com helbidera idatzi beharko du mezua.



KORRIKARAKO GERTU? EGIN **KLIKA** GOIENAN

JARRAIPEN BEREZIA ETA UNEOROKOA APIRILAREN 4TIK 14RA

HASIERA –GARES– ETA AMAIERA –GASTEIZ–
ZUZENEAN GOIENA TELEBISTAN ETA GOIENA.EUS-EN

DEBAGOIENeko IBILBIDEA ZUZENEAN,
APIRILAREN 13AN ETA 14AN, GOIENA.EUS-EN

KORRIKAK DEBAGOIENEAN BARRENA SAIO BEREZIA GOIENA TELEBISTAN

+ ALBISTEAK, KRONIKAK, ERREPORTAJEAK ETA ELKARRIZKETAK
GOIENA ALDIZKARIA-N ETA PUNTUA-N

BABESLEA: **MGEP**

MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA
JOSE MARIA ARIZMENDIARRIETA S COOP

Goi Mailako
HEZIKETA ZIKLOAK
2019-2020
lanerako gertu!

goiena

Zu hemen zaude.



Mugimint proiektuan parte hartu duten eragileetako ordezkariak osasun zentroan eguaztenean. O.E.

Beste zerbitzu bat dago herriko anbulatorioan

"60 urtetik gorakoendako beste espezialitate bat" izango dela adierazi dute osasun etxeko langileek. Apirilaren 15etik aurrera egongo da martxan eta asteen bi egunetan emango du zerbitzua. Funtzionalitatea hobetzen laguntzea da helburua

Oihana Elortza OÑATI

Ohitura osasuntsuen orientazio zerbitzua egongo da Oñatiko osasun etxean apiriletik aurrera. 60 urtetik gorako herritarrendako zerbitzua da –herritarren %23, gutxi gorabehera–, euren funtzionalitatea hobetzen laguntzeko, "bizi ohitura aktiboagoak" sustatzeko. Berez, zerbitzu honen helburua ez da gaixotasuna sendatzea, "herritarren funtzionalitatea" hobetzen laguntzea baizik. "Adibidez, erorketak saihesten, hauskorrak badira indartzen...", dio Kizkitza Alustiza erizainak.

Osasun etxean arreta ematen duten mediku eta erizainek edo Udaleko Gizarte Zerbitzuetako langileek bideratuta joango dira herritarrek ohitura osasuntsuen orientazio zerbitzura; "60 urtetik gorakoendako beste espezialitate bat" izango dela adierazi dute osasun etxeko langileek. Apirilaren 15etik aurrera egongo da martxan eta asteen bi egunetan emango du zerbitzua.

Apirilaren 15etik aurrera

- Adin konkretu batetik aurrerako herritarrendako zerbitzua da.
- Helburua da mugitzeko eta ibiltzeko zailtasunak gainditzeko laguntzea.
- Ezin da kanpotik txandarik hartu, medikuak edo gizarte zerbitzuetako langileek bideratuta bakarrik erabil daiteke.
- Asteen birritan egongo da eta doakoa izango da.
- Ariketak anbulatorioan edo kalean egin ahal izango dira.
- Parte hartzen duten herritarrei jarraipena egingo zaie.
- Zerbitzu hau jarri duen Gipuzkoako 19. herria da Oñati.

Beñat Agirreurreta izango da zerbitzua eskainiko duen aditua. Prozesua, baina, herritarra medikuarengana doanean hasiko da. "Guk argi ikusten dugu ariketa fisikoa ona dela kontsultara datozen herritarrendako, baina ez dakigu nola edo zer aholkatu. Beharrezkoa ikusten genuen horrelako zerbitzu bat eta oso pozik gaude laster jarriko dela ikusirik", dio erizainen koordinatzaileak, Kizkitza Alustizak.

Medikuarengana doan herritarri hainbat galdera egingo dizkiote medikuek eta erizainek eta diagnosi horrekin orientazio zerbitzuko espezialistarengana joango dira, Beñat Agirreurretarengana. Hark txosten hori aztertu, eta pertsona horri ondoen dagozkion ariketak proposatuko dizkio. "Horietako batzuk hemen, osasun etxean bertan, egingo dira, baina herriko azpiegiturak ere aprobetxatuko ditugu ariketak egiteko", dio Egoitek enpresako kirol langileak.



Ainhoa Galdos eguen goizean Lazarraga lorategian. TXOMIN MADINA

"Lasai eta gogotsu" aurkeztu da alkaterako Ainhoa Galdos

Hura da EAJren alkategaia datorren maiatzaren 26an egingo diren udal hauteskundeetarako

O.E. OÑATI

Ainhoa Galdos Olazar (Oñati, 1966) izango da EAJren hautagaia alkaterako hurrengo udal hauteskundeetan, Oñatiko Uri Buru Batzarrak hautatuta. "Etorkizuneko erronkei aurre egiteko eta Oñati indarberritzeko beharrezkoak diren proiektuak sustatzeko hautagairik egokiena" dela adierazi dute jeltzaleek.

Erronka "handia" dela aitortu du Galdosek, baina, era berean, "lasai eta gogotsu" dagoela gaineratu: "Herrigintzan badut esperientzia. Hamabi urtez izan naiz zinegotzi, zortzi Gobernuan

eta lau oposizioan, Batzar Nagusietan ere egon naiz zortzi urtez. Gainera, lantalde sendo bat dut ondoan, lanerako prest dagoena, ni moduan".

Oñatik "aldaketa" behar duela gaineratu du hautagai jeltzaleak: "Herri atsegin eta bizia, garbia, adin guztiendako egokitua dagoena gura dugu, baserritarrak eta merkataritza txikiak indartzea eta Gobernu ireki eta parte-hartzaileagoa bermatzen duena".

Piano eta koru irakaslea da Jose de Azpiazu musika eskolan, eta erretiratuen etxeko Aloña abesbatzako zuzendaria.

GORA ETA BEHERA



GOIENA

Bizikleten mantentze txokoa, hondatuta

"Oso ideia ona izan zen bizikleten mantentzerako txokoak jartzea, beharra zegoen erabiltzeko, baina, antza, ez dakigu ditugun zerbitzuak zaintzen. Pena da", dio herritar batek.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo 688 69 00 07.



Irati Garai, Jone Arriolabengoa eta Jone Arrazola asteleheneko aurkezpenean. AMAIA TXINTXURRETA

Oñatiko emakumeei buruzko lehen ikerketa

Selma Huxley Barkham bekaren lehen fruitua aurkeztu dute astean. Liburuan jaso dute ikerketa, baina laborpen testu bat banatuko dute etxetik apirillean. Herriko komertzioetako objektu eta argazki zaharrek erakusketa ere prestatuko dute

Oihana Elortza OÑATI

Oñatiko emakumiek errekaetan. XX. mendeko komertzio txikixaren etnografia feminista bat izeneko ikerketa egin dute Irati Garai eta Jone Arrazola oñatiarrek, Udalak emandako Selma Huxley Barkham bekarekin.

Egilean esanetan, ikerketa egitea espero baino lan handiagoa eskatu die. Hasiara batean, esaterako, hamar herritarren lekukotzak jasotzeko asmoa zuten, baina, azkenean, 42 pertsona elkarrizketatu dituzte. Atera dituzten ondorioen artean, komertzio txikiek egindako ekarpen ekonomikoa eta espaziala daude, baita, emakumeei begira, ekarpen soziala ere. "Begiratu gura genuena zen eurek erreka-duk nola erabili zituzten euren alde, Nola? Ba, abagune handia izan da egunero etxetik irten ahal izateko, isolamendutik irten eta euren lagunekin egoteko aukera izaten zen. Hor dago ekarpen soziala", dio Jone Arrazola antropologoak.

Dena den, komertzio txikiek emakumeengan izandako eragin negatiboak ere aurkitu dituzte. "Errelebia mantentzeko eta dendarekin jarraitzeko, ama eta guraso askok behartu egin zituzten alaba asko etxean, dendan, geratzera. Horren konstantziarik ez genuen eta testigantza horiek lehen pertsonan jasotzea oso espeziala izan da. Adibidez, emakume bati entzutea esaten: 'Ni kanpoko batekin ezkonduko nintzen, baina amak ez zidan utzi'. Edo: 'Nik ikasi egin gura nuen, baina ez zidaten utzi'".

Zabalkundea

Hainbat modutara zabalduko dute ikerketaren emaitza. Hasteko, liburu batean jasoko dute

**42 PERTSONA
ELKARRIZKETATU
DITUZTE, ETA
KOMERTZIO TXIKIEN
EKARPENAK AZTERTU**

ikerketa osoa, baina apirillean, Oñatiko etxe guztietan banatuko dute laborpen irakurterragoia. Horretaz gain, maiatzaren 9tik ekainaren 2ra erakusketa bat jarriko dute Bakardadeko Ama kalean, garai batean Egaña janari denda zegoen lekuan. "1990 hasieran itxi zen denda eta ordutik dagoeneta mantendu den lokala da; badu bere xarma. Komertzioetako lehengo objektuak eta argazki zaharrak egongo dira ikusgai, besteak beste", azaldu du beste egileak, Irati Garai antropologoak.

Ikerketan parte hartu duten herritarrendako eta ikastetxeendako bisita gidatuak egingo dituzte, baita edozein herritarrendako zabalik egongo diren bisitak ere.

Bekari dagokionez, Oñatiko Udaleko ordezkarien esanetan, asmoa da aurten udazken alde zabaltea hurrengo deialdirako oinarriak, ikerketa bera datorren urtean egiteko aurreikuspenarekin.

Aldibereko itzulpenak egiteko maleta erosi du Udalak

Herriko elkarteek, ikastetxeek eta taldeek ere erabil dezakete, aurrez eskaera orria beteta

O.E. OÑATI

Aldibereko itzulpenak egiteko maleta erosi du Oñatiko Udalak, eta hura erabiltzeko arautegia onartu.

Batzarrak, aurkezpenak, hitzaldiak, eta abar euskaraz egitea eta ulertzen ez duenari konponbidea ematea da zerbitzu horren helburua. Dena delako ekintzan euskaraz egingo duten pertsonak egonez gero eta kopuru esanguratsu batek ulertuz gero, tresna horren laguntzarekin ekintza euskaraz egitea lortuko dute, euskaraz ulertzen ez dutenentzat

komunikazioa bermatuta. "Tresna honek aukera ematen digu bilera eta hitzaldietan euskaraz gehiago erabiltzeko", Euskarako udal teknikariaren arabera.

Udaleko Euskara Zerbitzuan egongo da maleta eta hura arduratuko da kudeaketaz. Maleta kargadorea ere bada eta bi emisore, 20 errezeptore eta mikrofonoak ditu. Herriko elkarteek, ikastetxeek eta taldeek ere erabil dezakete, doan, baina interpretea jardueraren antolatzailerak jarri beharko du. Aurrez eskaera orria bete behar da.

Hauteskundeetako mahaletako izenak aterako dituzte bihar

Apirilaren 28an egingo diren Espainiako gorteetarako hauteskunde orokorretarako zozketa egingo dute bihar, zapatua, eta orduan jakingo da nortzuk egongo diren hauteskunde mahaletan egun horretan.

Zozketa 10:00etan egingo dute, HAZko bulegoan. Aplikazio informatiko bat erabiliz egingo dute.

Apirilaren 28ko hauteskundeetan hamabost mahai egongo dira bost hauteslekutan banatuta. Mahai bakoitzean hiru lagun egongo dira: presidentea eta bi bokal. Zozketan, berriz, horien ordezkoen izenak ere aterako dituzte, bina ordezkoi. Beraz, guztira, 135 herritarren izenak aterako dituzte. Hurrengo egunean hasiko dira jakinarazpenak banatzen, martxoaren 31tik apirilaren 7ra, eta zazpi egun izango dituzte alegazioak aurkezteko.



NIRE USTEZ

JOSU ZUBIA

Zentsura merke eta umorea garesti

Azkenaldian, helduentzako hainbat pailazo saio berezi egin ditugu herrian eta inguruan. Badakizue, pailazoak bere umore eta samurtasun kutsuarekin ukitzen eta lantzen ditu gaiak. Bere ezaugarrietako bat irreberentzia ere bada, baina beti intenzionalitate maltzur horretatik at. Pailazoak ez dauka intenzio txarrik. Eta saio batzuen amaieran jendea etorri zaigu esatera: "Ui... gai hau atera duzuenean jendeak ez du barrerik egin"; "Ez zait batere gustatu esan duzuen"; "Nik gai hori ez nuke kritikatu" –boterea, euskara, feminismoa...-. Jendea txisteekin suminduta, aizue! Hori bada zerbaiten arrastoa... Badirudi gai batzuk ezin direla ukitu. Eta hurrengo saioan gai horiek sartu edo ez pentsatzen duzu. XXI.ean zentsuradoreek ez dute lanik, sortzaileek eurek zentsuratzen dutelako beren burua, ur-handitan ez sartzeko edo. Eta horrela ari gara jendarte *aske* bat sortzen. Zentsuraz betetako jendarte aurrerakoi, guay eta kutrea. Umora askeri ezin badaiteke egin nekez izango dira herritarrak aske. Gaiz aldatuz... hasi berotzen... badator eta Korrika! Zure, gure eta denon erritmora!



Jon Zelaia oñatiarra baloiairekin, Bosteko Irauli taldearen aurkako partidu batean, Zubikoan. IMANOL SORIANO

Igoera fasea jokatzeko azken pausoa falta zaie

Denboraldi bikaina egiten ari da Mekalki Aloña Mendi, eta asteburuan lor dezake igoera fasea jokatzeko txartela; Donosti Dolphins talde indartsuaren etxean jokatu dute Aitor Ugarteren mutilek bihar, baina galduta ere ziurtatu dezakete helburu hori

Eneko Azurmendi OÑATI

Lehenengo lau sailkatuek jokatuko dute igoera fasea. Bost jardunaldi falta dira liga erregularra bukatzeko, eta Mekalki Aloña Mendik Hernanik baino bost partidu gehiago ditu irabazita -bosgarren sailkatua da Hernani-. Beraz, oñatiarrek partidu guztiak galdu beharko lituzkete kanpoan geratzeko, eta Hernanik guztiak irabazi. "Average-a euren alde dago, baina oraindik euren aurka jokatu behar dugu Oñatin. Egia da egoera ondo bideratuta daukagula, baina badaezpada, berdinketak saihesteko, ahalik eta partidu gehien irabazten saiatuko gara", adierazi du Aitor Ugarte entrenatzaileak.

Esan moduan, liga erregularreko lehenengo laurek jokatuko dute igoera fasea, eta lehenengo sailkatuak lehenetara izango du finalurrekoak bere kantsan jokatu ahal izateko -finala non jokatu Federazioak erabakitzen du-. Ezusteko han-

dirik ezean, Atletico San Sebastian, Mekalki Aloña Mendi, STL Azkune eta Donosti Dolphins taldeek jokatuko dute igoera fase hori. Ugarteren esanetan, azken horiek dira faboritoak. "Donosti Dolphins da talde indartsuena. Atletico San Sebastian ere talde ona da, baina, finalurrekoan talde bat saihestekotan, Dolphins saihestuko nuke. Oso talde sendoa eta osatua da. Gaztetan Euskal Ligan aritutako jokalariai dituzte, esperientzia handikoak eta maila onean jokatzen ohituta daudenak", dio.

Hain zuzen, talde donostiarraren aurka jokatuko dute bihar, zapatua, oñatiarrek. Donostiako Benta Berri kiroledegian izango da hori, 16:00etan.

BOST PARTIDUTATIK BAT IRABAZITA FASEA ZIURTATUKO DUTE; HERNANIK BAKARRA GALDUTA ERE, NAHIKO

Denboraldia borobildu guran

Indartsu hasi zuten denboraldia Ugarteren mutilek, lehenengo zazpi partiduak irabazita. "Taldea potoloie ere irabazi egin genien etxean". Bigarren itzuliaren hasieran, berriz, beherakada txiki bat eduki zuten. "Lau partidu etxetik kanpo jokatu, eta bi galdu genituen".

Denboraldiko une erabakigarria maila onean iritsi diren arren, entrenamenduetan "jende gutxi" egoten direla nabarmendu du entrenatzaileak. "Lana eta ikasketak direla eta, gutxitan entrenatzen dugu guztiok batera. Astelehenetan batzuek entrenatzen dute, eta eguaztenetan beste batzuek. Modu horretan, partiduak ez ditugu behar bezala prestatzen, eta gero, kosta egiten zaigu irabaztea". Hala ere, igoera fasea gerturatu ahal, jokalariek erantzun egingo dutela dio. "Aste Santu ostean gogorrago entrenatzen hasiko gara, igoera fasera ahalik eta ondoen iristeko", gaineratu du.

Mailari eusteko ezinbestekoak izango diren bi partidu aurretik

Ioritz Agirianok zuzentzen duen taldeak Berango izango du aurkari Zubikoa kiroledegian, domekan, 12:00etan

E.A. OÑATI

Lehen itzulian oso maila onean aritu zen Construcciones Ugarte Aloña Mendi, baina, bigarren itzulian izandako beherakadaren ondorioz, beheko postuetatik gertu dago orain, eta geratzen diren bi partiduak *final* bilakatu dira. "Bi partiduak irabazi beharra daukagu", dio Josune Pugak, taldeko kapitainak. Berez, bi taldek galtzen dute maila, baina hirugarren batek ere arrisku hori izan dezake.

Lehen *finala* Berango Eskubaloia taldearen aurka dute. "Han gol baten aldearekin irabazi genuen, eta domekakoa ere partidu gogorra izango da, segurua. Baina irabaztera irtengo gara", azpimarratu du Pugak.

Fagor Industrial Aloña Mendi

Aitor Aranbururen mutilek, bestalde, Bilbon dute hitzordua



Oihane Lazkanoiturburu jokalaria. I.S.

zapatuan, 18:00etan, Universidad Deusto Loyolaren aurka. Euskal Ligako Igoera Faserako txartela martxo hasieran lortu zuten. Hala ere, denboraldia maila txukuna ematen bukatu gura dute, nahiz eta baja asko dituzten momentu honetan.

Azkoagainen dituzte partiduak gizonen eta emakumeen taldeek

Emakumezkoen Gorengo Mailako igoera faseari dagokionez, Ander Aberasturiren neskek aukera ezin hobea daukate pasaden astean galdutakoa berreskuratu -5-5 berdindu zuten Beti Gazteren aurka- eta bigarren postuan dagoen Urnietarekiko aldea murrizteko. Izan ere, Urnieta bera izango dute aurkari bihar, zapatua, Azkoagainen,

15:30ean. Laugarren dira Aberasturirenak, eta bigarren sailkatua bost puntura dute.

Erregional Preferente Mailan, bestalde, igoera lortzeko borroka bete-betean jarraitzen dute Endika Ruizen mutilek, pasaden astean Zestoari 0-3 irabazita. Lehia horretan jarraitzeko, Beasain menderatu beharko dute domekan, 16:30ean. Une honetan, hirugarren daude; hiru puntura dago bigarrena, Urola, eta lau puntura lehen sailkatua, Lagun Onak.

Herriko Futbol Txapelketa azken txanpan sartuko da

Liga erregularra bukatuta, erabakita geratu dira Herriko Futbol Txapelketako Ligako eta Kopako finalurrekoak.

Albok taldeak irabazi du liga erregularra, zazpi partidu irabazi eta bakarria galduta. Haren atzetik sailkatu dira Mazedonia, Txuskos, Shatoken Moïra, Larraña, Sasquatch, Auschwitz, Zalaparta eta Tutelatratu -azken

sailkatua izanik, ezin izango du Kopa jokatu Tutelatratuk-.

Asteburu honetan jokatuko dituzte Kopako finalurrekoak. Batetik, Larraña-Zalaparta, bihar, zapatua, 13:30ean. Bestetik, Sasquatch-Auschwitz, etzi, domeka, 13:00etan.

Datorren astean, berriz, Liga finalurrekoen txanda izango da: Albok-Shatoken Moïra eta Mazedonia-Txuskos izango dira bi kanporaketak.

Finalak, azkenik, apirilaren 27an jokatuko dituzte.

'Stella Maris' programa, bihar, Ganbararen eskutik

25 urteko historia ospatzeko hainbat ekitaldia antolatu ditu Ganbarak: lehena bihar, 18:00etan, Arantzazun eskainiko duten kontzertua. Hamar eurotan eros daitezke kontzerturako sarrerak eta autobus zerbitzua egongo da bi euroren truke

Maialen Regueiro OÑATI

1994an eman zion ibilbideari hasiera Oñatiko Ganbara Abesbatzak. Garai hartan, hamabi kidek osatzen zuten Gorka Cuevak zuzendutako taldea. Hala, hamabi kideekin hasi zen talde hura, baina gaur egun 40 kidez osatuta dagoenak 25 urte bete ditu eta mende laurdena ospatzeko hainbat ekitaldi antolatu dituzte; tartean, *Gure bidea* disko-liburua eta biharko *Stella Maris* programa. Arantzazuko Santutegian izango da, 19:00etan hasita.

'Stella Maris' programa

Ganbararen 25. urteurrena ospatzeko antolatutako produkzio berria da *Stella Maris* izeneko programa. Aitor Biain Ganbarako zuzendaria da gaur egun eta programa horren harira honako hau adierazi du: "Programa honen lanketarekin 2018ko azaroan hasi ginen, ospakizunak azarotik azarora egin nahi ditugulako, eta *Stella Maris* programa aurtengo proiektu garrantzitsuena dela esan dezakegu. Izenak adierazten duen moduan, ama birjinen inguruko proiektu bat da eta garai desberdinetako musika jasotzen da bertan". Hala, Ganbara Abesbatzak bi zatitan banatutako ikuskizuna eskainiko du bihar Arantzazuko Santutegian. Lehen zatian, Guerrero, Grieg, Memley, Vila eta halako konpositoreen lanak entzuteko aukera egongo da. Bigarren zatian, berriz, Zumaiako Iker Gonzalezek idatzitako *Stabat Mater* estreinatuko dute. Zumaiarrak Ganbararen 25. urteurrenerako idatzi du obra hori eta talde misto, ahots zuri, bakarlari eta pianoarentzako dago bereziki idatzia. Biainek, gainera, obraren xehetasunak eman ditu aditzera: "Obra honek testu liturgikoak ditu, baina baita euskarazko hainbat testu ere; ama batek



Xabier Mugarza eta Aitor Biain aurkezpenean. BERTIA OÑATI

25 URTEAK OSPATZEKO HAINBAT EKITALDI ANTOLATU DITU GANBARA ABESBATZAK

bere semea hil delako bizi duen sufrimenduarena, besteak beste".

Sarrerak eta autobus zerbitzua

Ganbara Abesbatzak bihar eskainiko duen ikuskizuna ikusteko sarrerak eros daitezke Txokolateixan, Udalaren txarteldegian eta www.oñati.eus atarian, hamar eurotan.

Horrez gain, ikuskizuna ikustera joateko autobus zerbitzua egongo da bi euroren truke. Autobusa herriko hiru geltokietatik pasatuko da, 18:15ean –posta geltokia, Kalegoiena eta Olan–.

'Gure bidea' disko-liburua

Ganbarak 25 urteko historian zehar bi disko grabatu ditu. Lehena 2004ko abenduan kaleratutako *Sagatz* lana eta bigarrena, hamar urte geroago argitaratutakoa, *Amarau*. Hain

zuzen, dagoeneko kalean den *Gure Bidea* diskoa Ganbarak 25. urteurrena ospatzeko asmoz kaleratu du.

Gure bidea liburuak, berriz, 25 urteko historiaren laburpena jasotzen du eta oinarri gisa ditu Ganbarak bere historian zehar izan dituen hiru zuzendariak –Gorka Cueva, Esteban Urzelai eta Aitor Biain–. Hamabost eurotan erosten daiteke *Gure bidea* disko-liburua Txokolateixan, Igone Barberian, Bizipoz Kafan eta Eltziaiko tabernan.

25. urteurreneko beste ekintzak

Zapatuko kontzertuak eta *Gure bidea* disko-liburuaz gain, Ganbarak beste hainbat ekitaldi antolatu ditu 25 urteko historiaren ospakizuna borobiltzeko. Ekainaren 1ean, San Juan Bautistaren eta Ganbararen arteko kontzertua izango da Bidaurretako elizan. Horrez gain, Ganbarak azaroaren 4tik 10era bitartean Argentinako Euskal Aste Nazionalan egingo den Abesbatzen Topaketan parte hartzeko gonbidapena jaso du. Eta, azkenik, abesbatzak urteurreneko kontzertua eskainiko du abenduaren 1ean.

Joseba Lasagabaster da bertso txapelketako lehen finalista

Txinparta bertso txapelketako bigarren kanporaketa bihar jokatu da, 17:30etan hasita, Eltzian

M.R. OÑATI

Hilaren 23an jokatu zen VIII. Txinparta bertsolari txapelketako lehen kanporaketa eta Joseba Lasagabasterrek egin zuen saiorik onena. Era horretan, Lasagabaster apirilaren 13an jokatu den finalean arituko da, biharko saiotik irtengo den beste finalistarekin batera.

Gustura, egindako saioarekin

Zortzi bertsolari aritu ziren lehen kanporaketan eta Lasagabasterrek adierazi du saioan askotariko bertsoak entzuteko aukera egon zela; horrek, era berean, saioa entretenigarri egin zuela aitortu du. Berak egindako saioari dagokionez, honako hau esan du Lasagabasterrek: "Txapelketan izena eman nuenean, helburua bertso eskolan landutakoa jendaurrera eramatea zen. Horregatik, eta aspaldian bertsoan



Joseba Lasagabaster. TXINPARTA

aritu ez naizelako, gustura nago egindako saioarekin".

Biharko kanporaketa

Biharko saio polita izango dela aitortu du Lasagabasterrek, Eltzian profil desberdina duten bertsolariak arituko direlako.

Gasteizko euskararen egoera jasotzen duen lana Antixenean

'11 baino gehiago, has Gasteizen euskaraz bizitzen' dokumentala aurkeztuko dute igandean, 18:00etan

M.R. OÑATI

Mikel Ezkerrok, Oñatin bizi den zinemagile forondarrak, *11 baino gehiago, has Gasteizen euskaraz bizitzen* dokumentala estreinatu zuen urtarrilean. Hainbat tokitan aurkeztu du ikus-entzunezkoa eta domekan, hilaren 31n, Antixena gaztetxean izango da, Gasteizko euskararen egoera azaltzen duen ikus-entzunezko hori aurkezteko. Ordubete inguru irauten du dokumentalak eta 18:00etan ikusi ahalko da. Ondoren, Ezkerrok ikus-entzunezkoaren nondik norakoak azalduko ditu, eta baita herritarrek egindako galderak erantzun ere.

Gasteizko erradiografia

Gasteizko Oihaneder Euskararen Etxetik jaso zuen Ezkerrok proiektu hori egiteko proposamena. Hasiere batean, Gasteiz-

ko Euskaraldiaren *making off*-a egitea zen ideia, baina proiektu txiki horretatik handiago bat irten zen eta, azkenean, dokumental honetan, Euskaraldia aitzakia izanik, Gasteizko erradiografia jasotzen da; euskararen egoerarena, alegia.

Ikus-entzunezkoa egiteko, Gasteizko komunikabideak –*Alea* eta Hala Bedi Irratia–, euskaltegiak –AEK eta IKA–, Euskaraldirako sortutako hainbat elkarte eta herritarrek elkarriketatu dituzte, besteak beste. Irati Anda eskalatzaile gasteiztarrek eta Askoa Etxebarria flamenko dantzariak, esaterako, Gasteizen euskaraz duen egoeraren inguruko hausnarketa egin dute ikus-entzunezkoan.

Euskaraldiko abestia eta bi-deoklipa bertsiionatu egin zituen Ezkerrok, dokumentalean erabiltzeko.

Gorlako Igoeran ez dute iazko sufrikariorik izango

TXIRRINDULARITZA Domekan (10:00), eguraldia ez da azken edizioan besteko erabakigarria izango; Zumarragatik bueltan Ziklistak Deskargatik joango dira Bergarara, eta herria erdigunetik zeharkatu eta gero igoko dute Gorla bigarrenez

Xabier Urzelai BERGARA

Norvegiako baldintza gogorretara ohituta zegoen Torbjorn Hejman izan zen iazko Gorlako Igoeraren irabazlea; lasterketa-ren gogortasuna probak berak utzitako datuetan antzeman daiteke: 188 txirrindularik hasi zuten lasterketa eta 65 bakarrik heldu ziren helmugara.

Domekan egingo duen tenperatura epela -19 gradu-, berriz, Europako iparreko ziklistendako baino, Mediterraneokoendako izan daiteke aproposagoa: "Castelloko talde baten eskaera jaso dugu, baina gehieneko parte-hartzea 200 ziklistatara mugatuta daukagu, eta baiezkoa eman aurretik kopuru hori gaindituko ez dugula baieztatu behar dugu", diote Lokatzako ordezkariak. Hala, domekan autobusa jarriko dute herritarrek Gorlara igo daitezen (11:45 eta 12:15), eta jaitiera 14:00etan izango da.

Ibilbidean aldaketak

Eguraldi hobea izatearekin batera, azken urteetako baino proba laburragoa izango da: "Azken urteotan, Gorla igo eta Aipurutxora jaitsi eta gero Udantik bueltan etortzen ziren. Domekan, berriz, lasterketa Deskargako mendatera itzuliko da berriro". Antzuolatik bueltan



Torbjorn Hejman, Moreno eta Silva, iazko podiumean. GOIENA

GORLA BIGARRENEZ IGO AURRETIK, ZIKLISTEK BERGARA ERDIGUNETIK ZEHARKATUKO DUTE

ziklistak Bergarara sartuko dira, eta erdigunea zeharkatu eta gero Gorla igoko dute bigarrenez: "Herritarrei eskatu gura diegu kontuz ibiltzeko, tropela azkar pasako da-eta herritik. Eta, posible bada, ziklistak animatzeko".

Bailarako bederatzi ziklista

Hain zuzen ere, kategoria horretan Debagoieneko bederatzi ziklistak dihardute. Hauexek dira: Antzuolako Aritz Kortabarria (Eulen) eta Mikel Arregi (Debabarrena); Arrasateko Andoni eta Asier Azkarate (Eulen) eta Liher Unzueta (Debabarrena); eta Oñatiko Xabier Murgiondo (Laboral Kutxa) Ekaitz Txintxurreta (Independiente), Ander Garcia (Debabarrena), Julen Otero (Debabarrena) eta Gaizka Maiztegi (Hostal Latorre).



Iaz, lokatz artean egin behar izan zuten lasterketa. IMANOL SORIANO

Euskadiko Openeko bigarrena, domeka goizean Aramaion

MENDIKO BIZIKLETA Barajuen eta Azkoaga auzoen artean bost kilometroko zirkuitua prestatu dute

X.U. ARRASATE

Errenterian hasi zuten Euskadiko Opena, eta hango lasterketak parte-hartzeari dagokionez izan zuen arrakasta errepikatzea espero dute Aramaioko antolatzaileek domekan. "Gainera, iaz, zirkuitua erabat lokaztuta egon zen, baina domekan, eguraldi ona izango dugu, eta azken egunotako eguraldiarekin siku-siku dago dena", dio Martin Arriola-bengoak.

Hori horrela, ziklistek lasterketa azkarra izango dute aurretik. 11:00etan elite mailakoek, 23 urtez azpikoek eta master 30

kategoriakoek hasiko dute lasterketa, bi minutu geroago juniorrek eta gainontzeko masterrek hasiko dute lasterketa, eta 11:04an emakumezkoek -Open Scratch-, kadete mailakoek eta emakumezko gazteek.

Iaz, 130 ziklista batu ziren

2018ko edizioan, lasterketa Ibaratik Barajuen eta Azkoaga auzoetara bueltatu zen, eta bertan, lokatz artean, Alvaro Carral eta Karla Kortazar izan ziren irabazleak. Eguraldi txarraren eraginez, antolatzaileak itzuli bat kentzekotan egon ziren.



MURIAS

Mikel Aristi bosgarren, Voltan

ZIKLISMOA Kataluniako Voltako lehenengo etapan, Mikel Aristi (Euskadi Murias) World Tourreko onenekin batera lehiatu zen. Ihes eginda zihoan Thomas De Gendt harrapatzen saiatu ziren, baina belgikarrak irabazi zuen, eta ondoren izan zen esprintean Bergarako oilarrekin batera egon zen.

Uzarragako Igoera Antzuolan bihar

Peña Ayastuik antolatuta, gazte mailako 45. Uzarragako Igoera egingo dute bihar, zapatua (16:00). Txirrindulariek 81 kilometroko lasterketa izango dute aurretik, eta Antzuola, Oñati eta Bergara artean 79 kilometro inguru egin eta gero Antzuolara bueltatuko dira Uzarragako maldei aurre egiteko (1,5 kilometro). 18:00 aldera iritsiko da lehena.



Gazte mailako tropela, 2017an, saihesbidean. GOIENA

"Inoiz ez gara finalak jokatzera ohitzen"

BEÑAT REZUSTA ASPEKO PILOTARIA

PILOTA Apirilaren 7an Bilboko frontoiko harmailak goraino beteko dira Binakako txapeldunak nortzuk diren ikusteko; Bergarako laugarren urtez izango da finalean

Xabier Urzelai ARRASATE

Gaur, Aspeko prentsa arduradun Ibon Arakistain Beñat Rezustaren (Bergara, 1993) itzal bilakatu da; Rezustarena eta, seguruenik, finalean izango diren gaitzako pilotariena ere bai, denak dira-eta enpresa berekoak. Hamabost elkarrizketa inguru erantzungo ditu bergararrak eguna amaitu aurretik, eta ondorengo egunetan finala prestatzeko entrenamendu saioetan murgilduko da Elezkanorekin batera, datorren eguneko pilota aukeraketaren egunera arte. Pilotazaleak konturatu direnako, Rezusta Binakako azken lau finaletan egon da. "Baina inoiz ez gara horretara ohitzen", adierazi dio GOIENARI.

Nahikoa lan elkarrizketa eskari guztiei erantzuten, baina beti dioguna, seinale ona da hori.

Zalantzarik barik, zerbait ondo egin dugun seinale izaten da hori. Gaurko egunean horixe tokatzen da, elkarrizketa batzuk aurrez aurre, beste asko telefonoz... Baina esandakoa, seinale ona da.

Finalerdiak amaitu eta bi aste izaten dituzue finala prestatzeko. Luze egingo zaizue, ala?

Ez pentsa, ez daukat inongo presarik finalaren eguna iristeko. Gogotsu gaude, baina ez dugu presarik, ezta antsietaterik ere.



Beñat Rezusta. IMANOL SORIANO

Ondo prestatu gura dugu norgehiagoka, entrenamenduetan gustura gabiltza eta orain, horretan gaude buru-belarri.

Zabaleta eta Irribarria izango dituzue aurrean. Ez estatistikak, eta ezta dirua ere ez dituzue aldeko. Horrek presioa kentzen dizue?

Neurri batean, bai. Baina estatistikek ez dute partidura begira inongo abantailarik ematen, ezta apustuek ere; finalak kantxan irabazten dira, pilotan jokatuz. Hala ere, txapelketa amaiera oso ona egin dute Zabaletak eta Irribarriak, partiduak ondo irabazi dituzte, eta gure

kontra jokaturako finalerdian ere norgehiagoka borobila egin zuten. Duda barik, kontrario gogorak dira.

Zuek ere baduzue finalera zapo gozoaz iristeko motiborik; besteak beste, finalerdietako azken partiduan oso maila ona erakutsi zenuten bai Elezkanok eta baita zuek ere.

Bai, bai, pozik gaude orain arte egin dugun txapelketarekin. Azken partidua bai, eta orokorrean finalerdietako ligaxka ere maila onean jokatu dugula esango nuke, nahiz eta Zabaletaren eta Irribarriaren kontra galdu egin genuen. Aipatu moduan, gustura gabiltza entrenamenduetan.

Binakako Txapelketan laugarren finala izango duzu jarraian. Eta pilotari gutxik lortu dute hori. Ohi-tu ere egingo zara, azkenean.

Ez, ez, pilotaria ez da horretara inoiz ere ohitzen. Urtean behin jokatzen den partidura ezinezkoa da ohitzea. Gainera, final bakoitzera modu ezberdinean iristen gara. Batzuetan eskuetatik justu, beste batzuetan sasoi betean... Ondoan izan ditudan pilotariak ere ez dira beti berdinak izan; azken batean, final bakoitza mundu bat da.

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA

OHOREZKO ERREGION.

Hernani-Mondra
Zapatua. 17:30. Zubipe.
Hondarribia-Aretxabal.
Domeka. 16:30. Ondartza.
Bergara-Tolosa
Domeka. 17:00. Agorrosin

ERREGIONAL PREFERE.

Urola-Mondra
Zapatua. 16:00. Zumarra.
Aloña Mendi-Beasain
Domeka. 16:30. Azkoaga.
Antzuola-Aretxabaleta
Zapatua. 16:00. Estala

OHOREZKO GAZTEAK

Aloña Mendi-Beasain
Zapatua. 17:30. Azkoaga.
Aretxabaleta-Bergara
Zapatua. 16:00. Ibarra.
Urola-Mondra
Zapatua. 18:00. Argixao.

EMAKU. OHOREZKO E.

Touring-Leintz Arizme.
Zapatua. 15:30. Errenteria
Zarautz-Bergara
Zapatua. 17:15. Asti Txiki.

EMAKUM. GORENGO M.

Aloña Mendi-Urnieta
Zapatua. 15:30. Azkoaga.

EMAKUMEZKOAK, KOPA

Oiartzun-Bergara
Domeka. 15:30. Oiartzun.

ARETO FUTBOLA

EUSKADIKO TXAPELKE.

Atsedena dute.

GIPUZKOAKO LIGA

Oiartzun-Eskoriatza

Zapatua. 18:00. Elorsoro.

GIPUZKOAKO BIG. MAILA

Mondrate-Donibane

Zapatua. 17:30. Musakola

EMAKUMEZKO SENIOR

Eskoriatza-Lauburu I.

Zapatua. 18:00. M. Muñoz

GAZTEAK, GIZONEZKOAK

Getariako-Aloña Mendi

Domeka. 11:00. Getaria.

Mondrate-Herrikide

Domeka. 13:30. Iturripe.

SASKIBALOA

EBA MAILA

MU-Solares

Domeka. 18:30. Iturripe.

GAZTEAK, EUSKAL LIGA

Urgatzi-MU

Domeka. 12:00. Gasteiz.

EUSKADIKO BIG. MAILA

Alkide Ointxe-Askartza

Domeka. 16:00. Iturripe.

GIPUZKOAKO SENIOR.

Donosti D.-Mekalki A.

Zapatua. 16:00. Donostia.

SENIOR BIG. MAILA

Bergara Sora.-Alde Z.

Zapatua. 16:00. Labegar.

SENIOR HIRU. MAILA

Mekalki Aloña-MU C

Zapatua. 16:00. Zubikoa.

SENIOR EMAKUMEZKO.

Eskoriatza-Internacio.

Gaur. 20:15. M. Muñoz.

ESKUBALOA

EUSKADIKO TXAPELKE.

Ford Mugarri-Hondarr.

Zapatua. 16:30. Iturripe.

Deusto-Fagor Industrial

Zapatua. 18:00. Bilbo.

EMAKU. EUSKADIKO TX.

Aloña Mendi-Berango

Domeka. 12:00. Zubikoa.

GIPUZKOAKO TXAPELKE.

Soraluce Ber.-Pulpo

Zapatua. 18:15. Labegar.

ERRUGBIA

EUSKADIKO TXAPELKE.

Kanpanzar ART-Bera B.

Zapatua. 16:00. Mojategi.

Mikel Garitanok irabazi du Espainiako Txapelketa

ESKI ALPETARRA Antzuolakoa hamasei urtez azpikoetan izan da onena, superkonbinatu modalitatean

Maidar Arregi ANTZUOLA

Kataluniako La Molina eski estazioan jokatu berri dituzte 14 eta 16 urtez azpiko Espainiako Eski Txapelketak. Eta, hamasei urtez azpikoetan mailan, Mikel Garitano antzuolarra superkonbinatua nagusitu zen –superraldoiaren eta eslalomaren denborak batzen dituzte–. Superraldoi proban bosgarren denborarik onena egin zuen, eta, ondoren, eslalomean lasterketa izugarria eginda lehen postua eskuratu zuen.

Erraldioan ere podiumera

Aurreko lasterketak egubakoitzean –hilak 22– egin zituzten, eta zapatuan erraldoi probaren txanda izan zen. Lehen jaitsieran denbora onena egin zuen eta bigarrenaren arazo bat eduki zuen eta bastoi batekin heldu zen helmugara. Hala, modalitate



Mikel Garitano. GORKA GARITANO

te horretan Espainiako txapel-dunorde izan zen, eta domekan egindako eslalom proban ere –haren proba gustukoena da– bi jaitsieretako denborak batuta txapeldunorde geratu zen. Gainera, Espainiako Kopan hirugarren postua lortu du.



Azaroan, bi finalistek Bergaran hasi zuten Binakakoa –22-15 urdinen alde–. I.S.



Elkarteko Oier Suarez, irabazleari txapela jarriko dion Lierni Altuna eta sei finalistak, finalaren aurkezpenean. JULEN IRIONDO

Txapel erdi aramaioarra aurrez, baina osoa amets

Bihar jokatu da, Gasteizen, sei protagonistetatik hiru Aramaiokoak izango dituen Arabako Bertsolari Txapelketako finala. Irekia ageri da Agirre, Igoa, Abarrategi, Perea, Viñaspre eta Arrizbietaren arteko lehia. Lierni Altunak jarriko dio irabazleari txapela

Julen Iriondo GASTEIZ

32 hasi ziren, eta sei baino ez dira geratzen txapelerako lehian, "antolatzaile eta gai-jartzaile modura urte askoan egindako lan isilgatik" –Arabako Bertsolazale Elkarteko Oier Suarezren esanetan– Lierni Altunak eman-ko duen txapelerako lehian.

Bertsolariek finalean egin beharreko lana izango da: ofi-


zioetan zortziko nagusian eta hamarreko txikian; bi puntu erantzun; binaka seiko motzean; gaia emanda bi bertso; binaka *Iparragirre abila dela* doinuak; eta kartzela, gaia emanda hiru bertso. Azken bi ariketak buruz burukoan egingo dituzte.

Printzipaleko leihatila gaur, 18:30etik 20:30era, eta bihar, 15:30ean, irekiko dute –17:30ean

da saioa–; 945-16 10 45 zenbakian eta *Principalantzokia.org* helbidetan ere eskura daiteke sarrera.


Eta lehian: "Inportanteena seiak gustura geratzea" dela dioen Iñaki Viñaspre; gainerakoei "ondo" dagoela abisatzen dien Oihane Perea; bertso eskolan ematen duena "finalean ere" eman nahi lukeen Aroa Arrizbieta... eta hiru aramaioarrak.

Aramaioko lau protagonistak




MANEX AGIRRE
FINALISTA

"Aramaioko hiru gaude, lan egin dugun seinale, eta pozik nago horrekin. Beheraldi batzuk izan ditut ariketa batzuetan txapelketan zehar, eta ea horiek hobetu eta saio ona egiten dugun. Saioan sartuta egon nahi nuke hasi eta buka, eta ea bakarka nola jarduten dudana: orain arte ez dut asmatu txapelketa osoan".




XABI IGOA
FINALISTA

"Finalean egotea helburu jarri nuen, eta presio horrek kalte egin dit, saioetan ez dut nahi beste gozatu. Finala gozatzea nahi nuke; ardura eta pribilegioa da Printzipalean egotea. Nahi nuke final oso bat egitea, ariketaz ariketa tentsioa mantenduz eta bertsoan esan nahi nukeen hori esanaz".



PERU ABARRATEGI
FINALISTA

"Nahiko nukeena da urduritasuna ahalik eta gehien kontrolatzea eta finala, Euskal Herrira begira erakusleho bat den heinean, ahalik eta politena atera dadila, eta ikustera datozenak gustura geratu daitezela. Orain arte, lan ona egin dut, baina saio guztietan utzi dut pototxo bat, eta hori aurreztu badezaket...".



LIERNI ALTUNA
TXAPELA EMANGO DUENA

"Manexek bertso eskola osatu nahi zuela-eta harrapatu ninduen, eta hala hasi nintzen bertso munduan. Ilusio handia egiten dit, eta ohorea da irabazleari txapela jartzea, baina lanean ibili garen denon ordezkari ikusten dut neure burua; talde moduan bizi dugu bertsoa, eta haien izenean jarriko diot, gustura, edozeini".

Arteak Irekita, guztion artean

Ikuskizunetarako lizentziarik ez duten taberna eta areto txikiak Eusko Jaurlaritzak ezarritako hamabi emanaldiko muga bertan behera utziko zuela iragarri zuen egubakoitzean Seguritasun Sailak; hala ere, Euskal Herriko toki askotan moduan, Debagoienan ere dekretuaren aurkako ekintzak egin zituzten; irudian, Bergarakoa.



IMANOL SORIANO

Kontzertu sorta handia ezohiko agertokietan

Domeka bitartean, hitzaldi musikatu, tailerrak eta zuzeneko emanaldiak izango dira herriko askotariko agertokietan, aurten bigarren aldiz antolatu duten Beratu musika jaialdian; bihar gaueko gaztelekuko kontzertua izan ezik, beste guztiak doan dira

Aitziber Aranburuzabala OÑATI

Beratu jaialdiaren bigarren edizioa abian da eguaztena ezker. Kontzertuak dira zutabe nagusi, baina bestelakoak ere eskainiko dituzte domeka bitartean.

"Trantsizio urtea"

Musikara beste modu batzuetatik gerturatzeko aurten ere bide berriak topatu dituzte, ekitaldien eskaintza zabalduz eta agertoki berriak proposatuta; hala azaldu zuten antolatzaileek martitzenean egin zuten agerraldian: "San Martin eta San Lorentzo auzoetako ermitetaraino eramango dugu musika asteburuan. Pozik gaude lotu dugun kartelarekin, kalitatezkoa delako eta beste elkarte eta jaialdiekin batera elkarlanean osatu dugulako –Lapurdiko Usopop eta Beasaingo Jazpana Fest-ekoekin, adibidez–; hurrengoetarako ere ari gara beste batzuekin harremanak estutzen. Zoritzarrez, baina, azken orduan bertan behera utzi behar izan dugu Eltzian bihar, zapatua, egin gura genuen *Musika eta kazetaritzaren erronkak arlo digitalean* izeneko jardunaldia, genituen aurreikuspenak betetzeko zaila ikusten genuen; hala ere, aztertuko dugu ea beste garai batean egiteko aukerarik dugun".



Beratu jaialdiko antolatzaile taldeko kide batzuk Eltzia kanpoan. TXOMIN MADINA

Antolatzaileendako "trantsizio urtea" dela gaineratu dute: "Beratu Musika Kultur elkarteak sortu dugu, iaztik hona emadugun pausoa da hori, eta asmoa da, jaialdiaz gainera, urtean zehar ekitaldiak eskaintzea".

Hitzaldi musikatu, hasteko

Leire Palacios kazetariak eta Olatz Salvador musikariak zabalduko dute asteburuko eskaintza. "Hitzaldi musikatu izango da, 19:00etan, kultura etxean, eta 22:00etan Ainara Legardon taldearen kontzertua, gaztetxean".

Bihar musika eskaintza zabalduko dela diote: "Donostiako Madeleine taldea eta herriko Juan Valls Trio, 18:00etan, San Lorentzoko ermitan; eta 21:30ean, gaztelekuan, Elena Setien, Vulk eta Atom Rhumba taldearen emanaldia –hamar euroren truke sarrera–. Domekan ere hainbat emanaldi daude: 12:30ean, Mohama Saz madrildarra Lazarraga lorategian, eta Usopop jaia, 18:00etan, San Martin ermitan. Horrez gainera, haurrentzako musika tresnen tailerra Foruen plazaan bihar, 11:00etan".

Huhezinema jaialdia abiatuko dute datorren martitzenean

Arkupe kultura etxean eta Herriko Plazan, guztientzako zabalik dauden askotariko ekitaldiak izango dira, doan

A. Aranburuzabala ARETXABALETA

Oinarrian orain arteko egitura izango du MUko Ikus-entzuzeko Fakultateko ikasle eta irakasleek martitzenean estreinatu eta egubakoitza bitartean egingo duten hamabigarren

Huhezinema euskal film laburren jaialdiak: egubakoitzean, hiru sailetan jaso dituzten lan onenen sariak banatuko dituzte Arkupen –Sail Ofiziala, MUko Ikasleen Saila eta Kutixi saila–; 16:30ean hasiko da ekitaldia.

Publiko guztiarentzako askotariko ekitaldiak iragarri dituzte egubakoitza aurretik, Arkupen, 16:00etan hasita: "Nazioarteko hiru film labur eta Josu Martinezek zuzendutako *Jainkoak ez du barkatzen* filma eskainiko ditugu martitzenean; eguaztenean, *Agur, Etxebeste!* filmeko lantaldekoen hitzaldia izango da, eta ondoren, efektu berezien makillaje erakustaldia egingo dugu Herriko Plazan; eta eguenean, MUko ikasleen eta Kutixi saileko lanak eskainiko ditugu".

Goiena Klubaren txokoa

Goiena Klubeko martxoko sariak!



SPC Heaven
10.1 tableta

Parte hartzeko sariaren izena: Tableta



Korrikako materiala

Korrikako materiala
Parte hartzeko sariaren izena: Korrika

Sarrerak

Arrikruz kobak bisitatzeko, sarrerak. **ARRIKRUTZ**
Parte hartzeko sariaren izena: Arrikruz

Otarrea

Bidezko merkataritzako produktuak. www.harrmandenda.org
Parte hartzeko sariaren izena: Otarrea

PARTE HARTZEKO:

Posta elektronikoz: kluba@goiena.eus WhatsApp: KLUBA "sariaren izena" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte hartzearen arloan egingo da zozketa.

Indibiduen LFP 15/1999 legearen arabera, gure webguruaren datu pertsonal Gure Komunikazio Taldearen bitartez zuzendutako komunikazioa da. Gure bitartez zuzendutako komunikazioa zuzenean gurea ez da. Eskubideak: Erabaki gurea aldatzea, itxiera, itzuli edo ez erabiltzea. Hala ere, zuzenean idatzi: kluba@goiena.eus

Irabazi bi lagunendako otordua

ZUMELAGA JATETXEARI ESKER
Begiartu Puntua aldizkari Otorduan atala eta hartu parte!

☎ 943 25 05 05 ✉ kluba@goiena.eus

📍 KLUBA Jabetzea
[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.

Irabazi bi lagunendako sarrerak

Arrasateko Udalari esker
'Adrenalino' ikuskizunaren sarrerak ditugu.
Arrasate | Amala Antzokia | Apirilaren 7an | 18:00etan

PARTE HARTZEKO: APIRILAREN 4A ARTE

E-postaz: kluba@goiena.eus WhatsApp: KLUBA "Adrenalino" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte hartzearen arloan egingo da zozketa. Indibiduen LFP 15/1999 legearen arabera, gure webguruaren datu pertsonal Gure Komunikazio Taldearen bitartez zuzendutako komunikazioa da. Gure bitartez zuzendutako komunikazioa zuzenean gurea ez da. Eskubideak: Erabaki gurea aldatzea, itxiera, itzuli edo ez erabiltzea. Hala ere, zuzenean idatzi: kluba@goiena.eus



Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartelaren abantailaz gozatzeko...



Egin zaituzte Goiena Klubeko bazkide! Urte osoa, 56 € bakarrik!
Eta bazkideen artean, astero zozketak, deskontuak...
Deitu: 943 25 05 05 • kluba@goiena.eus

goienakluba
Euskara irabazte, denek irabazte!

OROIGARRIA

**Rosi Agirre Larrañaga**

2019ko martxoaren 20an hil zen, Oñatin.

*Rosi, beti gogoan izango zaitugu.*Arrasateko kuadrilla.
Arrasaten, 2019ko martxoaren 29an.

OROIGARRIA

Iñigo Guridi Zaloña

2019ko martxoaren 23an hil zen.

Eskerrik asko Debagoieneko Gurutze Gorriaren alde laguntzen ibilitako urte guzti hauengatik.Debagoieneko Gurutze Gorriko zure lagunak.
Oñatin, 2019ko martxoaren 29an.

URTEURRENA

Jose Lazkano Lonbide

2018ko apirilaren 3an hil zen, 88 urte zituela.

*Hor zaude,
ondoan;
gure
bihotzean,
eta gogoan.*Urteurreneko meza apirilaren 14an, domeka, izango da,
12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokian.Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.
Bergaran, 2019ko martxoaren 29an.

OROIGARRIA

**Isabel Diego Ortiz**

1932-05-28 / 2010-04-19

Jose Ignacio Uribarri Jausoro

1941-06-26 / 2003-03-30

*Ez dago ikusi beharrik jakiteko
ez dago berba egin beharrik ulertzeko
inor ez litzatekeela beste inor baino gehiago izan beharko
ezta inor baino gutxiago ere.
Hainbeste dago egiteko, bukatzeko,
hainbeste ikasteko, ez ahazteko moduko hainbeste,
azkenean, betikoa da garrantzitsuena.
Eta hau geure jendearendako da!*

Eskoriatzan, 2019ko martxoaren 29an.

OROIGARRIA

Milagros Basurto De la Torre

2019ko martxoaren 23an hil zen, 92 urte zituela.

*Zurekin bizitakoa, gurekin geratuko da betiko.
Gero arte, amama.*Ana eta Gorka, Lide eta Aritz, Maju, Xabat eta Oxel.
Bergaran, 2019ko martxoaren 29an.

URTEURRENA

**Jose Antonio Arriola Azkarate**

2018ko martxoaren 24an hil zen, 86 urte zituela.

Urteurreneko meza domekan izango da, martxoaren 31n,
12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokian.*Beti izango zara gure bihotzetan.*Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.
Bergaran, 2019ko martxoaren 29an.

ESKER ONA

**Josefa Latorre Mayner**

Felix Aranbururen alarguna



2019ko martxoaren 27an hil zen, 100 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali
zenizkigutenoi eskerrik asko, etxekoan izenean.*Beti egongo zara gure bihotzetan.*

Bergaran, 2019ko martxoaren 29an.

ESKER ONA

Milagros Basurto De la Torre

2019ko martxoaren 23an hil zen, 92 urte zituela.

Milesker egunotan zuen maitasuna eta
gertutasuna adierazi diguzuen guztioi.
Familiaren partez, eskerrak bihotzez.

Bergaran, 2019ko martxoaren 29an.

URTEURRENA

**Ioseba Zabaleta Igartua**

2018ko martxoaren 30ean hil zen, 41 urte zituela.

Urtemuga meza zapatuan izango da, martxoaren 30ean,
19:00etan, Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokian.*Irribarrez eta umoretsu oroituko zaitugu
gure bihotzetan betiko, lose!*Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.
Oñatin, 2019ko martxoaren 29an.

ESKER ONA

**Kontxi Otxoa Zabarte**

2019ko martxoaren 12an hil zen, Aretxabaletan.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi,
hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Aretxabaletan, 2019ko martxoaren 29an.

ESKER ONA

**Faustino Garcia Alonso**

2019ko martxoaren 20an hil zen, 84 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali
zenizkigutenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.

Bergaran, 2019ko martxoaren 29an.

OROILORE

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu

*Jakin ezazue
nahiz eta heriotz
asegurua
izan, zuek
nahi duzuen
hileta-zerbitzua
aukeratzeko
eskubide osoa
duzuela.**Lasaitasuna, maitasuna eta laguntza
dut beti zuentzako.*

Maribi • Tel.: 617 44 21 55 • BERGARA

TXUTXU-MUTXUAK

**1. Adarrara mendi buelta**

Elgetako Kantsatzeke taldekoek giro ederrean egin zuten itzulia, euren Facebooketik hartutako erretratuan ikusten den moduan. Ostean, sagardotegian bazkaldu zuten.

3. Goienako platoa ezagutzen

Arrasateko Arizmendi Ikastolako Lehen Hezkuntzako hirugarren mailako ikasleak bisitan egon dira. Telebista, erredakzioa eta administrazioa ezagutu dituzte.

5. Telebistako albistegia egiten ikasten

Arizmendiko Gaztelupeko lehenengo Batxilergoko ikasleek albistegi bat egin beharko dute ikasturtea bukatu aurretik, eta Goienan nola egiten den aztertu dute.

7. Eski zeharkaldia

Panticosa-Wallon-Panticosa zeharkaldia egin zuten erretratuan dauden eskiatzaileek. Aloña Mendiren urteroko eski zeharkaldian, bi egunean ibili ziren elur gainean.

2. Futbolaz gozaten Senegalen

Kirol-jertse mahoneroarekin daude erretratuko jokalariaik. Bergara Kirol Elkartek bidalitako arroparekin jokatzen dihardute futboleant, Senegalen.

4. Aldizkari baten prozesua ezagutzen

Arrasateko Institutuko DBHko lehenengo mailako ikasleek *Aldizkarigintza* ikasgaia lantzen dihardute, eta GOIENA aldizkaria nola egiten den ikusten izan dira asteon.

6. Erretiratuak, karta jokoan

Debagoieneko herri guztietako erretiratuak egon dira astean Oñatiko Pake Lekun karta jokoetan parte hartzen. Besteak beste, mus eta briska txapelketak jokatu dituzte.

8. Santoñan ibilaldia

Aloña Mendiko mendi sailekoak Santoña (Kantabria) aldean ibili ziren. Buciero mendian, hain justu ere. Faro del Caballo eta Faro del Pescador bisitatu zituzten.

ZORION AGURRAK

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu Goienaren bidez zoriontzeko:

Internet

Goiena.eus-en erabiltzailea sortu eta <https://goiena.eus/zorionagurrak> helbidean sartu zorion agurra.

Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta egubakoitzean Goiena paperean.

Posta elektronikoa

Mezua bidali zorionagurrak@goiena.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

Ordezkaritzak

Etor zaitez Goienaren ordezkartzaren batera edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

Martitzeneko 17:00ak arte jasotako zorion agurak bakarrik iragarriko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.




ARETXABALETA
Lander Urkia Lezeta
Apirilaren 2an, 7 urte. Zorionak, Lander! Ondo pasatu zure urtebetetzea. Koruetako familiaren partetik. Muxu handi bat!



BERGARA
Haitz Alberdi Lasagabaster
Apirilaren 1ean, 10 urte. Zorionak eta ondo pasatu! Etxekoen partetik.




ANTZUOLA
Noa Iturbe Gabiria
Apirilaren 1ean, 5 urte. Zorionak, printzesa, Maddiren eta etxeko danon partetik. Egun polita pasatu. Muxu potolo bat!




BERGARA
Malen Urbistondo Iglesias
Martxoaren 31n, 6 urte. Zorionak etxeko printzesatuari. Maitxe zaitzugu, bonboitu.



BERGARA
Irati Andueza Mozos
Martxoaren 30ean, 7 urte. Zorionak, Irati! Heldu da eguna, eh? Muxu potolo bat, familixako danon partetik! Mua!



ARRASATE
Egoitz Fernandez Davila
Martxoaren 30ean, 8 urte. Zorionak, *pitxin!* Etxekoen partetik, muxu handi-handi bat.



OÑATI
Markel Bengoa Igartua
Martxoaren 30ean, 6 urte. Zorionak, Markel! Akordatu orduko sei urte! Ondo pasatu zure egunien eta patxo handi bat, etxeko danon partetik.



ARRASATE
Ihabar Nalda Gonzalez
Martxoaren 30ean, 9 urte. Zorionak, mutil handi! Muxu eta besarkada handi bat. Askok maite zaitugu! Aitatzu, amatxo eta Uxue.



ARRASATE
Intza Altzua Azkarate eta Iradi Azkarate Zubillaga
Intzak urtarrean bete zituen 8 urte eta Iradiak martxoaren 29an betetzen ditu 7. Zorionak, printzesak, etxekoen partetik!



OÑATI
Danel Guridi Olalde
Martxoaren 29an, 8 urte. Zorionak, Danel! Ondo pasatu zure urtebetzeko eguna. Danok elkarrekin egongo gara... Askok maite zaitugu: amatxo, Nahia...eta bereziki, aitatzu.



ARRASATE
Ekain Alvarez Fuentes
Martxoaren 28an, 7 urte. Zorionak, maitia! Patxo handi bat, etxeko guztien partetik.



ARRASATE
Intza Moraza Atxaga
Martxoaren 28an, 2 urte. Zorionak, sorgintxo! Ondo-ondo pasatu eguna. Muxu pottolo bat, etxekoen partetik!



BERGARA
June Sanchez de Paz
Martxoaren 28an, 6 urte. Sei urte! Zorionak, printzesa. Egund polita pasatu eta muxu handi bat, familiako guztien partetik!



OÑATI
Luka Vaz Olabe
Martxoaren 27an, 5 urte. Zorionak, maitia! Edarto ospatu dezazula zure bosgarren urtebetetzea. Muxu potolo bat, familia osoaren partetik.



ARRASATE
Irati Hernandez Iturbe
Martxoaren 27an, 14 urte. Zorionak, neskatila, urte askotarako. Ongi pasatu zure eguna. Patxo potolo bat, etxeko guztien partetik.



ARRASATE
Ixone Zuriarrain Arkauz
Martxoaren 26an, 12 urte. Zorionak, polit hori! Ondo pasatu eguna, familia osoaren partetik!



ARRASATE
Danel Delgado Saenz
Martxoaren 26an, urtebete. Zorionak, Dane! Urtetxo bat bete dozu, maitia. Patxo handi bat, etxeko danon partetik.



BERGARA
Jose Anjel Moraza
Martxoaren 24an, 50 urte. Zorionak, Jose Anjel! Segi horrela!



BERGARA
Elene Rodriguez
Martxoaren 23an, 7 urte. Zorionak, maitia. Zazpi urtetxo, txapeldun. Ondo ospatu eguna. Askok maite zaitzugu danok.



BERGARA
Maddi Peiro Berrueta
Martxoaren 23an, urtebete. Zorionak, printzesa!

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEN EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

EGUBAKOITZA 29

ARETXABALETA Mandalak margotzeko saioa helduendako Idoia Elexpuru margolariaren saioa. Aurrez eman behar zen izena. *Udaletxe zaharrean, 16:00etan.*

ARRASATE Odol-ematea Martxoko azken egubakoitzeko deialdi irekia. *Laubide plazan, 16:30ean.*

ARRASATE 'Street boulder'-a Gaztetxoendako. *Santa Marinako ludotekan, 17:00etan.*

ELGETA Eskulan tailerra: artista liburuak 5 urte bitarteko haurrek heldu batekin hartu beharko dute parte. Aurrez eman behar zen izena. *Liburutegian, 17:00etan.*

ESKORIATZA 'Adimen emozionala' tailerra Hazkunde pertsonalean trebatzaile Miriam Herbonen azken saioa. *Kultura etxean, 17:00etan.*

BERGARA Ipuin kontaketa Ana Apikaren eskutik, umeendako saioa. *Liburutegian, 18:00etan.*

BERGARA 'Microfísica sexista del poder' liburuaren aurkezpena 1992an Alcasserren gertatutako kasutik abiatuta doktore tesia idatzi zuen Nerea Barjolak. *Kartzela Zaharrean, 18:00etan.*

OÑATI Zaporeak taldeak egiten duen lanaren berri Oraitz Gartzia eta Xabi Gesalaga oñatiarrak egingo dute berba. *Kultura etxean, 18:30ean.*

OÑATI 'Musik/Fem' solasaldia Leire Palacios kazetariak elkarrizketa musikatu egingo dio Olatz Salvadorri, Beratu jaialdian. *Kultura etxean, 19:00etan.*

BERGARA Orfeoi gaztearen kontzertua Sarrera debalde da. *Seminarixoa, 19:00etan.*

ARETXABALETA 'Erraiak' ikus-entzunezkoa Ekain Martinez de Lizarduik zuzendutako lana. Sarrerak, hiru euro. *Zaraia aretoan, 19:00etan.*

OÑATI Ainara Legardon Musikari bilbotarrak *Ainara Legardon* diskoa aurkeztuko du, Beratu jaialdiaren baitan. *Gaztetxean, 22:00etan.*

ZAPATUA 30

LEINTZ GATZAGA Auzolana Gaztainuzketako mendi-etxeetan Ingurua txukuntzeko elkartuko dira herritarrak. *San Migel plazan, 09:00etan.*

OÑATI Tradizio espiritualetako testu fundatzaileen berrirakurketa Islamaren eta Koranaren inguruko mintegia eta eztabaida, Joxe Arregirekin. *Elkar Hezin, 09:30ean.*

OÑATI Txoriak eta euren kantuak ezagutzeko irteera Eneko Azkuek azalpenak emango ditu, eta ostean, txoriak identifikatzera joango dira. Prismatikoak derrigorrezkoak dira. *Arantzazuko parketxean, 10:00etan.*

OÑATI Zunba maratoia Bi orduko saioa egingo dute Oñatiko, Eskoriatzako eta Arrasateko erabiltzaileek. *Zubikoan, 10:00etan.*

ARETXABALETA 'N-estetika' erakusketa Gaur da Fernando Lesagibelen bilduma ikusteko azken eguna. *Arkupen, 11:00etan.*

OÑATI 'Beratu lab' jardunaldia Musika autogestioari buruzko tailerra egingo dute Ainara Legardonekin. *Eltzian, 11:00etan.*

OÑATI Irlanda eguna Errealitate politikoa, soziala eta kulturala ezagutzeko ekintzak:

hitzaldia, bazkaria, bertsolariak eta kontzertua egongo dira, besteak beste. *Gaztetxean, 12:00etan.*

OÑATI Herrixa Kantuan Txantxiku Ikastolako eta Jose de Azpiazu musika eskolako kideekin kantu-jira. *Foruen plazan, 12:30ean.*

OÑATI Areto bizikleta maratoia Hiru orduko saioa egingo dute Oñatiko, Arrasateko, Zumarragako, Legazpiko eta Eskoriatzako erabiltzaileek. *Zubikoan, 16:00etan.*

ANTZUOLA Uzarragako igoera Junior mailakoendako ziklismo proba. *Herriko plazan, 16:00etan.*

OÑATI VIII. Txinparta Bertsolari Txapelketa Bigarren finalurrekoan, Odei Irigoien, Aitor Tatiegi, Egoitz Aizpuru, Andoni Goitia, Joseba Igartua Urze, Urko Arregi, Gontzal Belategi eta Aritz Irigoien bertsotan. *Eltzian, 17:30ean.*

ARAMAIO Arabako Bertsolari Txapelketako finala Manex Agirre, Xabi Igoa eta Peru Abarrategi aramaioarrak; Iñaki Viñaspre, Oihane Perea eta Aroa Arrizubieta nor baino nor gehiago. *Gasteizko Printzipal antzokian, 17:30ean.*

OÑATI Juan Valls Trio eta Madeleine Beratu jaialdiaren baitan. Sarrerak, debalde. *San Lorentzoko ermitan, 18:00etan.*

ARRASATE Libertad Condicional taldea Gaztetxoendako kontzertua. *Erdiguneko gaztegunean, 18:00etan.*

OÑATI 'Stella Maris' kontzertua Oñatiko Ganbara Abesbatzaren emanaldi berezia. Oñatititik autobusak egongo dira, joan-etorriak egiteko, bi eurotan. Kontzertura sarrerak, hamar euro. *Arantzazun, 19:00etan.*



IMANOL SORIANO

ELGETA Bisita gidatu antzetzua lubakietara Mendizaleen plazatik irtenda, Intxortaraino joango dira, azalpenak ematen eta kontakizuna egiten, aktoreen laguntzarekin. Aurrez eman behar da izena –bost euro– 943-79 64 63 telefonora deituta. *Bihar, zapatua, Mendizaleen plazan, 10:30ean.*

LEINTZ GATZAGA Kantu afaria Korrikaren bueltan, Nafarroa Kantuz taldeak girotuta. *Soran etxean, 21:00etan.*

OÑATI Elena Setien, Vulk eta Atom Rhumba taldeak Beratu jaialdiaren baitan. Sarrerak, hamar euro. Aurrez, leihatila digitalean, udal webgunean eta Txokolateixan. *Gaztelekuan, 21:30ean.*

DOMEKA 31

ANTZUOLA Auzolana Trekutzen, txukuntzeko Ingurua txukuntzeko elkartuko dira herritarrak. Ostean, hamarretakoa. *Herriko plazan, 09:00etan.*

OÑATI 'Trakamatraka' tailer eta kontzertu didaktikoa Beratu jaialdiaren barruan, *Beratu Txiki* egingo dute. *Foruen plazan, 11:00etan.*

OÑATI Muhama Saz taldea Beratu Jaialdiko kontzertua, debalde. *Lazarraga lorategian, 12:30ean.*

BERGARA Txistulari Bandaren kontzertua Irekia eta debalde. *Udaletxean, 13:00etan.*

ARRASATE 'Familia jolasean' 0-8 urte arteko seme-alabak dituzten familiendako ekintzak. *Okendoko ludotekan, 17:00etan.*

ARRASATE Udaberriko oporrei begira Egitaraua prestatzen hasiko dira gaztetxoak. *Erdiguneko gaztegunean, 17:00etan.*

ELGETA Herrixa Dantzan, Joan Frances Tisnerrekin 17:00etan, dantza ikastaroa; eta 19:00etan, dantzaldia, ikasitakoa praktikan ipintzeko aukera. *Espaloian, 17:00etan.*

ARETXABALETA Antzerki kontzertua *Kontukantari 2. mendian ibiltari* ikuskizuna txotxongiloekin, umeendako. Sarrerak, hiru euro. *Zaraia aretoan, 17:00etan.*

OÑATI Usopop Jaialdia Orbel eta Unama taldeek joko dute, Beratu jaialdiaren baitan. Debalde. *San Martingo ermitan, 18:00etan.*

OÑATI '11 baino +; Has Gasteizen euskaraz bizitzen' dokumentala Mikel Ezkerrok egindako lana. Euskarak Gasteizen duen egoera azalduko du egileak. *Gaztetxean, 19:00etan.*

ESKORIATZA 'Rita' antzezlan Unibertsitateko literatura irakasle baten eta ile-apaintzaile baten arteko harremana kontatzen du Txaloren lanak. Joseba Apaolaza eta Aitziber Garmendia oholatzen. Sarrerak, lau euro. *Zaldibarren, 19:00etan.*

ASTELEHENA 1

OÑATI Pentsiodunen elkarretaratzea

Pentsio duinak eskatzeko. *Foruen plazan, 12:00etan.*

OÑATI 'Emakume aurpegia duen nikaraguar erresistentzia' erakusketa

Argazkiak ipiniko dituzte ikusgai hilaren 7ra arte. *Kultura etxean, 18:00etan.*

ARRASATE 'Abolizioa. Prostituzioa' hitzaldia

Amelia Tiganues aktibistak eta prostituzioaren eta salerosketaren mundutik ihes egindakoak egingo du berba. *Kulturaten, 19:00etan.*

MARTITZENA 2

ARRASATE Odol-ematea

Apirileko lehen martitzeneko deialdi irekia. *Osasun zentroan, 16:30ean.*

ARETXABALETAKO Ipuin kontaketa

Haur Liburuaren Nazioarteko Egunaren harira Leire Zinkunegiren saioak: 17:30ean, *Lukas saguaren istorioa* 3 urtetik gorakoendako; eta 18:15ean, *Gerizpeko ametsak*, 5 urtetik gorakoendako. *Haur liburutegian.*

OÑATI Testamentuari buruzko hitzaldia

El fenómeno sucesorio. Aspectos jurídicos y fiscales hitzaldia egingo du Mercedes Hernaiz notarioak, erretiratuendako. *Pake Lekun, 17:30ean.*

ARRASATE 'Vademekun' zirku ikuskizuna

4 urtetik gorakoendako saioa, Liburuaren Nazioarteko Egunaren harira. *Kulturaten, 18:00etan.*

OÑATI Herriko presoen egoerari buruzko solasaldia

Konponbidean zein urrats eman behar ditugu? galderari erantzuten ahaleginduko dira Sareko kide Iñaki Lasagabaster eta Onintza Ostolatza

abokatua. Olatz Osak gidatuko du saioa. Irekia izango da herritar guztiendako.

Kulturaten, 18:00etan.

ARRASATE 'La clase de piano' pelikula

Ludovic Bernarden pelikula martitzenetako saioan. *Amia antzokian, 20:30ean.*

EGUAZTENA 3

ESKORIATZA Ikasle euskaldunon kanpaldia

11:00etan, txupinazoa, eta ostean, ezagutza jolasak; 13:00etan, bazkaria, eta ostean, Huhezi Akustikoak; 16:00etan, sexologia tailerra; 18:00etan, Altsasuko gurasoen parte-hartzea; eta 21:00etan, afaria eta gaubeila. *Huhezin.*

BERGARA Eguazteneko azoka

Herriko baserritarren eta garaiko produktuen salmenta. *Oxirondon, 18:00etan.*

OÑATI 'Nikaragua matxinatua. Helmugak eta perspektibak' hitzaldia

Fidel Ernesto abokatu nikaraguarrak egingo du berba. *Kultura etxean, 18:00etan.*

ARRASATE 'Vasco-Navarro trenaren dokumentala Arrasaten'

2018an ehun urte bete ziren Vasco-Navarro trenaren Arrasatera heldu zela. Historiaren pasarte hura gogoratzeko, Arrasateko Udala Bibliotekak dokumental bat egin du. Gaur, aurkezpena eta emanaldia. *Kulturaten, 19:00etan.*

BERGARA 'Profesor en Groenlandia' pelikula

Samuel Collardeyren filma, zineklub emanaldian. Sarrerak, hiru euro. *Zabalotegin, 20:00etan.*

EGUENA 4

ESKORIATZA Ikasle euskaldunon kanpaldia

09:00etan, gosaria; 10:30ean, transexualitateari buruzko hitzaldia; 12:30ean, wikilari afrikarrekin

solasaldia; 19:00etan, pintxo-potea; eta 22:30ean, Kilimak taldearen kontzertua, Inkernu tabernan. *Huhezin.*

ELGETA 'Hitzez Pitz' irakurketa solasaldia

Jon Arretxeren *Zazpi kolore* liburutik aukeratuko dituzte hiru ipuin. *Liburutegian, 11:00etan.*

OÑATI Bingo jokoa eta opariak

Erretiratuendako jokoa. *Pake Lekun, 17:00etan.*

OÑATI Idazketa lantegia

Idazteko zaletasuna dutenendako taldea, Joxe Mari Iturraldek gidatuta. *Liburutegian, 18:00etan.*

OÑATI Ipuin kontaketa

Nazioarteko Liburuaren Egunaren harira *Zaku bete lelokeri* saioa egingo du Miren Larreak, 3-6 urte artekoendako. *Liburutegian, 18:00etan.*

OÑATI Gabriela Cendoyaren erakusketa

Argazki liburuak ukitu, usaindu, behatu...ezagutu delako bilduma ikusgai maiatzaren 5era arte. Argi festibaleko ekintza. *Liburutegian, 18:00etan.*

ARRASATE 'Hizkuntza eskubideak, norenak?' solasaldia

Eneko Alvarezek eta Arkaitz Zarragak egingo dute berba, Lander Arbelaitzek gidatuta. *Kulturaten, 19:00etan.*

ARRASATE 'Vasco-Navarro trenaren dokumentala Arrasaten'

2018an ehun urte bete ziren Vasco-Navarro trenaren Arrasatera heldu zela. Historiaren pasarte hura gogoratzeko, Arrasateko Udala Bibliotekak dokumental bat egin du. Gaur, emanaldia. *Kulturaten, Arrasate 19:00etan*

ARRASATE Ira taldea

Madrilgo taldeak rap doinuekin egingo du Kooltur Ostegunetako kontzertua. Raissa, Medea, Satira eta Elvirus dira taldeko kideak. Sarrerak, bost euro. *Gaztetxean, 22:00etan.*

ZINEMA

ARRASATE

AMAI ANTZOKIA

Mula
Zapatua: 19:30.
Domeka: 19:30.
Astelehena: 20:30.
Como entrenar a tu dragon 3
Zapatua eta domeka: 17:00.

OÑATI

KULTURA ETXEA

Mula
Egubakoitza eta zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.
Como entrenar a tu dragon 3
Zapatua eta domeka: 17:00.

ARETXABALETAKO

ARKUPE

El candidato
Egubakoitza eta zapatua: 22:00.
Domeka: 19:30.
Astelehena: 16:00.
Uno mas en la familia
Zapatua: 17:00.

GASTEIZ

GORBEIA

¿Que te juegas?
Egubakoitza eta zapatua: 18:25, 20:30, 22:30.
Domeka: 18:25, 20:30.
Astelehena: 17:30, 20:00.

Bohemian Rhapsody

Egubakoitza eta zapatua: 21:45.
Domeka: 20:10.
Astelehena: 20:00.

Boi

Egubakoitza eta zapatua: m 18:10, 20:20, 22:30.
Domeka: 18:10, 20:20.
Astelehena, eguaztena eta eguena: 17:30, 20:00.
Martitzena: 17:30.

Capitana Marvel

Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 20:00, 22:30.
Domeka: 11:45, 17:30, 20:00.
Astelehena: 17:30.

Como entrenar a tu dragon 3

Egubakoitza eta zapatua: 17:00.
Domeka: 12:15, 17:00.
Astelehena, eguaztena eta eguena: 17:30.

Dolor y gloria

Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 20:00, 22:30.
Domeka: 17:30, 20:00.

Dumbo

Egubakoitza eta zapatua: 17:15, 19:40, 22:10.
Zapatua eta domeka: 16:30, 18:45.

Domeka: 12:00, 17:15, 19:40.
Astelehena: 17:30, 20:00.

El niño que pudo ser rey

Egubakoitza eta zapatua: 17:15.
Domeka: 12:15, 17:15.

Escape room

Egubakoitza eta zapatua: 20:00, 22:30.
Domeka: 20:00.

Green book

Egubakoitzetik domekara: 19:10.
Astelehena: 20:00.

Mula

Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 20:00, 22:30.
Domeka: 17:30, 20:00.

Nosotros

Egubakoitza eta zapatua: 17:50, 20:00, 22:30.
Domeka: 17:50.
Astelehena: 20:00.

EIBAR

COLISEO

Dumbo

Zapatua: 17:00.
Astelehena: 20:30.

La mujer de la montaña

Zapatua: 19:45, 22:30.
Domeka: 17:00, 20:00.

Las herederas

Zapatua: 17:00, 19:45, 22:30.
Domeka: 17:00, 20:00.
Astelehena: 20:30.

KRITIKA

Dolor y gloria ★★★★★

Zuz.: Pedro Almodovar. **Herr.:** Espainia (2019). **Aktoreak:** Antonio Banderas, Asier Etxeandia, Penelope Cruz. **Iraupena:** 108 minutu.

Zinema eta bizitza: berrelikadura

ANTONIO ZABALA

Bizitza pertsonen higadura ekartzen du. Urteak pasa ahala, fisikoki eta izaeran, aldaketak gerta daitezke. Agian, orokorrean, antzekoak izaten jarrai dezakegu baina arazoei aurre egiteko moduak eta egoerei buruz dauzkagun ikuspuntuak aldatzen joaten dira. Almodovarren filmetan hori guztia igartzen da. Hasierako urteetan bere zinema askoz eroagoa, kaotikoagoa eta freskoagoa zen. Bere istorioetan, bururatzen zitzaizkion ideia bitxi guztiak sartzen zituen. Bere lanak irregularragoak ziren, baina, aldi berean, oso originalak eta pertsonalak. Urteekin bere filmak neurritsuago eta gogoetsuago bihurtu dira. Horren adibide nabarmenena

Dolor y gloria da. Hobeto daki zer kontatu eta nola kontatu nahi duen. Zuzendariak, Salvador Mallo pertsonaiaren bitartez, bere bizitza buruzko errepaso egingo du. Amarekin urteetan zehar izandako harremana, haurtzaroko oroimenak, bizitzan garrantzia izan duten pertsonaiekin —aktoreak, maitaleak...— dituen topaketa berriak, sendatu gabe geratutako zauriak eta berba egin gabe geratutako elkarrizketak... Zinema eta bizitzak elkarrekin berrelikatzen dira. Bizitzako gertaerak, sendotasunez eta sentiberatasunez, fikzioarekin nahasten dira, zuzendariak berarentzat zinema zer den eta bere bizitzan zer izan den azaltzeko.



AZKEN BERBA

AGURNE BARRUSO

Miguel Altunaren hutsunea

Lanbide Heziketako Miguel Altuna Institutua Ozetara joateko kontagailua martxan dago aspaldian. 2001ean sinatutako akordio baten ondorioz, 18 urte beranduago MAIk ondo merezita dauzkan azpiegiturak izango ditu bere jardunarekin aurrera egiteko.

Erreferentziazko eskola daukagu Bergaran Lanbide Heziketan eta egiten duen lanari etekin handiena ateratzeko beharrezkoa du azpiegitura berria.

Zalantzarik gabe, asko pozten naiz MAIrengatik, baina bergarar moduan badaukatu arantzatxo bat. Bergararrok ederki sumatuko dugu Miguel Altunako kideek erdialdeari ematen dioten bizitzaren falta. Goizean zehar handik pasatzen garenok faltan botako dugu Elementalaren inguruan egoten den bizitasuna. Zer esanik ez atsedendariaren inguruan kalean dabilzanak.

Miguel Altunari dagokion azpiegitura eraiki ondoren badaukagu herri moduan ebatsi beharreko erronka: Nola beteko dugu MAIk erdialdean betetzen duen tokia? Zein erabilera emango diogu eraikin zaharrari? Polita litzateke, alderdiez harago, guztion artean landuko bagenu gai hau.

BUKATZEKO

Muniategiandikoetxearen obra 'Hola' aldizkarian

'Hola' aldizkariak Ella Fontanals bildumagile kubatarraren etxea erakutsiz argitaratu duen erreportajearen, artista bergararraren 'Rodchenko n°9' eskultura ageri da. Fontanalsek Murtzian 2009an eginiko 'Night flight' erakusketan eskuratu zuen obra



Rodchenko n°9 eskultura. HOLA

Amaitza Zabala BERGARA

"Madrildik deitu zidaten nire eskultura *Hola* aldizkarian aterako zela eta aipamen egingo ziotela jakinaraziz eta nik, hasiera batean, ez nion garrantzirik eman, ohikoa baita, baina gerora etorri den oihartzunak harritu egin nau, eta, egia esan, askotan, aldizkari espezializatuetan agertzeak baino publizitate gehiago egiten digute, jende gehiagok irakurtzen baititu", dio Manu Muniategiandikoeak, eskulturaren egileak.

Rodchenko argazkilaria eta diseinatzaile grafiko errusiarrak 1922an eginiko eskulturarako sortu zuen maketa baten erreplika da Muniategiandikoetxearena. "Duela urte batzuk, Rodchenkoren maketen erreplikak egin zituzten artista batzuek, eta nik haien lana hartu, ikertu, akatsak bilatu eta erreplika hobek sortzeko lana egin nuen", argitu du artista bergararrak. Gaineratu du esfera armilar bat dela eskultura hori eta Galileok espazioa, planetak eta mugimendua adierazteko sortutako formak irudikatzen dituela.

Hola aldizkariaren esanetan, Ella Fontanals, eskulturaren eroslea, arte garaikide latinoa-



Ella Fontanals bildumagilea, etxean, alboan eskulturak dituela. HOLA

merikarraren munduko bildumagilerik handiena da eta Hispanoamerikako Peggy Guggenheim deitzen diote.

Arco, arte garaikidearen feria
Muniategiandikoetxeak Murtzian 2009an La Conservera aretoan eginiko *Flight night* erakusketarako egin zuen *Rodchenko n°9* eskultura, eta Fontanalsek bertan erosi zuen.

Artista bergararrak jakinarazi du ez zuela zuzeneko harremanik izan eroslearekin: "Gutxitan izaten dugu harremana erosleekin, hauek hala eskatzen badute soilik, eta hori, batez ere, Madrilan egiten den Arco arte garaikidearen nazioarteko ferian geratzen da. Aurtengoan, esaterako, erosle batzuek bideo bat grabatu zidaten erosi zuten eskulturaren inguruan hitz

egiten eta esan zidaten euren bildumaren parte zirela egileen bideoak".

Otsailaren 23tik martxoaren 3ra egin dute aurtengo Arco feria, eta, Muniategiandikoetxearen esanetan, "oso ondo" joan da eta galeriak ere "pozik" geratu dira egindako salmentekin. "Urte txarrak izan ditugu, krisia dela eta, baina berriro ere hartu du buelta".

MARTIN PEREZ

GOIENA TELEBISTA, 'BARRU'

APIRILAREN 2AN, MARTITZENEAN, 21:30EAN ETA 23:30EAN

GURPILDUN AULKIAN SASKIBALOIAN JOKATZEN DUEN KIROLARIA
ETA PERTSONA GERTUTIK EZAGUTZEKO AUKERA

goiena
Zu hemen zaude.

